



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko abenduaren 29a

152. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- 10-22/LEY-00018. Foru Legea, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).
- 10-22/LEY-00016. Foru Legea, finantza-transakzioen gaineko zergari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (59. or.).
- 10-22/LEY-00019. Foru Legea, zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergari buruzkoa. Osoko Bilkurak onetsia (67. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 10-22/MOC-00106. Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da irakaskuntzako zuzendaritzako osagarria egonkortzeko dagozkion prozedurak ezar ditzan. Hezkuntza Batzordeak onetsia (77. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorren 2023. urterako ordutegi ofiziala (78. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

10-22/LEY-00018. Foru Legea, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko abenduaren 22an egindako Osoko Bilkuran, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2022ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzekoa

HITZAURREA

Foru lege honen xedea da ondorengo arau hauek aldatzea: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina, Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Legea, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea, Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren xedapenak biltzen dituen testu bategina, Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren xedapenak biltzen dituen testu bategina, Saltoki handien gaineko zerga arautzen duen Foru Legea, Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko Foru Legea, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra, Fundazioen eta babes jardueren zerga araubidea erregulatzen duen Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen Foru Legea, Nafarroako Kooperatiben Zerga Araubidea arautzen duen Foru Legea, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren Erakunde Autonomoen Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea, Ekonomia-jardueren gaineko zergaren edo lizentzia fiskalaren tarifak eta jarraibidea onesten dituen Foru Legea eta

Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko Foru Legea.

Foru lege honen helburu nagusietako bat egungo testuinguru ekonomikoari erantzutea da. Inflazio tasa altua dela-eta, errenta apalenak dituzten zergadunen tributazioa gutxituko duten neurri fiskalak hartu behar dira. Aldi berean, ahalmen ekonomiko handiagoa dutenei ekarpen handiagoa exijitu behar zaie.

Horrenbestez, kentzen da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren aitorpena egiteko betebeharra errenta maila apalena duten langile eta pentsiodunentzat, horiek direlako egungo egoera ekonomikoak gehien zigortzen dituenak. Aitorpena egiteko gutxieneko errenta igotzearekin bat etorrira, eta neurri horrek ondorioak izan ditzan zergadun horiek 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera jasotako errentetan, lan atxikipenetako taulako lehenbiziko bi tarteak kentzen dira eta, hortaz, atxikipena egiteko betebeharra sortuko da jasotzen diren lan etekinak 14.500 eurotik gorakoak direnean.

Sozietateen gaineko zergaren kasuan, 20.000.000 eurora igotzen da negozio-zifraren zenbateko garbiaren muga enpresa bat enpresa txikitzat hartzeko 100eko 23ko karga-tasa nominalaren arabera tributatu ahal izan dezan.

Era berean, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarako eta sozietateen gaineko zergarako salbuesten dira Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko Plan Nazionalaren babesean emandako laguntzak, horien artean diru-sarrera eta ondare gutxiko pertsona fisikoentzako 200 euroko zuzeneko laguntza, errepedeko garraioaren sektorerako zuzeneko laguntzak, eta energia-kostuek 2022an zehar izandako gorakadari aurre egiteko enpresentzako laguntzak.

Halaber, garapen ekonomikoarekin eta Nafarroako Gobernuak ekintzailatzaren eta berrikun-

tzaren alde egiten duen apustuarekin lotuta, hobetzen dira pertsona fisiko eta entitate ekintzaleentzako zerga-pizgarriak, bai eta entitate ekintzaileetan inbertitzen dutenentzat ere, bereziki, jarduera berritzaileetarako. Gurera lekualdatu diren pertsonen araubide berezia ere hobetzen da, Nafarroako Foru Komunitatera talentua erakartzeko asmotan.

Ingurumenarekiko kezka isla du zerga-pizgarri berri batzuetan, haien bidez sustatzeko, batetik, energia berriztagarrien erabilera, bereziki hidrogeno berriztagarriarena, eta, bestetik, hainbat proiektu gauzatzea haize-energiaren eta fotovoltaikoaren osagaiak edo bateriak birziklatzearen eta berrerabiltzearen arloan eta hidrogeno berriztagarriaren ekoizpenaren eta haren balio-kateko osagaien fabrikazioaren arloan.

Beste aldaketa batzuen xedea da, oro har, Foru Komunitateko zerga araudia egokitzea zerga harreman juridikoaren oinarrian dauden errealitate juridiko eta ekonomiko aldakorretara, etengabe bi helburu nagusi bete nahian: zergen arloan ekitatea hobetzea eta iruzur fiskalari aurka egitea.

Horretarako, doikuntza tekniko batzuk egiten dira: puntu batzuk besterik gabe argitzea, edo zenbait kenkariren testuetan aldaketak egitea, jatorrizko helburuari laguntzen ez dioten kasuetan aplika ez daitezten.

Halaber, behar diren egokitzapenak egiten dira Europar Batasuneko Justizia Auzitegi Nagusiak (Lehenengo Salak) 2022ko urtarrilaren 27an C-788/19 gaian eman zuen epaia betetzeko; izan ere, epai horrek erabaki zuen atzerrian dauden ondasun eta eskubideen gaineko aitorpena (720 erdua) egiteko betebeharrari lotutako araubide juridikoak, zenbait alderditan, ez zuela betetzen Europako araudia. Azkenik, beste egokitzapen batzuk zergaz kanpoko arau batzuen aldaketen ondorio dira.

Berdintasunaren aldeko eta genero indarkeriaren kontrako borrokaren esparruan, neurri berritzaile bat gehitzen da, aukera emanen diena genero indarkeriaren biktimei pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioetatik sortutako zorren gainean duten erantzukizuna mugatu dadila eskatzeko, zergaren tributazioa erasotzailearekin baterako araubidean egitea hautatu zuten kasuan. Aldaketa horrekin salbuespen bat ezartzen da familia-unitateko kide guztien erantzukizun bateratu eta solidarioaren arau orokorrean, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudiak baterako tributazioaren kasurako ezartzen duen horretan. Xedea da ekiditea genero indarkeriaren biktimek erantzun behar izatea

erasotzailearena izaten ahal den zerga zorraren zatiaz, eta mantentzen da erasotzailearen erantzukizuna, bere baldintza guztietan, baterako autolikidazioaren zerga zorraren zenbateko osoaren gainekoa.

Arlo horretan berean, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari buruzko foru araudian txertatzen da, halaber, Genero indarkeriaren biktimek umezurtzen babesa hobetzeko martxoaren 21eko 2/2022 Lege Organikoan aurreikusitako salbuespena.

Proiektu hau egitean aintzat hartu dira arauketa onaren printzipioak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 129. artikuluan ezarriak. Horrela, foru lege honek, lehen adierazi diren arrazoiengatik, beharizanaren eta eraginkortasunaren printzipioak betetzen ditu: justifikatuta dago interes orokorraren arrazoiengatik, hainbat zerga-arau aldatzen duenez; lortu nahi diren helburuen identifikazio argian (aurreko paragrafoetan definitutakoak) oinarritzen da; eta, azkenik, helburuok lortzeko tresna egokia da, zerga arloan lege erreserbak agintzen baitu, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 11. artikuluan ezarrita.

Foru lege honek beste foru lege batzuen zenbait artikulua aldatzen ditu ahalik eta zehaztasun handienarekin, eta, beraz, proportzionaltasunaren printzipioa ere betetzen da. Horrengatik, segurtasun juridikoaren printzipioa ere betetzen da. Izan ere, zehatz-mehatz zaindu dira ordenamendu juridikoaren gainerakoarekiko koherentzia, egonkortasuna, eta pertsona nahiz enpresentzako aurreikusgarritasuna eta zalantzagarritasunik eza, oreka egokia lortze aldera legegilearen borondatearen eta gainerako errealitate juridikoaren artean, barne harturik jurisprudenziaz berriena ere. Foru lege honekin lortu nahi diren zenbait helburu betetzeko, oso kontuan hartu da sinpletasun eta efizientzia printzipioa ere, zeinak xede baitu karga administratibo ez-beharrezkoak edo bigarren mailakoak ekiditea eta baliabide publikoen kudeaketa arrazionalizatzea.

Foru legea, bera prestatzeko prozedura eta gainerako arauetan dituen efektuak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta nafarroa.eus webgunean argitaratzeak zaintzen du gardentasun eta irisgarritasun printzipioak errespetatuak izatea.

Bukatzeko, kontuan izan da gizonezkoen eta emakumezkoen berdintasunaren printzipioa, eta

aldaketak egin dira, arauetan hizkera inklusiboa eta ez-sexista erabiltzearen.

Legearen egitura 15 artikuluk, xedapen gehigarri batek eta 4 azken xedapenek osatzen dute.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren esparruan, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko Plan Nazionalaren babesean emandako laguntzei dagokienez lehen aipatu dugun salbuespenaz gainera, salbuespenei eragiten dieten beste aldaketa batzuk sartzen dira.

Lehenengo eta behin, interpretazioan dudarik izan ez dadin eta segurtasun juridikoa areagotzeko asmotan, ezartzen da ez direla itun, hitzarmen edo kontratu baten ondoriozkoak kasuan kasuko zerbitzu administratiboan, adiskidetze ekitaldian, lan arloko jurisdikzio bidea hasi aurreko urrats gisa adosten diren kalte-ordainak. Zehaztapen hori bat dator Zerga Administrazioak eta justizia auzitegiek egin izan duten interpretazioarekin. Kalte-ordain horiek, beraz, salbuetsirik egoten ahalko dira.

Bestalde, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, salbuetsizat deklaratzeko kalte fisiko, psikologiko edo materialen ondoriozko kalte-ordain ekonomikoak, martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legean jasotakoak (Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko Foru Legea, uztailaren 1eko 22/2022 Foru Legeak berriki aldatua).

Era berean, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, NBEUFaren laguntzen gaineko salbuespenaren onuradunen esparrua zabaltzen da, ehuneko 50eko salbuespena aplikatu ahal izan dezaten, zerga-sortzapenaren egunean lehentasunezko nekazaritza-ustiategien titularrez gain, ogibide nagusia nekazaritza dutenek; halaber, argitzen da ezen Nafarroako landa garapenerako programako laguntzak, Nafarroako Gobernuak eta LGENF funtsek batera finantzatzen dituztenak, salbuetsita daudela osotara, ezarritako mugekin betiere. Hau da, salbuespenak jasotako zenbateko osoari eragiten ahal dio, eta ez bakarrik LGENF finantzatutako zatiari.

Foru araudiari gehitzen zaio Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barruan eraikinen birgaitzea sustatzeko presako neurriei buruzko ekainaren 14ko 10/2022 Legean ezarritako salbuespena. Ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretuan xedatutakoa aplikatuz emandako dirulaguntza publikoak dira, haren bidez onesten baita zuzeneko laguntzak ematea autonomia erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei pizgarri-progra-

mak gauzatzeko, lotuta daudenak autokontsumoarekin eta energia-iturri berriztagarrien bidez biltegitarekin, baita bizitegi-sektorean energia berriztagarriak erabiltzen dituzten sistema termikoak ezartzearekin ere, Europako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

Azkenik, salbuetsizat deklaratzeko GWI9525 hegaldiak 2015eko martxoaren 24an izandako istripuaren biktimen ahaideek jasotako zenbatekoak. Ezbeharraren ondorioz, 54 haur espainiar umezurtz gelditu ziren, eta hegazkin konpainiak eta aseguru etxeak 5 milioi euroko laguntza funts bat sortu zuten haien ikasketak finantzatzeko. Laguntza horien salbuespena Estatuko araudian ezarri zen joan den martxoan, 6/2022 Errege Lege-dekretuaren bidez. Salbuespen hori bera ezartzen da foru araudian, egoitza fiskala Nafarroan duten hartzaileentzat.

Jarduera ekonomikoaren etekinei dagokienez, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, etekin garbia murrizteko berariazko ehunekoak ezartzen dira 15 urte edo gehiagoko sortze aldia izan duten basogintza jardueretarako.

Basogintza jardueraren ezaugarria da oso luzea dela zuzentzeko eta, ondorioz, zura saltzeko behar den denbora, eta zenbait kasutan 70 urtetik gorako mozketak ere izaten dira. Horregatik, jarduerak ia gasturik eragiten ez duen arren, diru-sarrerak urte bakar batean jasotzen dira, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergarena moduko mailaz mailako tarifa batean horrek dakartzan ondorioekin.

Nahiz eta baden oro har eta edozein jarduera ekonomikori aplikatzen ahal zaion etekin garbiaren ehuneko 30eko murriztapen bat bi urtetik gorako sortze aldia duten etekinetarako, komenigarritzat jotzen da ehuneko handiagoak ezartzea basogintza jarduerarako; horrela, mozteko batez besteko aldia 15 eta 70 urte bitartekoa bada, ehuneko 55eko murriztapena aplikatuko da, eta 70 urtetik gorakoa bada, ehuneko 65ekoa.

Bestalde, C-788/19 gaiari buruz Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2022ko urtarrilaren 27an emandako epaia betetzeko, 44. artikulua hirugarren eta laugarren paragrafoak indargabetzen dira, justifikatu gabeko ondare gehikuntzei buruzkoak. Aipatu epaiak ebatzi zuen atzerrian dauden ondasun eta eskubideen gaineko aitorpena (720 erdua) egiteko betebeharrari lotutako zenbait alderdik ez zutela betetzen Europako araudia. Alderdi horietako bat da orain indargabetzen diren paragrafo horiek ezartzen zuten preskribazintasuna, eragiten ziena ondasun edo eskubideen errentei zergadunak ez zuenean betetzen

atzerrian dauden ondasun eta eskubideen gaineko aitortpena egiteko betebeharrak horretarako ezarritako epean edo Zerga Administrazioaren egiaztapen prozeduraren hasiera jakinarazi baino lehen. Arrazoi beragatik, Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 6.4 artikulua indargabetu beharra dago. Horrenbestez, bi zergetan indargabetzen da preskribaezintasuneko xedapen berezi hori, eta aitortu gabeko errententzat oro har ezarritako zerga trataera aplikatu behar da.

Entitate ekintzaileetan parte hartzea sustatzen jarraitzeko, entitate ekintzaileetan inbertitzeagatikoen kariaren ehunekoak eta mugak handitzeaz gain, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan salbuespena ezartzen da entitate ekintzaileetan parte hartzeagatikoen kariarako eskubidea eman duten partaidetzak eskualdatzean lortutako gainbalioentzat, baldin eta eskualdaketa lortutako zenbatekoa urte bateko epean inbertitzen bada kariarako eskubidea emateko baldintzak betetzen dituzten partaidetza berrietan; nolahi ere, bi pizgarrietako bat hautatu beharko da, salbuespena ala kariaria, bateraezinak baitira.

Ekintzailetzarako pizgarriak hobetzeko asmo berarekin, ondarearen gaineko zergan salbuespen bat arautzen da entitate ekintzaileetan parte hartzeagatikoen kariarako eskubidea izateko baldintzak betetzen dituzten akzio edo partaidetzentzat.

Langile lekualdatuen araubide berezia aldatzen da: aurrerantzean, III. tituluko II. kapituluko 6. atalean arautzen da. Haren aplikazio eremua zabalitzen da, ez baita mugatzen I+G+b arloa eta unibertsitateko irakaskuntzara; aitzitik, antolaketa, kudeaketa, teknika, finantza eta merkataritza arloetako jarduerak ere hartzen ditu barnean. Langile lekualdatuaren bikotekideari ere aplikatzen ahalko zaio araubidea.

Halere, aplikazio eremuan ez dira sartzen enpresa enplegatzaileak atzerrian dauden bere filialetara lekualdatzen dituen langileak, atzerrian denbora bat egin ondoren (10 urte bitarte izaten ahal da) haien enpresara edo Espainian kokatutako beste filial batera itzultzen direnean, egoera horrek ez duelako laguntzen zerga-pizgarriaren xedea erdiesten, alegia, Nafarroako Foru Komunitatera talentua erakartzen.

Orobat, argitzen da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan langile lekualdatuen araubide berezia hautatzen dutenek betebeharrak errealtzen arabera tributatu dutela ondarearen gaineko zergan.

Zerga-oinarriaren murriztapenei dagokienez, gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpen eta kontribuzioen mugak egokitzen dira,

Enpleguko pentsio funtsak bultzatzeko araubideari buruzko ekainaren 30eko 12/2022 Legeak ezarritako finantza mugen arabera.

Gisa horretako tresna kolektiboak bultzatzeko, batez ere errenta ertain eta baxuak dituztenei aurrezten laguntzearen eta gazteak modu eraginkoragoan erakartzearen, langileak tresna kolektibora egindako ekarpenen eskala bat ezartzen da, eta ekarpen horiekin 8.500 eurora bitarteko murriztapena izaten ahal da.

Hala, enpresaren kontribuzioa ez bada 500 euro baino gehiagokoa, langileak tresna kolektiborako ekarpenaren bidez 1.250 eurora bitarteko ekarpena egin eta murrizten ahalko du. Enpresaren kontribuzioa 500 eta 1.500 euro bitartekoa bada, langileak 1.500 eurora bitarteko ekarpena egin eta murrizten ahalko du. Azkenik, enpresaren kontribuzioa 1.500 euro baino gehiagokoa bada, langileak egin eta murrizten ahal duen ekarpena, gehienez ere, enpresaren kontribuzioaren bestekoa izanen da, osotara ezarritako mugak kontuan izanik.

60.000 euro bitarteko lan etekin osoak dituzten langileen kasuan, gehieneko ekarpena enpresaren kontribuzioa bestekoa izanen da, haren zenbatekoa zein den ere.

Halaber, aurrezkiaren likidazio oinarri bereziaren gaineko karga aldatzen da. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, bi tarte berri sartzen dira aurrezkiaren oinarri bereziaren tarifan, halako moduz ezen egun indarrean den ehuneko 26ko tasa marjinala aplikatuko zaion 15.000 eurotik gora eta 200.000 eurora arteko likidazio oinarriari, eta ehuneko 27ko tasa gaineratzen den 200.000 eurotik gora eta 300.000 eurora arteko likidazio oinarrientzat, eta ehuneko 28koa 300.000 euro baino gehiagoko likidazio oinarriari.

Gaur den testuinguru ekonomikoan, aldaketa honen bidez lortu nahi da lanetik edo jarduera ekonomiko batetik ez datozen etekin ondozko ahalmen ekonomiko handiena duten subjektu pasiboek ekarpen handiagoa egin dezaten, errenta apalenak dituzten subjektu pasiboen tributazio txikiagoa konpentsatzeko.

Kuota kariaren esparruan, langileek enpresako kapitalean partaidetza izateagatikoen kariaria aldatzen da, ez dadin aplikatu haren xedearekin bat ez datozen kasuetan. Kariaren erabilera desegokiak ikusi dira. Izan ere, langile batzuek beren akzio edo partaidetzak saldu eta berriz ere eskuratzen dituzte kariari baliatzeko. Berriz ere, lehenagoko ehuneko berbera dute entitatearen parte-hartzean eta, horregatik, langileek enpresan duten partaidetza handitzen ez denez

gero, ez zatekeen erdietsiko kenkariak bultzatu nahi duen xedea.

Aldaketak ezartzen du eskurapen berriaren zenbatekoak ez duela kenkarirako eskubiderik sortuko eskualdaketa egin zen uneko partaide-tzarekin bat badator, hura eskurapenaren aurreko azken bost urteetan egin bazen. Partaidetzaren ehuneko handiagoa bada eskurapenaren ondorioz, partaidetzaren gehikuntzari dagokion zenbatekoari aplikatzen ahalko zaio kenkaria. Helburu berarekin, ezartzen da eskualdaketa gertatzen bada aurreko bost urteetan egindako eresketa baten ondoren, ulertuko dela eskuratutako azken akzio edo partaidetzak eskualdatu direla lehenbizi.

Energia berriztagarrien instalazioetan inbertsioak egiteagatik kenkariari dagokionez, batetik, berriztagarritzat jotzen diren energia motak egokitzen dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko abenduaren 11ko 2018/2001 Zuzentarauan xedatutakoaren arabera.

Gainera, bigarren paragrafo bat gehitzen da berariaz xedatzeko hidrogeno berdea energia-iturri berriztagarria dela eta agerian jartzeko Nafarroako Gobernuak hidrogeno berriztagarriaren alde egiten duen apustua. Hidrogeno berriztagarriaren kontsumoa sustatzeko helburu berarekin, kenkariaren ehuneko gehienez ere ehuneko 15 puntu handitzeko aukera arautzen da, gas naturala hidrogeno berdearekin ordeztzen bada.

Autokontsumo partekatuentzat, kenkarian ehuneko 5eko gehikuntza dagoenez ezarrita, energia berriztagarrien instalazioetan egindako inbertsioengatik kenkaria ehuneko 20ra iristen ahal da. Nafarroan, energiaren aldetik begiratuta, eraginkorragoak dira batera edo modu kolektiboan egindako inbertsioak eta, horrenbestez, 2030erako Nafarroako Energia Planaren ildoan doa modu horretan inbertitzea. Hori dela-eta, ehuneko 20ko kenkariaren aplikazioa energia-komunitateen inbertsioetara ere zabaltzen da.

Azkenik, 64. artikulua aldatzen da, zenbait kenkariren mugak jasotzen zituena. Aurrerantzean, "Kenkariak aplikatzeko arauak" deituko da, eduki berriak jasotzen baititu kenkariaren oinarria zehazteko moduari eta kenkariaren arteko bateraezintasunari buruz. Hala, berariaz ezartzen da salbuetsitza deklaraturako dirulaguntzak jasotzen direnean inbertsioak finantzatzeko, dirulaguntza horien zenbatekoan minoratuko dela kenkariaren oinarria, eta inbertsio berak ezin izanen duela eman kenkari bat baino gehiago aplikatzeko eskubiderik.

Kuota diferentzialaren kenkariei dagokienez, indargabetu egiten da kotizazio gabeko erretiro

pentsioen ondoriozko kenkaria, zuzeneko laguntza gisa kudeatuko delako.

Emantzipaziorako errentamenduaren kenkaria eskuratu ahal izateko gehieneko adina 35 urtera igotzen da. Aldaketa hori, berez, Babestutako etxebizitza ordainerrazten parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzeko uztailaren 1eko 20/2022 Foru Legean erantsi zen, baina progresiboki sartuko da, 4 urtean. Horregatik, hirurogeita zazpigarren xedapen gehigarri berrian, xedatzen da kenkarirako eskubidea izateko gehieneko adina 32, 33 eta 34 urtekoa izanen dela 2023an, 2024an eta 2025ean, hurrenez hurren.

Orobat, 2023an luzatzen da emantzipaziorako errentamenduaren kenkaria baliatzeko aukera lan-gabezia daudenentzat, adinaren baldintza bete gabe ere, enplegu eskatzaile gisa inskribatuta badaude.

2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, zehazten da ordezkarietako kuradoretza pean daudenak direla familia-unitatearen kide izaten ahal diren seme-alaba adinez nagusiak. Desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoa baliatzen laguntzeko legedi zibil eta prozesala eraberritzen duen ekainaren 2ko 8/2021 Legeak ezarritako aldaketetatik etorri da aldaketa.

Bestetik, baterako tributazioaren esparruan lehenago aipatutako neurria sartzeko, genero indarkeriaren biktimek erantzukizuna mugatzen duena pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioetatik sortutako zorretan, zergaren tributazioa erasotzailearekin baterako araubidean egitea hautatu zuten kasuan.

Jakina denez, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudiak ezartzen du, oro har, baterako aitortzearen kasuan familia-unitateko kide guztiek batera eta solidarioki erantzuten diotela zerga zorrari. Hau da, familia-unitateko edozein kideri exijitzen ahal zaiola zerga zor osoa. Gehitzen den aldaketarekin, foru lege honek indarra hartzen duenetik, arau orokor horretan salbuespena izanen da genero indarkeriaren biktimek. Biktimek beren erasotzaileari egozten ahal zaion zerga zorraren zatiari aurre egin behar izatea saihestu nahi da. Puntu honetan, komeni da argi uztea erantzukizunaren mugak biktimei soilik eragiten diela, eta bere horretan mantentzen dela erasotzailearen erantzukizuna, alderdi guztietan eta zerga zorraren guztizko zenbatekoan.

Xede horrekin, ezartzen da epai judizial baten bidez aitortutako biktimek eskatzen ahal dutela beren erantzukizuna soilik izan dadin beraiei egozten ahal zaien ordaindu gabeko zorraren

zatiari dagokiona. Ondorio horietarako, biktimari dagokion erantzukizuna izanen da haren zerga-oinarri positiboaren proportzioaren arabera, familia-unitatearen zerga-oinarri positibo guztien baturarekiko. Proportzio hori aplikatuko zaio eskaera egiten den egunean ordaintzeko dagoen zorraren gutzitxoari. Horrela, biktimaren zerga-oinarria zero edo negatiboa bada, ez du erantzun beharko zerga zorreatatik.

Erantzukizunaren muga baliatzen ahal da eskaeraren egunean ordaintzeko dauden eta epaiaren funtsa den lehenbiziko salaketa aurkeztu aurreko lau zergaldiei dagozkien zorretarako.

Erantzukizunaren muga hori baliatzeko aski izanen dagokion eskaera aurkeztea, epai judiziala erantsita.

Banakako pentsioen produktu paneuroparrei eman beharreko trataera fiskala pentsio planenarekin parekatzen da. Parekatze hori ondarearen gaineko zergaren arloan ere gertatzen da, salbuespena ezartzen baita produktu horietara egindako ekarpenen ondoriozko eduki ekonomikoko eskubideetarako.

2022ko martxoaren 22tik, Europako herritarrek beren erretirorako banakako aurreikuspeneko aurrezki produktu berri bat dute aukeran, banakako pentsioen produktu paneuropar (PEPP) berriari esker. Banakako pentsio planen sistema berria da, Europar Batasuneko herrialde guztietan kontratatzen ahalko dena, eta aukera emanen duena ekarpenak beste edozein herrialde kideetatik egiteko, eta aurreztaileak lekualdatzen ahalko dituenak Batasuneko estatu batetik bestera. PEP-Pak borondatezkoak eta pentsio eta enplegu sistema publiko nazionalen osagarriak izanen dira, baita tokiko banakako plan pribatuen osagarriak ere.

Martxoaren 22an sartu zen indarrean banakako pentsioen produktu paneuroparra (PEPP, ingeleseko siglengatik) ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 20ko 2019/1238 Erregelamendua. Batasuneko estatuek 2022ko ekainera arteko epea dute (hiru urteko epea, onetsi zenetik) erregelamendu hori beren ordenamendu juridikora ekartzeko.

Espanian, transposizioa egin da Enpleguko pentsio funtsak bultzatzeko araubideari buruzko ekainaren 30eko 12/2022 Legearen bidez. Haren bidez aldatzen da, azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Pentsio Plan eta Funtsak arautzeko Legearen testu bategina, zeinetan jasotzen den 35/2006 Legearen aldaketa, banakako pentsioen produktu paneuroparren trataera fiskala pentsio planen tra-

taerarekin parekatzekoa, eta baita Ondarearen gaineko zergaren ekainaren 6ko 19/1991 Legearen aldaketa ere, produktu horietara egindako ekarpenen ondoriozko eduki ekonomikoko eskubideen salbuespena ezartzekoa.

Horrez gain, ezartzen da banakako pentsioen produktu paneuroparren sustatzaileek irailaren 30eko 1307/1988 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Pentsio plan eta funtsei buruzko Erregelamenduan pentsio funtsak kudeatzen dituzten entitateentzako ezartzen diren tributu arloko informazioko betebeharrak izanen dituztela.

Babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzeko uztailaren 1eko 20/2022 Foru Legeak aldatu egin zuen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren testu bategina, ehuneko 40ko murriztapena ezartzeko etxebizitzaren errentamenduaren ondoriozko etekin garbi positiboari, urteko alokairuaren zenbatekoa AJI-Alokairu Jasangarritasunaren Indizearen balioa baino handiagoa ez bada, eta kontratua behar bezala erregistratu bada Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroan, aipatu 20/2022 Foru Legearen 90. artikuluan xedatutakoan. Aipatu erregistroa oraindik ez dago erabilgarri eta, beraz, ez dago kontratuak inskribatzerik, eta inskribatuta egotea murriztapena aplikatzeko ezinbesteko baldintza denez gero, ezinbestean atzeratu beharra dago haren aplikazioa erregistroa martxan den zergaldira arte.

Horregatik ezartzen da kapital higiezinaren etekin garbiaren murriztapena, 25.2 artikulua hiru garren paragrafoan xedatutakoa, Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroa abiatzen den zergalditik aurrera aplikatuko dela.

Urriaren 18ko 18/2022 Errege Lege-dekretuaren 21. artikuluan xedatutakoarekin bat, beste urtebetez luzatu da etxebizitzaren energia-efizientzia hobetzeko obregatikoko kenkaria aplikatzeko aldia. Horrela, epe luzeagoa dago etxebizitzetan energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoa edo haiek berotzeko edo hozteko energia eskaria murrizteko obrak gauzatu ahal izateko. Bestetik, dirulaguntzen zenbatekoa kenkariaren oinarrian minoratzeari buruzko aipamena kentzen da, ez minoratu beharrik ez dagoelako, baizik eta, lehen azaldu bezala, 64. artikulua aldatzen delako arau hori orokorrean ezartzeko, kenkari guztiei aplikadakien. Horrenbestez, 64.4 artikulura jo beharra dago kenkariaren oinarria ezartzeko.

Errenta apalenak jasotzen dituztenen tributazioa minoratzeko xedez, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aitortzen egiteko betebe-

harra kentzen da jasotzen dituztenentzat soilik 14.500 eurora bitarteko lan etekin osoak eta 1.600 eurotik beherako kapital higiezinaren etekinak edo ondare gehikuntzak, atxikipena egiteko betebeharra sortzen dutenak.

Aitorpena egiteko gutxieneko errenta igotzearekin bat etorrita, eta neurri horrek ondorioak izan ditzan zergadun horiek 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera jasotako errentetan, lan atxikipeneta-ko taulako lehenbiziko bi tarteak kentzen dira eta, hortaz, atxikipena egiteko betebeharra sortuko da jasotzen diren lan etekinak 14.500 eurotik gorakoa direnean.

Azkenik, 2022rako zuzeneko zenbatespen bereziari uko egiteko epe berezia ezartzen da.

2022ko maiatzaren 27an argitaratu zen 1/2022 Foru Lege-dekretuak aldatu egin zuen, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, zuzeneko zenbatespen berezia aplikatzeko eragiketa bolumenaren atalasea, 200.000 euroan kokatuta. 2022rako zuzeneko zenbatespen bereziari uko egiteko epea bukatua zen ordurako eta, ondorioz, zergadun batzuk uko egiteko epea bukatu ondoren sartu ziren hartan. Horregatik, salbuespen ezartzen da, eta 2021ean negozio zifraren zenbateko garbia 150.000 euro baino gehiagokoa (eta 200.000 baino gutxiagokoa) izan zuten zergadunentzat baino ez, 2022ko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioa aurkezteko unean zuzeneko zenbatespen bereziari uko egiteko aukera.

Ondarearen gaineko zergan, dagoeneko aipatutako aldaketek gain, entitateetako partaidetzen salbuespena aldatzen da. Batetik, ekonomia jardueretatik etorritako mozkinen parekotzat jotzen da partaidetzak eskualdatzearen ondoriozko gainbalioa ere (dibidenduen baldintza beretan). Bestetik, gerora etorritako ondarearen erregela sartzen da salbuespenak ukitzen dituen partaidetzen balioaren proportzioa kalkulatzeko. Neurri hori, salbuespen izateko aukerari dagokionez ezarrita zegoena, salbuespenaren irismenerako arautzen da orain. Hala, salbuespena iritsiko da, halaber, entitatearen ondare elementuekin bat datorren akzioen edo partaidetzen balioaren zatira, haien eskurapen-prezioa entitateek lorturiko mozkin ez banatuen zenbatekoa baino handiagoa ez bada, baldin eta mozkin horiek jarduera ekonomikoan ondoriozkoak badira; eta urte horretan berean eta aurreko hamar urteetan lorturiko mozkinen batura muga gisa hartuko da.

Nolanahi ere, salbuespena ez da inola ere iritsiko enpresa- edo lanbide-jarduera bati lotuta ez dauden ondasun higiezinaren baliora, bigarren mai-

lako merkatuetan kotizatutako baloreen baliora (salbu eta bigarren mailako merkatuetan kotizatutako baloreek boto eskubideen ehuneko 5, gutxienez, ematen dutenean eta, gainera, haien jabe izatearen helburua partaidetzak kudeatzea eta zuzentzea denean), ezta inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzen, eta Ondarearen gaineko zergaren 18. artikuluan aipatzen diren ibilgailu, ontzi eta aireontzien baliora ere.

Ezartzen da ere inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzei ez zaiela aplikatuko salbuespena.

Betebehar errealagatiko tributazioari dagokionez, aldaketa bat egiten da, zerga-saihestea ekiditeko sozietate-tartejartzearen bidezko higiezin-eruditzen. Halatan, entitateen balioak Espainiako lurraldean kokatutako joko dira baldin eta haien aktiboa Espainian kokatutako higiezinaren osatuta badago batez ere. Era horretan ezabatu nahi da egoiliarren eta ez egoiliarren arteko diskriminazio justifikaezina, azken horiek, Espainian dituzten ondasun higiezinari dagokionez, zerga saihesten ahal zutelako tartean jarriz gure herrialdeko egoiliarra ez den pertsona juridiko bat. Irtenbide hori bat dator beste araudi, hitzarmen aldean zuzentzen eta zergapetze bikoitzeko hitzarmen batzuekin.

Azkenik, 2022ko eta 2023ko zergaldietarako ondorioekin, beste tarte bat sartzen da 11.003.784,50 eurotik gorako likidazio-oinarrietarako tarifan

Sozietateen gaineko zergan asimetria hibridoko kasu berri bat sartzen da, errentak eratzitzeko araubideko entitateei eragiten diena, Kontseiluaren 2017ko maiatzaren 29ko 2017/952 (EB) Zuzentarauaren 9 bis artikulua transposizioa osatzeko, zuzentarau horrek 2016/1164 (EB) Zuzentzaraua aldatzen baitu, hirugarren herrialdeetako asimetria hibridoetako dagokionez. Alderantziko asimetria hibridoetako kasu berri horrek Batasuneko estatuak behartzen ditu, zergei dagokionez, haientan egoiliarren baliora bezala tratatzea zergen arloan gardenak diren entitateak, haien gehiengoa duten partaideen egoitzako herrialdeetako legediak errentaren gaineko zerga pertsonal baten zergadun kalifikazioa ematen dienak, hain zuzen, ez dadin gertatu asimetria hibridoko egoerarik zeinetan errenta jakin batzuek ez luketen zergarik ordainduko herrialde edo lurralde batean ere, hau da, ez dadin gertatu zergarik ez ordaintzea ez errentak eratzitzeko araubidean dagoen entitatearen egoitzan, ez haien partaideen egoitzan, ezta errenta horiek ordaintzen dituen entitatearen egoitzan ere.

Horrela, lortu nahi da Espainiako lurraldean kokaturiko errentak eratxikitzeke araubidean dauden entitateek ez dezatela sortu adierazitako asimetria hibridoa, eta sozietateen gaineko zergaren zergadun bihur daitezela aipatutako errentei dagokienez ezarritako baldintzak gertatzen direnean.

Lehen esan bezala, handitu egiten da enpresa bat enpresa txikitat jotzeko negozio zifraren zenbateko garbiaren atalasea. Orain arte, hamar milioi eurokoa zen. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako, aldiz, enpresa txikitat joko dira aurre-aurreko zergaldian negozio zifraren zenbateko garbia hogeit mila milioi eurotik beherakoa izan dutenak.

Ikerketa, garapen eta berrikuntza teknologikoko jarduerengatikoen kenkariari dagokionez, zenbait aldaketa egiten dira software aurreratuaren eta berrikuntzaren kontzeptu fiskalean –tratamendu fiskal berezitu baterako hautagarriak baitira–, horiek egokitzeko 2018ko Osloko Eskuliburutik eratorritako nazioarteko erreferentziako definizio berrietara eta egungo errealitate teknologikora. Halaber, animazioarekin eta bideojokoekin lotutako proiektuak berrizaitzat hartzen ahal direla zehazten da.

Gainera, aurreikusten da ehuneko 5 handituko dela berrikuntza teknologikoko jarduerak egiteagatikoen kenkaria, honako hauei enkargatutako proiektuak direnean: unibertsitateak, ikerketako erakunde publikoak, zentro teknologikoak, berrikuntza teknologikoari laguntzeko zentroak edo Nafarroako I+G+b Sistemaren (SINAI) eragile betearazle gisa akreditatutako enpresetako I+G+b unitateak. Kenkari gehigarri hori berrikuntzaren kudeaketari lotutako ISO 56002, UNE 16600 edo antzeko arauen betetze ziurtagiria lortzeko egindako gastuei ere aplikatzen zaie.

Ikerketa eta garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektuetan parte hartzeagatikoen eta film zinematografikoen eta beste ikus-entzunezko lan batzuen ekoizpenean parte hartzeagatikoen kenkariari dagokienez, ekarpenaren zenbatekoaren 1,25etik 1,20ra jaitsi da bi kenkariaren muga. Aldaketa horren helburua da I+G+b proiektuetara edo ikus-entzunezko produkzioetara egindako ekarpenen zenbatekoa handitzea. Ehuneko 20ko errentagarritasuna izanik, kenkariak erakargarria izaten jarraitzen du finantzatzailearentzat, baina kenkariaren zenbateko bera eskuratzeko ekarpen handiagoa egin beharko du. Era berean, kontabilitate irizpideen arabera, bazkideek ekonomia-intereseko taldeei egiten dizkieten ekarpenak ezaugarri bereziak dituzten ondare tresnatzat jo behar direnean, likidazio-oinarri negatiboak eta kenkari-oina-

riak egozteko muga ordaindutako zenbatekoaren 1,20 izanen da.

Energia berriztagarrien instalazioetako inbertsioengatikoen kenkariari dagokionez, gaur egun indarrean dagoen 2018/2001 Zuzentarauaren arau-aipamena eguneratzen da, eta iturri berriztagarrietatik sortutako energiaren definizioa zuzentarau horrek 2. artikuluan jasotzen duenera egokitu da, hidrogeno berdea halakotzat hartzen dela nabarmenduz.

Kenkariaren ehuneko handitzeko eskubidea ematen duten inbertsio gisa, energia-komunitate batek elektrizitatea sortzeko egiten dituen instalazioetan egindako inbertsioa gehitzen da (ehuneko 5eko igoera), bai eta erabilera termikoetarako instalazioetan egindako inbertsioak ere, gas naturalaren ordez hidrogeno berriztagarria erabiltzen badute (gehienez ehuneko 15eko igoera, hidrogeno berriztagarriaren erabilera mailaren arabera).

Garapen jasangarriko eta ingurumena babes-teko eta hobetzeko proiektuetan inbertsioak sustatzeko helburuarekin, sozietateen gaineko zergaren kuota likidoan kenkari berri bat arautzen da. Zehazki, hauek izanen dira proiektuak:

- a) Beste enpresa batzuek sortutako haize-energiako, energia fotovoltaiakoko eta baterietako osagaiak berrerrabiltzea eta birziklatzea.
- b) Hidrogeno berriztagarria ekoiztea.
- c) Hidrogeno berriztagarriaren balio-kateko osagaiak fabrikatzea.

Kenkariaren portzentajea ehuneko 15ekoa izanen da, eta kenkariaren gehieneko muga 15 milioi eurokoa, enpresa eta proiektu bakoitzeko. Arlo horretako eskumena duen departamentuak ziurtatu beharko ditu inbertsioak, eta kenkariaren zenbatekoak Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduan ezarritako mugak bete beharko ditu. Erregelamendu horren bidez, laguntza kategorija jakin batzuk barne merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz.

Film zinematografikoetan eta ikus-entzunezko beste lan batzuetan egindako inbertsioengatikoen kenkarian, 65.3 artikuluan lehen paragrafoan “ekoizpen kostua” terminoaren ordez “kostu diruz lagungarriak” jarri da. 65.3 artikuluan araututako laguntzen intentsitatearen baldintza betetzen dela egiaztatzeak zalantzak sortu ditu ekoizpen kostuaren kontzeptuaren irismenari buruz; gainera, ez dator bat Batzordearen ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamendurekin. Erregelamendu horrek 54. artikuluan (Ikus-entzunezkoentzako laguntza-araubideak) ezartzen duenez, ikus-entzunezko

lanetarako laguntzen intentsitateak ezin du gainditi kostu diruz lagungarrien ehuneko 50 (obra zailen kasuan izan ezik). Ondorio horietarako, "kostu diruz lagungarriak" honakoak direla ulertu behar da:

a) Dirulaguntzak direnean, Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuak (ICAA) onartutako filmaren kostuan sartutako kostuak.

b) Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legean aurreikusitako zerga-kenkariaren kasuan, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren maiztaren 7ko 69/2021 Foru Aginduaren 1. artikuluan araututako kenkariaren oinarrian dauden kostuak. Foru agindu horren bidez, ekoizpen zinematografiako eta ikus-entzunezko telesailentarako inbertsioengatik kenkaria aplikatzeko baldintzak eta betekizunak garatzen dira, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 65.1 artikuluan araututakoaren arabera.

Aurreko guztia kontuan hartuta, sortutako zalantzak argitzeko, eta Europako araudian aurreikusitakoaren ildotik, ekoizpen kostuari buruzko erreferentzia kendu eta kostu diruz lagungarri buruzkoa jartzen da; kostu horiek kasu bakoitzean dagozkion kontzeptuak jasoko dituzte, kontuan hartuta kenkariak eta dirulaguntzak lortu dituzten, edo soilik kenkariak.

Kulturaren eremuan, kenkari berri bat gehitzen da kuota likidoan, arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunetan inbertitzeagatik. Kenkari hori zehazteko, ehuneko 30eko portzentajea aplikatuko da aipatutako ikuskizunak ekoizteko eta erakusteko izandako zuzeneko kostu artistiko, tekniko eta sustapeneko gainean. Portzentaje hori ehuneko 40ra iristen ahalko da nazioarteko bira baten parte diren ikuskizunak badira. Nolanahi ere, zergaldi bakoitzean sortutako kenkaria ezin izanen da 500.000 eurotik gorakoa izan. Halaber, kenkariaren zenbatekoak, zergadunak jasotako dirulaguntzekin batera, ezin izanen du izandako kostuen ehuneko 80 gainditi.

Pizgarriengatik kenkariaren kapituluan, halaber, aldatzen da VI. tituluko IV. kapituluko 3. atalaren errubrika: "Beste pizgarri batzuk"; eta enpresen gizarte aurreikuspeneko sistemetara egindako ekarpenengatik kenkari berri bat gehitzen da. Kenkari hori enpresa ekarpenen ehuneko 10ekoa da enpresaren gizarte aurreikuspeneko sistemetarako, 27.000 eurotik beherako urteko ordainsari gordinak dituzten langileen alde. Ordainsariak 27.000 eurokoak badira edo zenbateko hori gainditzen badute, 27.000 eurori dagokion enpresa ekarpenaren zati proportzionalaren gainean aplikatuko da kenkaria. Hala ere, ezartzen da ken-

karia ez dela aplikatuko langileak langile autonomoen araubide berezian badaude eta enpresaren ekarpenak kotizazioa osatzeko balio badu, pertsona horiei Gizarte Segurantzako araubide orokorrean legokiekeen kotizazio zenbatekora iristeko. Horrela, enpresa guztiak egoera berean egotea lortu nahi da, bai beren enpleguengatik Gizarte Segurantzako araubide orokorrean kotizatzen badute, bai langile autonomoen araubide berezian kotizatzen badute.

Gizarte aurreikuspeneko sistemetarako enpresa ekarpenengatik kenkari berri horrek kuota likidoaren ehuneko 25eko muga izanen du, 67. artikuluan araututa dagoena.

Etxebizitzen errentamenduan diharduten entitateen araubide berezian, 3 urtetik 5 urtera igo da araubidea aplikatu ahal izateko etxebizitzak alokatuta edo errentamenduan eskainita egon behar diren aldia, eta ehuneko 40ra murriztu da 93.1 artikuluan lehen paragrafoan aurreikusitako egungo hobari orokorra, ehuneko 85ekoa. Bestetik, artikulua beraren bigarren paragrafoan jasotako % 90eko hobariaren orde, hobari bat ezartzen da, % 85ekoa, baldin eta errentak etorri badira errentan emateko Sistema Publikoari atxikitako etxebizitzak, lehenago babestutako etxebizitzak edo desgaitasuna duten pertsonen errentan emandakoak, azken horietan eginda badaude desgaitasuna duten pertsonen garapen duina eta egokia erraztuko duten irisgarritasunerako eta komunikazio sentsorialerako beharrezkoak diren egokitze obrak.

Bestalde, aldaketa batzuk egiten dira hirugarren xedapen gehigarrian xedatutako ekintzailtza laguntzeko neurrietan.

Lehenik eta behin, baldintza gehigarri bat gehitzen da entitate bat ekintzaile gisa kalifikatzeko. Horrela, erakunde ekintzailtzat hartuko dira, gainerako baldintzak beteta, merkatu arautu batean kotizatzen ez duten eta dibidendurik banatzen ez duten edo banatu ez duten erakundeak.

Gainera, ekintzailtzarako pizgarriak areagotzen dira. Entitate ekintzailearen zerga-oinarriari aplikatu beharreko murriztapena ehuneko 20tik ehuneko 30era igo da positiboa den lehen eta bigarren zergaldietan. Entitate ekintzaileetan inbertitzeagatik kenkaria ere ehuneko 20tik ehuneko 25era igo da, 50.000 euroko mugarekin. Inbertsioaren xede den entitateak, gainera, berri-tzaileak badira edo bereziki sustatu nahi den sektore batean edo espezializazio adimentsuaren sektore batean sartuta badaude, kenkaria ehuneko 35era igozen da, 100.000 euroko mugarekin. Entitate horiek ibilgetu materialaren elementu

berrietan egindako inbertsioengatiko kenkaria aplikatzen ahalko dute, ehuneko 5 handituta, eta ikerketa, garapen eta berrikuntza jarduerak egiteagatiko kenkariari dagokion berariazko itzulketaren muga 100.000 euro igoko da.

Pizgarri horiek ekintzaileak diren eta entitate ekintzaile edo berritzaileetan inbertitzen duten pertsona fisikoei ere aplikatzen zaizkie.

Azkenik, zerga-pizgarrien araubide honetatik kanpo geratzen dira zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharretan egunean ez dauden zergadunak, 7. apartatuan aipatzen den edozein delituegatik epai irmo bidez kondenatuak izan direnak edo Administrazioarekin kontratatzeko aukera galdu dutenak.

Hamazazpigarren xedapen gehigarriaren aplikazioa 2023ko zergaldira luzatzen da. Horrela, 2023an, xedapen gehigarri horretan xedatutako likidazio-oinarri negatiboen ehuneko 50eko eta ehuneko 25eko murriztapenerako mugak aplikatuko zaizkie zergadunei, baldin eta zergaldia hasi aurreko hamabi hilabeteetan beren negozio zifra-zenbateko garbia hogeit hamar milioi eta hirurogei milioi artekoa bada, edo hirurogei milioikoa edo handiagoa bada, hurrenez hurren.

Oinordetza eta dohaintzen gaineko zergari dagokionez, ulertuko da adoptatutako pertsonen adopzioa egin aurretik jatorrizko familiarekin zuten ahaidetasun-mailari eusten diotela.

Kode Zibilaren 178.1 artikulua ezartzen du adopzioak azkendu egiten dituela adoptatuaren eta beraren jatorrizko familiaren arteko lotura juridikoak, eta oso kasu mugatuetan bakarrik mantentzen direla lotura horiek.

Hala ere, Haurrentzako eta nerabeentzako babes sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legeak, 178. artikuluan, aukera hau gehitu zuen: adingabearen interesentzako komenigarria denean –familia egoeragatik, adinagatik edo beste edozein zirkunstantziagatik–, harreman edo kontaktu motaren bat izatea erabakitzen ahalko da, adingabearen, jatorrizko familiaren eta adopziozko familiaren arteko bisiten edo komunikazioen bidez, eta bereziki mesedegarri izanen da anai-arreba biologikoen arteko harremana.

“Adopzio irekiaren” aukera hori tributu esparruan jasotzen da orain, dohaintza edo jarauntsia dagoenean –jaraunspeneko oinordetzetako deien arauketa zibila aldatu gabe–, tributazioa adoptatuaren eta haren jatorrizko familiaren artean lotura juridikoak azkendu izan ez balira aplikatu beharko zenaren parekoa izateko.

Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren araudia ere egokitzen da ekainaren 2ko 8/2021 Legeak sartutako aldaketetara.

Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergan, 3.2.B) artikulua aldatzen da.

Berriki, Auzitegi Gorenak epai bat eman du (Auzitegi Gorenaren 3083/2022 epaia, 2022ko uztailaren 12koa). Epai horretan ondorioztatzen denez, konpentsatu gabeko adjudikazio-soberakinak ez du tributatzen oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergan, adjudikazio-soberakinak ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren zerga-egitate gisa araututa dardelako (3.2.B artikulua).

Interpretazio bide hori ixteko, testu berriak berriaz ezartzen du adjudikazio-soberakin horiek oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergan tributatzen dutela, doako eskurapentzat hartzen baitira.

Bestalde, despopulazio arriskuan dauden udalerrietan etxebizitzak erostea errazteko, ehuneko 4ko tasa murriztua ezartzen da, baldin eta erositako etxebizitza ohiko etxebizitza izateko erabiltzen bada.

Toki administrazioaren eta despopulazioaren arloko eskumena duen departamentuko titularraren foru agindu batek zehaztuko du zein diren despopulazio arriskuan dauden udalerriak. Ohiko etxebizitzaren kontzeptua pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudian ezarritakoa izanen da, eta etxebizitza subjektu pasiboaren ohiko etxebizitzarako erabiliko dela berriaz jaso beharko da eskualdaketa bideratzen duen dokumentu publikoan.

Salbuespenei dagokionez, Egintza Juridiko Dokumentatuen modalitateko notario agirien mailakako kuotatik salbuetsirik geratzen dira ohiko etxebizitzaren gaineko hipoteka-maileguetan interes-tasen igoera samurtzeko Jardunbide Egokien Kodearen babespean kontratua berritzean egin beharreko eskritura publikoak; martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-dekretuaren Jardunbide Egokien Kodearen menpekoendako tratamendu bera emanen zaie.

Azkenik, aipatu den moduan, arlo horretan berean, ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari buruzko foru araudian txertatzen da, halaber, Genero indarkeriaren biktimen umezurtzen babesa hobetzeko martxoaren 21eko 2/2022 Lege Organikoan aurreikusitako salbuespena.

Salbuespen horrek ezabatu nahi du, araututako kasu horretan, delituaren ondoriozko erantzukizun zibila ordaintzeko moduek duten zerga-trataera desberdinak.

Dirutan eginez gero, kalte-ordain hori zeharkako tributaziotik salbuetsita dago –Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 35.I.B.4 artikuluan ezarritako salbuespenaren arabera–; aldiz, beste ondasun batzuen bidez gauzatzen bada, eskuratzailerak behartuta daude kostu bidezko ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zerga ordaintzera, kostu bidezko ondare eskualdaketen modalitatean. Kasu gehienetan, kondenatutako gurasoek ez dute nahikoa dirurik beren erantzukizunari aurre egiteko, eta, hortaz, kalte-ordainak, oro har, beste ondasun batzuekin ordaintzeko esleipenak gauzatzen dira, dela aitaren borondatez, dela enkante judiziala betearaztean. Horrek zergaren sortzapena dakar, eta, ondorioz, onuradunek ordaindu behar izatea. Horrek karga ekonomiko handia dakar, eta kalte-ordain bat likidatzea ere eragozten ahalko luke. Kalte-ordain hori ezinbestekoa da jasandako kaltea konpontzeko, zati batean behintzat, eta amak galtzearen ondoriozko kalteberatasun handiko egoerari ahalik eta baldintza onenetan aurre egiteko.

Horregatik, izaera objektiboko zerga-onura berri bat sartzeko da: Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren Legearen testu bateginaren 1. artikuluan aipatzen diren karga-modalitateetatik salbuesteko emakumeen aurkako indarkeriaren ondorioz hildako emakumeen kargura zeuden ondorengo onurarako ondasun edo eskubideen eskualdaketak, horiek egiteko baliatzen den titulua edozein dela ere, baldin eta judizialki aitortu diren kalte-ordainak ordaintzeko balio badute.

Saltoki handien gaineko zergan ez dira saltoki kolektibotzat hartuko zerga baliokiderik ez duten beste autonomia erkidegoekin muga egiten duten eremuetan kokatuta daudenak; horrela, saltoki horiek ez dira egonen beren eragin eremu berean baina antzeko zergarik ordaintzen ez den beste autonomia erkidego batean kokatuta daudenak baino egoera okerragoan.

Hondakinak hondakindegietan uztearen eta errausketaren eta koerrausketaren gaineko zergaren erregulazioa egokitzen da urriaren 19ko 22/2022 Legeak Hitzarmen Ekonomikoan egindako aldaketara; izan ere, lege horren arabera, zergaren ordainarazpenean Nafarroako Foru Komunitateak Estatuak une bakoitzean ezarritako arau substantibo eta formal berberak aplikatuko ditu.

Hortaz, beharrezkoak diren aldaketak sartzeko dira, Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legearen V. titulua-ren I. kapituluaren edukia Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen VII. titulua-ren II. kapituluaren xedatutakora egokitzeko.

Komeni da zehaztea arauaren testuan udalen hondakinak erraustea aurreikusten den arren, Nafarroako Hondakinen Planean ez dela aukera hori jasotzen; hortaz, zerga-egitate horren tributazioa aurreikusten den arren, gaur egun ez da egiten.

Zergei buruzko Foru Lege Orokorren 105 bis artikuluko zordunen zerrenda argitaratzeari dagokionez, hura argitaratu behar den hilabetea zehazten da, eta tarte bat ematen da balizko ordainketa agindu bat ematen denetik haren kobrantza egiaztatuta eta jaso ahal izateko bilketa sistema informatikoetan, eta zordunen zerrenda eguneratu ahal izateko.

Bestalde, enbargo-eginbideen aurka egiteko arrazoiak argitu eta zehazten dira. Hala, foru araudiak gure ingurukoarekin bat egiten du, eta Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboak enbargo-eginbideak berrikustean eskatzen ahal duena mugatzen da.

Aldaketa horrek 166. artikuluan ere ondorioak ditu, diru-bilketako jarduketek aurka egiteko arrazoiak arautzen baititu, Ogasun Publikoaren aurkako delituen kasuetako jarduketei buruzko titulua-ren barruan.

Berriro ere, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2022ko urtarrilaren 27ko epaia betetzeko, hemezortzigarren xedapen gehigarrian araututako zehapen-araubide espezifikoak indargabetzen da (Europako araudiaren aurkakotzat jo da, ez duela proportziorik antzeko arau-hausteetarako ezarritako zehapenekin), eta, beraz, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorrean oro har aurreikusitako zehapen-araubidea aplikatuko da.

Hogeita hamahirugarren eta hogeita hamalaugarren xedapen gehigarrietan alderdi teknikoak zuzentzen dira. Xedapen horiek zerga plangintzako mugaz gaindiko mekanismoei buruzko informazioa emateko betebeharra arautzen dute, Estatu araudiaren testuan jasotakoaren ildotik.

2023ra luzatzen dira zerga zorra geroratzeko edo zatikatze egin diren eskaerei aplikatu beharreko neurri berariazkoak, aurreko urteetan indarrean egon direnak.

Apirilaren 14ko 27/2021 Foru Dekretuaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Bikote Egon-

korren Erregistro Bakarra sortu zen. Horrekin batera, bikote egonkorren erregistro fiskala indargabetu, eta urtebeteko epea eman zen (2022an), zerga ondorioetarako ezkontideen pareko izan nahi zuten bikote egonkorrek inskriba zitezten Erregistro Bakarrean edo haiei aplikatzekoa zaienean. Foru lege honek Tributuei buruzko Foru Lege Orokorraren seigarren xedapen iragankorra aldatzen du, 2023ra luzatzeko Nafarroako Bikote Egonkorren erregistro bakarrean inskribatzeko epea, edo bikote egonkorrari dagokiona, aplikatu beharreko legeria zibilararen arabera. Hortaz, 2023an, bikote egonkorren erregistro fiskalean inskribatzearen ondorioak bere horretan mantenduko dira.

Aurrekoarekin bat etorritz, azken xedapenetako bigarrenak Zenbait zerga aldatu eta beste tributuenri batzuk hartzeko abenduaren 29ko 19/2021 Foru Legearen xedapen indargabetzaile bakarria aldatzen du; hain zuzen, 2. apartatuan jasotako indargabetzeak ondorioak izan ditzaiz 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera (2023tik aurrera izan beharrean).

Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea arautzen duen Foru Legean, 10/1996 Foru Legean araututako araubide fiskala aplikatzeko eskaeraren ordezt, araubide hori aplikatzeko aukeraren jakinarazpen bat ezartzen da, bai Foru Berriaren arabera eratutako fundazioentzat, bai beste araudi batzuen arabera eratutakoentzat, bai eta bigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren onura publikoko elkarteentzat eta garapenerako gobernuz kanpoko erakundeentzat ere.

Aurreko testuan, araubide hori aplikatu ahal izateko prozedura desberdina zen, kontuan hartzen baitzen Foru Berriaren arabera eratutako fundazioak ziren edo bigarren xedapen gehigarrian jasotako entitateak ziren. Horrek zalantzak sortzen zituen bigarrenek jarraitu beharreko prozedurari buruz, bai eta horiek kudeatzeko eta kontrolatzeko arazoak ere. Foru Berriaren arabera eratutako fundazioetan araubidea aplikatzeko dokumentazioa aztertzen zen, baita aldeztu aurretik Lehendakarietzako Departamentuak (kasu batzuetan, Ogasunarekin batera) fundazioentzat hartzeko baldintzak betetzen zituztela egiaztatzen bazuen ere; gainerako entitateen kasuan, ordea, azterketa hori egin gabe aplikatzen zuten araubidea, beste administrazio batzuek eta entitateek berek deklaritzen zutena ontzat emanez. Hori dela-eta, prozedura aldatzen da, eta Foru Berriaren arabera eratutako fundazioetarako soilik ezarritako zegoen aurreko eskaera eta ebazpenaren ordezt, araubidearen aukeraren jakinarazpen bat ezartzen da Nafarroan jarduten duten entitate guztientzako.

Prozedurak kontrol handiagoa dakar; izan ere, lehenengo kasuan, dokumentazio guztia dago eskura, Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatzean ematen baitute dokumentazio hori, eta bigarren kasuan, berriz, aukera jakinarazten dutenean aurkeztu beharko dute, halako moldez non araubide berezia aplikatu aurretik jakinen baita entitatea existitzen dela eta araubide bereziaren aukera egiten duela.

Horrela, egiaztapena egin ondoren, araubide berezia aplikatzea ukatzen ahalko da, entitateak ez baditu betetzen araubide horretan sartzeko baldintzak.

Azkenik, gaur egun 10/1996 Foru Legearen tributu araubideari atxikitako entitate asko daudenez, xedapen iragankor bat gehitzen da, entitate horiek aurkeztu behar ez izateko araubide bereziaren aukeraren jakinarazpen hori, baldin eta, Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatutako fundazioak izanik, 2023ko urtarrilaren 1a baino lehen inskribatuta badaude eta tributu araubide bereziaren aplikazioa deklaratu badute dagokion ebazpenaren bidez. Eta gainerako entitateen kasuan, Nafarroan edozein zergatan tributatu badute 2023aren aurreko 10 urteetan.

Bestalde, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasen diren zergaldietarako, kirol mezenasgorako zerga-pizgarri batzuk gehitzen dira, bat etorritz hamargarren eta hamabigarren xedapen gehigarrietan gizarte edo ingurumen mezenasgorako ezarritakoen ildotik edo Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen maiatzaren 16ko 8/2014 Foru Legearen kultur mezenasgorako ezarritakoen ildotik.

Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen Foru Legean aldaketa tekniko hutsak egiten dira.

Bestalde, Nafarroako Kooperatiben Zerga Araubidea arautzen duen Foru Legean, 1. artikuluan, foru legearen aplikazio-eremua argitzen da. Hitzarmen Ekonomikoaren 16. artikuluari buruzko aipamena, 2003. urtean Hitzarmen Ekonomikoaren zenbait artikulua berriro zenbakitu ondoren zuzena ez izateaz gain, honela ulertzen ahal zen: sozietateen gaineko zergaren foru araudiaren mendeko kooperatibei soilik aplikatzen ahal zaizkiela zerga-pizgarriak (edozein zergatarako ezarritakoa). Testu berrian argi geratzen da sozietateen gaineko zergaren foru araudiaren mende ez dauden kooperatibek ere beste zerga batzuetan ezarritako zerga-onurak aplikatzen ahal dituztela, baldin eta, Hitzarmen Ekonomikoan xedatutakoaren arabera, zerga horiek arautzen dituen foru araudiaren mende geratzen badira.

Era berean, kontsumitzaileen eta erabiltzaileen kooperatiben kontzeptua –bereziki babestutako kooperatibak– egokitzen da Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legeak Kooperatiben Foru Legean eragindako aldaketara. Horrela, pertsona fisikoak elkartzen dituzten kontsumitzaile eta erabiltzaileen kooperatibak ez ezik, pertsona juridikoak eta nor-tasun juridikorik gabeko beste entitate batzuk elkartzen dituztenak ere bereziki babestu eta onuradun izaten ahal dira haien zati ezarritako zergapizgarrien bidez. Kooperatiba horien xedea zerbitzuak ematera ere zabaltzen da.

Tasa eta Precio Publikoei buruzko Foru Legean, administrazio zerbitzuen tasa aldatzen da, kontzeptu berri bat gehitzeko: “kopiak”. Izan ere, askotan, jokoaren arloko enpresa operadoreek administrazioak bere garaietan bidali zizkien instalatzeko eta ustiatzeko baimenen kopiak eskatzen dituzte. Ziurtagiriaren zenbateko berdina proposatzen da: 5,2 euro kopia bakoitzeko.

Tasa berri bat sortzen da hautaketa prozesuei dagokien dokumentazioaren kopiak formatu elektronikoan bidaltzeagatik. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak deitutako hautaketa prozesu batean parte hartu duten eta ondoren horren kopia eskatzen duten pertsonen kopurua gero eta handiagoa da, eta horrek administrazio-lanaren aparteko karga sortzen du; tasaren bidez horri erantzuna eman nahi zaio. Beharrezkoa da tasa berri bat ezartzea, zerbitzu horrek dakartzen dituzten konpentsatzeko.

Elkarteen Erregistroaren, Fundazioen Erregistroaren eta Lanbide Elkarrekin Erregistroaren jarduketan tasa ere aldatzen da. Aldaketak Fundazioen Erregistroak bere gain hartutako eginkizun berrien ondorioa da, kontabilitate-agiriaren erregistroari eta horien erregistroen publikotasunari dagokienez. Eginkizun horiek Nafarroako Fundazioei buruzko 13/2021 Foru Legean jasota daude. Tarifa bakarra ezartzen da ziurtagiriak emateagatik tasan (gaur egun, tasa horren zerga-egitate bakoitzean ezartzen da) eta kontabilitate-agiriei dagokien erregistroen publikotasunean. Tasa kobratzetik salbuetsita geratzen da elkarteen gobernu organoen aldaketaren inskripzioa, eguneratu izatea komeni baita, eta tasa kobratzeak, batzuetan, inskribatzeko pizgarria kentzen baitu.

22. eta 23. tarifak gehitzen dira tituluak emateagatik tasan, Lanbide Heziketaren antolamenduari eta integrazioari buruzko 3/2022 Lege Organikoan jasotako tituluak eta ziurtagiriak emateak dakarren kostuei aurre egiteko. Lege horrek espezialista titulazioak ezarri ditu erdi mailako espezializazio ikastaro bat gainditzeko dutenentzat, eta

master titulu bat goi mailako ikastaro bat gainditzeko dutenentzat.

Administrazio egoera irregularrean dauden pertsonak profesionaltasun ziurtagiriak edo kopiak emateagatik tasatik salbuetsita egon behar dira, eta ondorio horietarako “ikasle kaltebera” izena eman behar zaie.

Osasun zerbitzuen tasaren tarifak aldatzen dira, Produktu Kosmetikoak Merkaturatzeko Arduradunen Erregistroan izena emateagatik tarifa kentzeko; izan ere, prozedura zaharkituta geratu da, eta horren ordez produktu kosmetikoak jakinarazteko Europako Ataritari jakinarazteko prozedura bat ezarri da, inolako tarifarik ez duena.

Bestalde, jardunbide egokiak betetzen direla frogatzen dituzten ziurtagiriak emateagatik tarifa aldatzen da, kontzeptua eguneratuz eta kopia bakoitzeko zenbatekoa ordeztuz, bigarren eta ondorengo ziurtagiriko; izan ere, izatez ez dira kopia konpultsatuek ematen, ziurtagiri berriak baidira.

Abereen eta abere produktuen ikuskapen eta osasun kontrol ofizialengatik tasaren alderdi batzuk aldatzen dira, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko martxoaren 15eko 2017/625 (EB) Erregelamenduan ezarritakora egokitzeko. Erregelamendu hori elikagaiei eta pentsuei buruzko arauen aplikazioa bermatzeko egiten diren kontrolei eta bestelako jarduerari ofizialei buruzkoa da, bai eta abereen osasun eta ongizateari, landare-osasunari eta produktu fitosanitariorei araudiari buruzkoa ere.

Zerbitzu agronomikoen kudeaketa tekniko-fakultatiboaren tasaren tarifak aldatzen dira.

1.2 tarifaren izena eguneratzen da; izan ere, erregistro batzuetan ez dago inskripzioa berritzeko betebeharririk, baina beharrezkoa da titulartasun aldaketak eta beste aldaketa batzuk inskribatzea. Gainera, 2. tarifa, izendapen orokor bat jasotzen da: “Makinak eta aplikatzeko beste ekipamendu batzuk inskribatzea”, kontzeptu berri bat sartzeko, 2.2 tarifa: “Produktu fitosanitarioak aplikatzeko aireontzien eta instalazio iraunkorren erregistroan (REGANIP) inskribatzeagatik”.

Azkenik, 3. tarifa sortzen da: “EOR, entseguetarako enpresetarako baimena”. Izan ere, apirilaren 20ko 285/2021 Errege Dekretuak entseguak egiteko eskumena duen organoaren baimena izatera behartzen du.

Nekazaritzako Elikagaien Laborategian analisi zerbitzuak egiteagatik tasaren tarifetatik kontzeptu jakin batzuk kentzen dira eta analisi teknika berri bat gehitzen da. Era berean, murrizten da bi

analitiken zenbatekoa, esperientziak aukera ematen baitu analisiak egiteak dakartzan kostuak murrizteko.

Bestalde, tarifa berri bat sartzen da nekazaritzako elikagaien laborategiaren tarifetan: "Nafarroako oliba-olio birjinaren dastatzaileen panela".

Nafarroako oliba-olio birjinaren dastatzaileen panela sortu zenetik, INTIA SAK kudeatu du, eta zerbitzuengatik hark kobratzen du.

Panela funtzionalki Nafarroako Nekazaritzako Elikagaien Laborategiaren mende dagoenez, egokitzat jo da 2023tik aurrera hark kudeatzea kobrantza. Zenbatekoari dagokionez, orain arte INTIA SAK kobratzen zuena da, eta analisi organoleptikoen mota horretarako merkatuko prezioetara doitutako zenbatekoa da: 105 euro.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legean ehuneko 3,5 eguneratzen dira trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zergaren tarifak.

Era berean, hiri-lurren balio-gehikuntzaren gaineko zergaren zerga-oinarria zehazteko aplikatu beharreko gehieneko koefizientek, 175.2 artikuluan jasotakoak, eguneratzen dira. Toki Ogasunei buruzko Foru Legean xedatutakoari jarraikiz, koefiziente horiek urtero eguneratu behar dira.

Bi aldaketek 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen dituzte ondorioak.

Tokiko tributuen eremuan, zenbait aldaketa egiten dira jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifetan.

Hala, lehenengo atalean, telefoniaren sektoreko tributazioa Auzitegi Gorenaren 2022ko uztailearen 14ko 996/2022 epaiaren edukira egokitzen da; izan ere, epai horretan, Europar Batasuneko zuzenbidea aplikatuz, justifikaziorik gabekotzat jotzen da telefonia mugikorraren zerga horrek tributazio handiagoa izatea telefonia finkoaren aldean. Bestalde, multzo berri bat sortzen da, bulego malguk, "coworking"-ek eta negozio-zentroek ematen dituzten zerbitzuak berariaz sailkatzeko.

Era berean, bigarren atalean, bi multzo berri sortzen dira, batetik, gidoilarien jarduera berariaz sailkatzeko, idazleak ere barnean hartuta (orain arte kazetarien epigrafean sartuta zeuden), eta, bestetik, hirugarren atalean sailkatutakoak ez diren jarduera artistiko eta kulturalekin lotutako profesionalak sartzeko. Halaber, 86. multzoaren izenburua aldatzen da.

Horrez gain, bigarren atalean ere multzo berri bat sortzen da mendiko gidariak berariaz gehitzeko, jarduera horren sailkapenari segurtasun juridiko handiagoa emateko.

Azkenik, multzo berri bat sortzen da hirugarren atalean, konpositoreak, kanta-idazleak, moldatzaileak eta musika-egokitzaileak berariaz sailkatzeko.

Azkenik, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko Foru Legean, 10. apartatua gehitzen zaio 27. artikuluari, eta 29.2 artikulua aldatzen da, ondasun higiezin aldaketak deklaratzeko betebeharretik salbuesteko notarioek eta jabetza erregistratzaileek aldaketa horien berri ematen duten kasuetan, baldin eta deklaraziorako epea amaitu aurretik egiten badira eta ondasun higiezin aldaketa grafikorik ez badakarte.

Xedapen gehigarri bakarrak ezartzen du pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eta sozietateen gaineko zergan salbuesita daudela ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege-dekretuaren, abuztuaren 1eko 14/2022 Errege Lege-dekretuaren eta 770/2022 Ebazpenaren babesean emandako laguntzak. Laguntza horien artean daude gasa erauzteko industriarako laguntza zuzenak, errepideko garraioaren sektorerako laguntza zuzenak, diru-sarrera eta ondare gutxiko pertsona fisikoentzako 200 euroko laguntza zuzena eta energia-kostuek 2022an zehar izandako gorakadari aurre egiteko Nafarroako enpresentzako laguntzak.

Azken xedapenetako lehenengoak eguneratzen ditu, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko Foru Legean jasotako saneamendu kanonaren tarifak.

Bestalde, azken xedapenetako bigarrenak, adierazi den bezala, 2024ko urtarrilaren 1era arte atzeratzen ditu Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko abenduaren 29ko 19/2021 Foru Legearen xedapen indargabetzaile bakarraren 2. apartatuan ezarritako indargabetzearen ondorioak. Horren xedea da zerga ondorioetarako ezkontideen parekoak izan nahi duten bikote egonkorrek beste urtebete izan dezatela Nafarroako Bikote Egonkorren Erregistro Bakarrean edo dagokien erregistroan inskribatzeko.

Bukatzeko, azken xedapenetako hirugarrenak gaikuntza ematen dio Nafarroako Gobernuari eman ditzan foru lege hau garatu eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapen guztiak, eta azken xedapenetako laugarrenak ezartzen du foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko duela indarra, bertan ezarritako ondorioak izateko.

Lehenengo artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategina.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren manu hauek (testu bategina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen) testu hau izanen dute:

Bat. 7.c) artikulua.

“c) Langilea kaleratzeagatik edo lana uzteagatik ematen diren kalte-ordainak, Langileen Estatu-tuan edo hori garatzeko araudian, edo kasu bada, epaiak betearazteko araudian nahitaezko izaeraz ezarritako kopuruetan; hitzarmen, itun edo kontratuaren indarrez finkatutakoa ezin izanen da, ordea, derrigorrezko izaeraz ezarritako kalte-ordaintzat hartu.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa alde batera utzi gabe, kaleratze kolektiboak Langileen Estatu-tuaren 51. artikuluan ezarritakoarekin bat egiten badira edo aipatu estatutuaren 52.c.) artikuluan aurreikusitako arrazoen ondorio badira, eta betiere bi kasuetan kausa ekonomikoak, teknikoak, antolakuntzakoak, produkzioakoak edo ezinbesteko kausak direla medio, aipatutako Estatu-tuan bidegabeko kaleratzeagatik derrigorrezko izaeraz ezarritako mugak gainditzen ez dituen kalte-ordainaren zatia salbuetsiko da.

Ez dira hitzarmen, itun edo kontratuaren indarrez finkatutako kalte-ordaintzat hartuko adosten direnak administrazio zerbitzuan egiten den adiskidetze ekitaldian, Lan arloko jurisdikzioa arautzen duen urriaren 10eko 36/2011 Legearen 63. artikuluan zehaztutakoan.

Letra honetan aipatutako kalte-ordain salbuetsia 180.000 eurokoa izanen da, gehienez ere.

Baldin eta kaleratzearen kalte-ordaina guztiz edo hein batean ordaintzen bada kaleratutako langileak lan egiten zuen entitatetik heldu diren ondare elementuak emanez, ondare elementu horiek merkatuan duten balioa salbuetsita egonen da, betiere honako baldintzak betez gero:

1. Subjektu pasiboak ondare-elementu horiek jartzea jarduera ekonomiko bat langile autonomo gisa egiteko edo lan elkartuko kooperatiba bateko nahiz lan sozietate bateko bazkide-langile gisa jarduteko.

2. Subjektu pasiboak langile autonomo gisa jardutea edo bazkide-langile gisa aritzea bost urtez, gutxienez ere.

3. Subjektu pasiboak langabezia-prestazioa ordainketa bakarreko modalitatean jasotzea, hain

zuzen ere 1044/1985 Errege Dekretuan arautu bezala.

4. Gauzazko kalte-ordainaren zenbateko salbuetsia ezin izanen da izan 180.000 eurori letra honetako lehenengo bi paragrafoen arabera salbuetsita dagoen diruzko kalte-ordainaren zenbatekoa kenduta ateratzen den kendura baino handiagoa”.

Bi. 7.d) artikulua, paragrafo bat gehitzea, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

“Salbuetsiak egonen dira, halaber, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioetik jasotako zenbatekoak, baldin eta jaso badira Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzko martxoaren 26ko 16/2019 Foru Legearen 12. artikuluan xedatutako kalte-ordainen ondorioz, eta baita izaera bereko egintzeagatik beste administrazio publiko batzuetatik jasotakoak ere”.

Hiru. 7.k) artikulua, laugarren paragrafoa

“Salbuetsiak egonen dira, halaber, Gizarte zerbitzuen arloan banakoentzako eta familientzako prestazioak eta laguntzak arautzen dituen ekainaren 28ko 168/1990 Foru Dekretuan ezarritako prestazio ekonomikoak, bai eta Gizarteratzeko eta errenta bermaturako eskubideak arautzen dituen Foru Legean ezarritako errenta bermatua eta abenduaren 20ko 19/2021 Legean araututako bizitzeko gutxieneko errenta ere. Era berean, salbuetsiak egonen dira jaiotzagatik, adopzioagatik, seme-alabak norberaren kargura edukitzeagatik, adingabeak harreran hartzeagatik, zurztasunagatik, haur batez baino gehiagoz erditzeagatik edo beste horrenbeste adoptatzeagatik edo minbiziak edo beste edozein gaixotasun larrik jotako seme-alaba adingabeak zaintzeagatik emandako gainerako prestazio publikoak, bai eta jaiotza-tasa sustatze aldera eta langileen lana eta familiako bizitza ongi uztartzeko neurri osagarri gisa kasuan kasuko deialdien bidez familiaren arloan emandako laguntzak ere”.

Lau. 7.z) artikulua, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

“z) Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtzarekin (LGENF) batera finantzatutako Nafarroako landa garapenerako programako laguntzen 100eko 100.

Era berean, salbuetsia egonen da Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtzak (NBEUF) osorik finantzatutako laguntzen 100eko 50, horiek jaso badituzte ogibide nagusia nekazaritza duten nekazariak, Nafarroako Nekazaritzako Ustiatuegien

Erregistroari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 2ko 150/2002 Legegintzako Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera.

Bi kontzeptuengatik jasotako laguntzei dagokien salbuespenaren gehieneko zenbateko bate-ratua ezin izanen da izan 20.000 euro baino gehiagokoa”.

Bost. 10. artikulua, 2. apartatua indargabetzea eta 1. apartatuko zenbakia kentzea, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

Sei. 11. artikulua, 2. eta 3. apartatuak indargabetzea eta 1. apartatuko zenbakia kentzea

Zazpi. 18.2 artikulua.

“2. Aurreko 1.b) apartatuak aipagai dituen gastuen kenkaria aplikatzeko, subjektu pasiboek ordaindutako kuotek lanbide-elkargoak Zerga Administrazioari aurkeztutako aitortpenetan agertu beharko dute, zerga arloko araudian ezarritako eruedetan”.

Zortzi. 25.2 artikulua, hirugarren paragrafoa

“100eko 40, errentamenduaren xede den etxebizitzaren urteko alokairuaren zenbatekoa AJI-Alokairu Jasangarritasunaren Indizearen balioa baino handiagoa ez bada, eta kontratua behar bezala erregistratu bada Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroan, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen 90. artikuluan xedatutakoan”.

Bederatzi. 34.6 artikulua, b) letra gehitzea, oraingo edukia a) letra bihurtuz, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

“b) Basogintza jardueren kasuan, a) letran ezarritako murriztapen ehuneko honako hau izanen da:

1) 100eko 55, mozketa aldia 15 urtekoa edo gehiagokoa eta 70 urtekoa edo gutxiagokoa bada.

2) 100eko 65, mozketa aldia 70 urte baino gehiagokoa bada”.

Hamar. 36.B).5 artikulua.

“5. Zuzeneko zenbatespen bereziari uko egiteko edo uko hori errebokatze, erregelamendu bidez ezarritako moduan eginen da eta, halaber, egintza horiek erregelamendu bidez ezarritako ondorioak izanen dituzte”.

Hamaika. 39.6.f) eta g) artikulua.

“f) Tresnen merkatuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren

15eko 2014/65/EB Zuzentarauan definitutako balore-merkatu arautuetakoren batean negoziatziora onarturikoak diren balore edo partaidetzen eskualdatzetik eratorriak, baldin eta eskualdaketa horien aurreko edo ondorengo bi hilabeteetan subjektu pasiboak balore homogeenok eskuratu baditu.

g) Finantza tresnen merkatuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauan definitutako balore-merkatu arautuetakoren batean negoziatziora onartuta ez dauden balore edo partaidetzen eskualdatzetik eratorriak, baldin eta eskualdaketa horien aurreko edo ondorengo urtean subjektu pasiboak balore homogeenok eskuratu baditu”.

Hamabi. 43.1.c) artikulua, b' azpiletra eta azken paragrafoa

“b) Finantza tresnen merkatuari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauan definitutako balore-merkatu arautuetako kotizazio balioa, eta, bereziki, Baloreen Merkatuari buruzko Legearen testu bateginaren 43.4 artikulua aurreikusitakoaren arabera baimendutako baloreen negoziazio sistema antolatutako kotizazio balioa, eskualdatzearen eguneko.

Eskurapen-balioa zehazteko, a) letran xedatutakoa aplikatuko da, bidezkoa denean.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, uztailaren 13ko 1082/2012 Errege Dekretuaren bidez onetsitako Inbertsio Kolektiboko Erakundeei buruzko azaroaren 4ko 35/2003 Legearen Erregelamenduko 79. artikuluan aipatzen diren inbertsio funts kotizatutako partaidetzen eskualdaketa, balore burtsan egiten diren horietan, eskualdaketa balioa a) letran aurreikusi bezala zehaztuko da”.

Hamahiru. 44. artikulua, hirugarren eta laugarren paragrafoak indargabetzea

Hamalau. 45. artikulua, 4. apartatua gehitzea, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

“4. Kargatik salbuesten ahalko dira 26/2016 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarrian araututako kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duten entitate ekintzaileetako akzioak eta partaidetzak eskualdatzeagatik lortutako ondare gehikuntzak, baldin eta haren zenbateko osoa urte bateko epean berrinbertitzen bada kenkari hori aplikatzeko eskubidea ematen duten beste entitate ekintzaile batzuetako akzioak edo partaidetzak eskuratzeko.

Berrinbertitutako zenbatekoa txikiagoa bada eskualdaketa jasotako guztizkoa baino, zergapetzetik salbuetsiko da berrinbertitutako zenbatekoari dagokion ondare gehikuntza lortuaren zati proportzionala bakarrik.

Atal honetan ezartzen den salbuespena aplikatzeko betebeharrak ez betetzeak ekarriko du, subjektu pasiboarentzat, bere tributu egoera erregularizatzeko betebeharra, 83.4 artikuluan ezartzen denarekin bat etorritz.

Apartatu honetan xedatutako zerga-onura bateraezina izanen da, berrinbertsioa gauzatzen den akzio edo partaidetza eta zenbateko berberetarako, 26/2016 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarriaren 4. zenbakian araututako kenkariarekin”.

Hamabost. III. tituluko II. kapituluari 6. atala gehitzea, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

“6. atala. Lekualdatutako langileak.

52 ter artikulua. Lekualdatutako langileentzako araubide berezia.

1. Espainiako lurraldera lekualdatu direlako egoitza fiskala Nafarroan eskuratzen duten pertsona fisikoek aukera izanen dute ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga ordaintzeko, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboaren izaerari eutsiz, egoitza aldaketa egiten den zergaldian eta hurrengo bost zergaldietan, baldintza hauek betetzen dituztenean:

a) Espainiako lurraldera lekualdatu izatea bereziki kualifikatutako lanetan aritzeko, hots, zuzenean eta nagusiki lotuta daudenetan ikerketa eta garapeneko jarduerekin edo zientzia, antolaketa, kudeaketa, teknika, finantza edo merkataritza jarduerekin; edota unibertsitateko ospe handiko irakasleak izatea.

Artikulu honen ondorioetarako, ikerketa eta garapeneko jarduerak dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 61. artikuluan halakotzat jotzen direnak.

b) Espainiako lurraldera lekualdatu aurreko bost urteetan ez izatea Espainiako zerga egoiliar.

c) Lekualdaketa hori laneko kontratu baten ondorioz gertatzea. Baldintza hori betetzat joko da lan harremana (arrunta edo berezia) edo estatutu baten arabera Espainian hasten denean enplegu emaile batekin, edo horrek aginduta eta agiri bat emanda egiten denean lekualdaketa, eta subjektu pasiboak Espainiako lurraldean den establezimendu iraunkor baten bidez lortutakotzat joko liratekeen errentak eskuratzen ez dituztenean.

d) Lanak benetan Espainian egitea. Baldintza hori betetzat joko da, nahiz eta lanen zati bat atzerrian burutu, baldin eta lan horiei dagozkien ordainsariak ez badira urte naturalean lanaren ordainetan jasotakoaren 100eko 15 baino gehiago, lan horiek Espainiako lurraldean lortutako errentatzat hartu edo ez, Ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari buruzko Legearen testu bateginarekin 13.1.c) artikulua araberako. Lan kontratua ezarritakoaren ondorioz, subjektu pasiboak taldeko beste enpresa bateko eginkizunak bere gain hartzen dituztenean Espainiako lurraldetik kanpo, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako moduan, aurreko muga 100eko 30era igoko da.

Atzerrian egindako lanei dagozkien berariazko ordainsarien zenbatekoa ezin frogatu denean, langileak atzerrian benetan emandako egunak hartuko dira kontuan lan horiei dagokien ordainsaria kalkulatzeko.

e) Lan horiek Espainiako egoiliarra den enpresa edo entitate batentzat egitea, edo Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitate batek Espainian duen establezimendu iraunkor batentzat. Baldintza hori betetzat joko da zerbitzuak Espainiako egoiliarra den enpresa edo entitate baten onerako direnean, edo Espainiako lurraldeko egoiliarra ez den entitate batek Espainian duen establezimendu iraunkor baten onerako. Lekualdaketa enpresa-talde baten barnean egiten bada, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako moduan, eta ondorio horietarako bakarrik, beharrezkoa izanen da Espainiako egoiliarra den taldeko enpresak kontratatzea langilea edo enplegu emaileak aginduta lekualdatzea Espainiako lurraldera.

f) Lan harreman horren ondoriozko lan etekinak ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga ordaintzetik salbuetsita ez izatea.

2. Goragoko 1. apartatuan aipatzen den subjektu pasiboaren ezkontideak edo bikotekide egonkorrek ere aukeratzen ahalko du ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga ordaintzea, pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboaren izaerari eutsiz, baldin eta baldintza hauek betetzen baditu:

a) Espainiako lurraldera lekualdatzea 1. apartatuan aipatutako subjektu pasiboarekin batera edo geroago, baina betiere horri araubide berezia aplikatzeko zaien lehen zergaldia amaitu aurretik.

b) Egoitza fiskala Nafarroan eskuratzea, Espainiako lurraldera lekualdatzearen ondorioz.

c) Espainiako lurraldera lekualdatu aurreko bost urteetan ez izatea Espainiako zerga egoiliar.

d) Araubide berezi hau aplikatzekoa den zergaldi bakoitzean errenta bakoitzari dagozkion zerga-oinarrien batura txikiagoa izatea zergaldi berean 1. apartatuan aipatutako subjektu pasiboari dagozkion zerga-oinarrien batura baino.

Araubide berezia aplikatuko da betekizun horiek betetzen diren ondoz ondoko zergaldietan, 1. apartatuan aurreikusitako subjektu pasiboari ere aplikatzen zaionean.

3. Xedapen honetan aurreikusitako araubidea ez zaie aplikatuko Espainiako lurraldera lekualdatu direlako egoitza fiskala Nafarroan eskuratzen duten langileei, baldin eta aurreko 10 urteetan atzerrira lekualdatu baditu entitate enplegatzaileak edo egoitza Espainian duten eta enpresa-taldea Merkataritza Kodearen 42. artikulua ezartzen

duenaren arabera osatzen duten sozietateetako edozeinek.

4. Zerga arloko eskumena duen departamentuko titularrak ezartzen dituen baldintzen eta prozeduraren arabera aplikatuko da araubide hori”.

Hamasei. 55.1.7.a).b’) eta 1.8 artikulua, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

“b’) 1.500 euro urtean.

Muga hori handituko da kasu hauetan, adierazten diren zenbatekoetan:

1. Urtean 8.500 euroan, baldin eta gehikuntza hori enpresaren ekarpenetatik badator, edo langileak gizarte aurreikuspeneko tresna berari egindako ekarpenetatik badator eta ekarpen horien zenbatekoa honako taula honetan ageri diren kopuruak berdina edo txikiagoa bada, enpresaren ekarpenaren urteko zenbatekoaren arabera:

Ekarpenaren urteko zenbatekoa	Langilearen gehieneko ekarpena
500 euro edo gutxiago.	Enpresaren ekarpena bider 2,5 egitearen emaitza
500,01 eurotik 1.500 eurora.	1.250 euro, gehi enpresa ekarpenaren eta 500 euroren arteko diferentzia bider 0,25 egitearen emaitza
1.500 eurotik gora.	Enpresaren ekarpena bider 1 egitearen emaitza

Nolanahi ere, 1. koefizientea aplikatuko da langileak ekitaldian 60.000 eurotik gorako lan etekin osoak lortzen dituenek ekarpena egiten duen enpresatik; horretarako, enpresak jakinarazi beharko dio gizarte aurreikuspeneko tresnaren erakunde kudeatzaileari edo aseguratzaileari inguruabar hori ez dela gertatzen.

Ondorio horietarako, enpresak egindako ekarpenak langilearen ekarpenetatik hartuko dira langilearen erabaki baten ondorio direnean.

2. Urtean 4.250 euroan, baldin eta gehikuntza hori ekarpen hauetatik badator: Pentsio Plan eta Funtsak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 67.1.a) artikuluan aurreikusitako pentsio plan sektorialetara egindako ekarpenetatik, ekarpen horiek egiten badituzte beren jardura dela-eta plan horiei atxikitzen zaizkien norberaren konturako langileek edo langile autonomoek; Pentsio Plan eta Funtsak arautzen dituen Legearen testu bateginaren 67.1.c) artikuluan aurreikusitako enpleguko pentsio plan sinplifikatuetara norberaren konturako langileek edo langile autonomoek egindako ekarpenetatik; edo enpresaburu indibidualak edo profesionalak enpleguko pentsio planetara egindako ekarpen propioetatik, plan horien sustatzailea ez ezik partaidea ere baldin bada,

edo mutualista den gizarte aurreikuspeneko mutualitateetara egiten dituen ekarpenetatik, bai eta enpresetako gizarte aurreikuspeneko planetara edo mendekotasun aseguru kolektiboetara egiten dituenek ere, horien hartzailea eta aseguraturua baldin bada.

Betiere, urtean gehienez 8.500 eurokoa izanen da aurreko 1. eta 2. zenbakietan xedatutako gehikuntzak aplikatzearen ondoriozko murriztapenaren zenbatekoa”.

“8. Zerga-oinarria murrizteko eskubidea eman ahal duten enpresa ekarpen eta kontribuzioak aurreko puntuan ezarritako mugatik goitikoak badira, 1. apartatu honetan aipatutako gizarte aurreikuspeneko sistemetan ekarpenak egin dituzten partaideek, mutualistek edo aseguratuek aukera izanen dute, hurrengo bost zergaldietan soberakin horri dagozkion kopuruak murrizteko”.

Hamazazpi. 60. artikulua. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“60. artikulua. Aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziaren karga-tasa.

Aurrezkiaren likidazio-oinarri bereziari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

LIKIDAZIO-OINARRIA, ZENBATERAINO (eurotan)	KUOTA OSOA (eurotan)	OINARRIAREN SOBERAKINA, ZENBATERAINO (eurotan)	APLIKATZEKO DEN TASA (ehunekoa)
		6.000	20
6.000	1.200	4.000	22
10.000	2.080	5.000	24
15.000	3.280	185.000	26
200.000	51.380	100.000	27
300.000	78.380	Gainerakoak	28

Hemezortzi. 62.6. artikulua, bigarren paragrafoa.

“Kenkaria aplikatzeko, subjektu pasiboek ordaindutako kuotek sindikatuek Zerga Administrazioari aurkeztutako aitopenetan agertu beharko dute, zerga arloko araudian ezarritako eredueta”.

Hemeretzi. 62.9 artikulua, b)c’) letrako hirugarren paragrafoa eta c)a’) letra, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

“Aurreko b’) eta c’) letretan xedatutakoaren ondorioetarako, ondorengo ahaideekin parekatuko dira aplikatzekoa den legedi zibilean ezarritako terminoetan egindako tutoretza, harrera edo ordezkartzako kuradoretza kasuengatik subjektu pasiboarekin lotura duten pertsonak, aurreko edo ondorengo ahaideak ez direnak. Halaber, ondorengo ahaideekin parekatuko dira urtarrilaren 19ko 7/2009 Foru Dekretuaren 50.1 artikuluan ezarritako baldintzak beteta harreraren izan zituztenekin adin-nagusitasunera edo emantzipaziora arte elkarbizitzen jarraitzea libreki adosten duten pertsonak ere. Aipatu foru dekretuaren bidez, Haurrentzako eta nerabeentzako sustapenari, laguntzari eta babesari buruzko abenduaren 5eko 15/2005 Foru Legearen garapen partzialerako Erregelamendua onetsi zen. Egoera hori eskubide sozialen arloko eskumena duen departamentuak egiaztatu beharko du. Halaber parekatuko dira ondorengo ahaideekin subjektu pasiboaren zaintza eta babesaren pean epailearen ebazpen bitartez dauden pertsonak, aurreko egoerez bestelakotan daudenak”.

“a’) Hamasei urte baino gutxiagoko ondorengoak. Ondorio hauetarako, ondorengo ahaideekin parekatuko dira aplikatzekoa den legedi zibilean ezarritako moduan egindako tutoretza edo harrengatik subjektu pasiboarekin lotura duten hamasei urte baino gutxiagokoak. Ondorengo ahaideekin parekatuko dira, halaber, ebazpen judicial

bidez subjektu pasiboaren zaintza eta jagoletzaren pean edo ordezkartzako kuradoretzaren pean dauden pertsonak, lehengo egoeretan ez daudenak”.

Hogei. 62.11.a) artikulua eta d).4) letrari paragrafo bat gehitzea, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

“a) Subjektu pasiboek zilegi izanen dute beren zerbitzuak ematen dituzteneko entitateko akzioak edo partaidetzak eskuratzeko edo harpidetzeko ordaindutako kopuruen 100eko 15eko kenkaria egitea, edo enpresa-taldea Merkataritza Kodearen 42. artikulua ezartzen duenaren arabera osatzen duten edozein sozietateetakoak. Eskuratzailerak emakumezkoa bada ehuneko hori igoko da, eta 100eko 20 izanen da.

Baldin eta akzioak edo partaidetzak eskuratzen edo harpidetzen badira enpresa beraren akzioak edo partaidetzak, edo Merkataritza Kodearen 42. artikulua arabera taldea osatzen duten sozietateetako edozeinenak, eskualdatu ondoren, betiere aurreko bost urteetan egindako eskualdaketa aintzat hartuta, kenkariaren oinarria izanen da entitateko partaidetzaren gehikuntzari dagokion eskurapenaren edo harpidetzaren zenbatekoa, eskualdaketa horren aurreko unean zegoenaren aldean.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa ez da aplikatuko, eskualdaketa mantentze-epea ez beteagatik kenkaria erregularizatzea ekarri badu”.

“Akzioak edo partaidetzak eskualdatzen badira enpresa beraren akzioak edo partaidetzak, edo Merkataritza Kodearen 42. artikulua arabera taldea osatzen duten sozietateetako edozeinenak, eskuratu edo harpidetu ondoren, betiere aurreko bost urteetan eskuratuak edo harpidetuak aintzat hartuta, ulertuko da eskuratutako azkenak eskualdatu direla lehenbizi”.

Hogeita bat. 62.12.b), d)1.d') artikulua eta d) letrari 4. zenbaki bat gehitzea, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

“b) Iturri berriztagarrietatik datorren energiatzat joko da iturri ez-fosiletatik datorren energia; hau da, haize-energia, eguzki-energia (termikoa eta fotovoltaiakoa), energia geotermikoa, giro-energia, marea-energia, olatu-energia eta bestelako energia ozeanikoak, energia hidraulikoa, eta biomasa-tatik, zabortegietako gasetatik, araztegietako gasetatik eta biogasetik datorrena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko abenduaren 11ko 2018/2001 Zuzentarauan definitzen diren moduan.

Bereziki, iturri berriztagarrietatik datorren energiatzat joko da hidrogeno berriztagarria, hots, aurreko paragrafoan aipatutako iturri ez-fosiletatik lortutako hidrogenoa”.

“d) Autokontsumo partekatuko proiektu batean egindako inbertsioa edo energia-komunitate baten inbertsioa bada, kenkariaren ehunekoa 5 puntu gehituko da”.

“4. Erabilera termikoetarako instalazioetan egiten diren inbertsioen kasuan, gasaren ordez hidrogeno berriztagarria erabiltzen bada, kenkariaren ehunekoa 15 puntu igoko da gehienez, hidrogeno berriztagarria erabiltzen den heinean”.

Hogeita bi. 62.13.a) artikulua, lehenengo paragrafoa eta 1. eta 2. zenbakiak.

“a) Entitatearen jarduera ekonomikoari atxikita-ko ibilgailu berrietan egindako inbertsioek eskubidea emanen dute 100eko 30eko kenkaria egiteko, baldin eta ibilgailu elektrikoak badira, eta 100eko 5eko kenkaria, berriz, ibilgailu hibrido entxufagarriak badira, baldin eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 30eko 2018/585 (EB) Erregelamenduan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko urtarrilaren 15eko 168/2013 (EB) Erregelamenduan zehaztutako kategoria hauetakoren batekoak badira:

Lehenengoa) M1 turismoak: Gehienbat bidaiariak eta haien bagajea garraiatzeko diseinatu eta fabrikatutako ibilgailu motordunak, gidariarenaz gain gehienez zortzi eserleku dituztenak, zutik doazen bidaiarientzako tokirik gabe. Berdin dio eserleku bakarra duen, gidariarena alegia, edo gehiago.

Bigarrena) N1 furgonetak edo kamioi arinak: Gehienbat salgaiak garraiatzeko diseinatu eta fabrikatutako ibilgailu motordunak, 3,5 tonara arteko gehieneko masa dutenak”.

Hogeita hiru. 64. artikulua. Errubrika, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“64. artikulua. Kenkariak aplikatzeko arauak”.

Hogeita lau. 64. artikulua, 3. eta 4. apartatuak gehitzea, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“3. Inbertsio berari ezin izanen zaio kenkari bat baino gehiago aplikatu, berariazko xedapenik izan ezean.

4. Salbuetsizat deklaraturako dirulaguntzak jasotzen badira inbertsioa finantzatzeko, horiek kenkariaren oinarria minoratuko dute.

Kenkariaren oinarria inbertsioaren zenbatekoa izanen da, salbu eta hori ezarritako gehieneko muga baino handiagoa bada; halakoetan, aipatutako muga izanen da kenkariaren oinarria”.

Hogeita bost. 68 bis artikulua indargabetzea, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Hogeita sei. 68 quinquies.A.1 artikulua.

“1. Dagokion kuota diferentziala finkatu ondoren, ohiko bizileku iraunkorra duen etxebizitzaren errentamendu-kontratu baten titularra den subjektu pasiboak, 23 urte eta 35 urte (horiek barne) bitarteko adina duenean, eskubidea izanen du errentamenduagatik zergaldian ordaindu duen errentaren 100eko 50eko kenkaria aplikatzeko, hilean 250 euroko gehieneko mugarekin”.

Hogeita zazpi. 71.1. artikulua a) eta b), 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

“a) Legez bereizirik ez dauden ezkontideek eta, izanez gero, adingabeko seme-alabek osatua (gurasoen baimenarekin beraiengandik lokabe bizi direnak salbu); unitate horretan sartzen dira, halaber, ordezkartzako kuradoretzaren pean dauden adin nagusiko seme-alabak.

b) Legeria berekiaren arabera bikote egonkor batek eta, izanez gero, adingabeko seme-alabek osatua (gurasoen baimenarekin beraiengandik lokabe bizi direnak salbu); unitate horretan sartzen dira, halaber, ordezkartzako kuradoretzaren pean dauden adin nagusiko seme-alabak”.

Hogeita zortzi. 73.5 artikulua.

“5. Familia-unitate bateko kide diren pertsona fisikoak, titulu honetan araututako tributazio modua aukeratu badute, batera eta solidarioki geratuko dira zergaren mende subjektu pasibo gisa, deusetan galarazi gabe zerga zorra elkarren artean hainbanatzeko eskubidea, bakoitzari dagokion zergapeko errenta zatiaren arabera.

Aurrekoa gorabehera, epai judizial bidez gene-oro-indarkeriaren biktimatzat hartutakoek eskatzen ahalko dute errudunarekin batera tributatzeari dagokionez duten erantzukizuna soilik izan dadila eskaeraren egunean ordaintzeko dagoen zorraren gainekoa, banakako beren zergapeko errentari dagokiona. Ondorio horietarako, biktimari dagokion erantzukizuna bere zerga-oinarri positiboak familia-unitatearen zerga-oinarri positibo guztien baturarekiko duen proportzioaren arabera izanen da, eta proportzio hori eskaeraren egunean ordaintzeko dagoen zor osoaren gainean aplikatuko da.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa zergadunak eskatuta baino ez da aplikatuko, eta epai judiziala aurkeztu beharko da eskaerarekin batera. Soilik eraginen die eskaeraren egunean ordaintzeko dauden eta epaiaren funtsa den lehenbiziko salaketa aurkeztu aurreko lau zergaldiei dagozkien zorre”.

Hogeita bederatzia. Laugarren xedapen gehigarria. 7.c)

“c) Aseguru-entitateek eta finantza-entitateek bizitza-aseguru baten hartzaile diren pertsonen gaineko informazioa eman beharko dute, haren erreskate-balioa edo erreskaterako eskubiderik ez dagoen kasuetan onuradunari jasotzea egokituko litzaiokeen kapitalaren balioa adieraziz, eta orobat, kapital bat eskudirutan edo ondasun higigarrien edo higiezinaren bidez aurkezteagatik aldi bateko edo bizi arteko errenta baten onuradun diren pertsonen buruzko informazioa, haren kapitalizazio-balioa adieraziz. Halaber aurkeztu beharko dute informazio hori Europako esparru ekonomiko kide den beste estatu batean helbideratutako aseguru-entitateek, Espainian zerbitzu-emate libreko araubidean baldin badihardute, Espainian egiten diren eragiketegi dagokienez”.

Hogeita hamar. Hamargarren xedapen gehigarria gehitzea, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

“Hamargarren xedapen gehigarria. Banakako pentsioen produktu paneuroparrak.

Zerga honetan, pentsio planei dagokien tratatua aplikatuko zaie banakako pentsioen produktu paneuroparrei, Banakako pentsioen produktu paneuroparrari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 20ko 2019/1238 (EB) Erregelamenduan araututakoak.

Zehazki:

a) Aurreztaileak banakako pentsioen produktu paneuroparrei egindako ekarpenek zerga-oinarri orokorra murrizten ahalko dute pentsio planei

egindakoen modu berean, eta foru lege honen 55. artikuluan gizarte aurreikuspeneko sistemarako ezarritako guztizko gehieneko muga sartuko dira.

b) Banakako pentsioen produktu paneuroparren onuradunek jasotzen dituzten prestazioak lan etekintzat hartuko dira beti, eta ez dira egonen oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren pean.

c) Zergadunak baliatzen baditu banakako pentsioen produktu paneuroparrei egindako ekarpenetik eratorritako eduki ekonomikoko eskubideak, osorik edo partez, pentsio planen eta funtsen araudian zehaztutakoek bestelako kasuetan, zerga-oinarrian behar ez bezala egindako murriztapenak itzuli beharko ditu, berandutze interesak barne, dagozkion autolikidazio osagarrien bidez. Erregularizatutako ekarpenen zenbatekoaren gainetik jasotako zenbatekoek jaso diren zergaldiko lan etekin gisa tributatu dute”.

Hogeita hamaika. Hamahirugarren xedapen gehigarria.2. lehenbiziko paragrafoa.

“2. Xedapen gehigarri honetan ezarritako araubidea aplikatuko zaie, orobat, gizarte aurreikuspeneko mutualitateetara, aseguratutako aurreikuspen planetara, enpresaren gizarte aurreikuspeneko planetara eta menpekotasun larria edo menpekotasun handia baizik estaltzen ez duten aseguruetara (Autonomia sustatzeko eta Menpekotasun Egoeran dauden Pertsonen kasu egiteko abenduaren 14ko 39/2006 Legean xedatzen denaren arabera) egindako edo haietatik jasotako ekarpen eta prestazioei, gizarte aurreikuspeneko sistema horiek Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Estatuko araudian ezarritako baldintzak eta erregelamendu bidez finkatzen direnak betetzen dituzten desgaitasuna duten pertsonen alde eginak direnean. Kasu horretan, xedapen gehigarri honetan jasotako gizarte aurreikuspeneko sistema guztiak batera hartuta aplikatuko dira ezarritako mugak”.

Hogeita hamabi. Hemezortzigarren xedapen gehigarria.

“Hemezortzigarren xedapen gehigarria. Europar Batasuneko beste estatu batean helbideratutako pentsio funtsen eta banakako pentsioen produktu paneuroparren zerga betebeharrak.

1. Europar Batasuneko beste estatu batean helbideratutako pentsio funtsek, Espainian enpleguko pentsio planak, Espainiako legediari loturikoak, gauzatzen badituzte, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak enpleguko pentsio funtsen jardueri eta gainbegiratzeari buruz 2003ko ekainaren 3an emandako 2003/41/EE Zuzentarauan xedatu-

rikoarekin bat edo, hala denean, haien entitate kudeatzaileek, atxikipena egin eta haren zenbatekoa pagatu beharko dute edo konturako diru-sarrerak egin, Espainian egiten diren eragiketei dagokienez. Gainera, irailaren 30eko 1307/1988 Errege Dekretuaren bidez onetsiriko Pentsio plan eta funtsei buruzko Erregelamenduan pentsio funtsak kudeatzen dituzten entitateentzat jasotzen diren tributu arloko informazio betebeharrak izanen dituzte, hori dena Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoak zedarrituriko esparruan.

2. Banakako pentsioen produktu paneuroparri buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 20ko 2019/1238 (EB) Erregelamenduan arautzen diren banakako pentsioen produktu paneuroparren sustatzaileek, halaber, irailaren 30eko 1307/1988 Errege Dekretuaren bidez onetsiriko Pentsio plan eta funtsei buruzko Erregelamenduan pentsio funtsak kudeatzen dituzten entitateentzat jasotzen diren tributu arloko informazio betebeharrak izanen dituzte, hori dena Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoak zedarrituriko esparruan”.

Hogeita hamahiru. Hogeita hamargarren xedapen gehigarria, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

“Hogeita hamargarren xedapen gehigarria. Kapital higiezinaren etekin garbi positiboaren murriztapena.

Foru lege honen 25.2 artikulua hirugarren paragrafoan xedatutako murriztapena, Babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzeko uztailaren 1eko 20/2022 Foru Legearen laugarren artikulua emandako idazketan, ez da aplikatuko harik eta 20/2022 Foru Legearen 90. artikuluan jasotzen den Nafarroako Etxebizitza Errentamenduko Kontratuen Erregistroa abiatzen den zergaldia hasi arte”.

Hogeita hamalau. Berrogeita hamabosgarren xedapen gehigarria.2

“2. Errenta salbuetsizat joko dira, halaber, honako arauak xedatzen dutena aplikatuz emandako dirulaguntza publikoak:

a) Urriaren 5eko 853/2021 Errege Dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean sartutako etxebizitzaren birgaitzearen arloko laguntza-programak; abuztuaren 4ko 737/2020 Errege Dekretua, zeinaren bidez arautzen baita egungo eraikinen birgaitze energetikoko jarduketetarako laguntza-

programa, eta arautzen baita programa horretako laguntzak autonomia erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei zuzenean ematea; eta abuztuaren 3ko 691/2021 Errege Dekretua, zeinaren bidez arautzen baitira egungo eraikinen birgaitze energetikoko jarduketetarako eman beharreko dirulaguntzak, erronka demografikoko udalerrietan dauden eraikinetarako birgaitze energetikoko programaren ildoan (PREE 5000 Programa).

b) Ekainaren 29ko 477/2021 Errege Dekretua, zeinaren bidez onesten baita zuzeneko laguntzak ematea autonomia erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei pizgarri-programak gauzatzeko, lotuta daudenak autokontsumoarekin eta energia-iturri berriztagarrien bidez biltegitratzearekin, baita bizitegi-sektorean energia berriztagarriak erabiltzen dituzten sistema termikoak ezartzearekin ere, Europako Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan”.

Hogeita hamabost. Hirurogeita laugarren xedapen gehigarria, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

“Hirurogeita laugarren xedapen gehigarria. Etxebizitza bat alokairu-araubidean eskuratzea errazteko kenkaria 2023an.

2023. urtean, honako hauek aplikatzen ahalko dute emantzipaziorako errentamenduagatik kenkaria (68 quinquies A artikulua zehazten du kenkari hori): Nafarroan erroldaturik egonda, eta kenkariaren onuradun izateko gainerako baldintzak betez gero (salbu eta adinari dagokiona), 2023ko urtarrilaren 1ean edo geroago enplegu eskatzaile gisa eta langabezian inskribaturik daudenak.

Kenkaria 2023ko abenduaren 31ra arte eman da”.

Hogeita hamasei. Hirurogeita bosgarren xedapen gehigarria.1, 2 eta 3, eta 4. apartatuko hirugarren paragrafoa, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

“1. Zergadunek zilegi izanen dute beren ohiko etxebizitzaren edo une horretan etxebizitza gisa erabilia izateko alokairuan emana nahiz alokagai duten beren jabetzako beste edozein etxebizitzaren berokuntza- eta hozkuntza-eskaria murrizteko asmoz 2022an eta 2023an eginiko obregatik epe horretan ordaindu dituzten kopuruen ehuneko 20 kentzea, baldin eta, azken kasu horretan, etxebizitza 2024ko abenduaren 31 baino lehenago alokatzen bada.

Ondorio horietarako, etxebizitzaren berokuntza- eta hozkuntza-eskaria murriztu dela ulertuko da, soilik, ehuneko 7 murrizten bada, gutxienez ere, obrak egin ondoren teknikari eskudunak jaul-

kitako etxebizitzaren energia-efizientziari buruzko ziurtagiria jasotako berokuntza- eta hozkuntza- eskariaren adierazle batura, obrak hasi aurretik jaulkitako ziurtagirikoekin alderatuta.

Kenkaria eginen da obrak egin ondoren eginiko energia-efizientziaren ziurtagiria jaulkitzen den zergaldian. Edozein kasutan, ziurtagiri hori 2024ko urtarrilaren 1a baino lehenago jaulki beharko da.

Kenkari honen gehieneko oinarria 5.000 eurokoa izanen da urtean.

2. Zergadunek zilegi izanen dute beren ohiko etxebizitzaren edo une horretan etxebizitza gisa erabilia izateko alokairuan emana nahiz alokagai duten beren jabetzako beste edozein etxebizitzaren energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoa hobetzeko asmoz 2022an eta 2023an eginiko obregatik epe horretan ordaindu dituzten kopuruen ehuneko 40 kentzea, baldin eta, azken kasu horretan, etxebizitza 2024ko abenduaren 31 baino lehenago alokatzen bada.

Ondorio horietarako, obra horiek egin diren etxebizitzaren energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoa hobetu dela ulertuko da, soilik, gutxienez ere ehuneko 30 murrizten denean energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoaren adierazlea, edo etxebizitzaren energia-kalifikazioaren hobekuntza bat lortzen denean, halako moldez non, kalifikazio-eskala berean, «A» edo «B» energia-klasea lortzen den, hori frogaturik obrak egin ondoren teknikari eskudunak jaulkitako energia-efizientziaren ziurtagiriaren bidez, obren hasiera aurretik jaulki zenarekin alderatuta.

Kenkaria eginen da obrak egin ondoren eginiko energia-efizientziaren ziurtagiria jaulkitzen den zergaldian. Edozein kasutan, ziurtagiri hori 2024ko urtarrilaren 1a baino lehenago jaulki beharko da.

Kenkari honen gehieneko oinarria 7.500 eurokoa izanen da urtean.

3. Nagusiki etxebizitza-erabilerakoak diren eraikinetan kokaturiko etxebizitzaren jabe diren zergadunek, baldin eta eraikin horietan 2022an, 2023an eta 2024an energia-birgaitze obrak egin badira, zilegi izanen dute aipatu obregatik epe horretan ordaindutako kopuruen ehuneko 60 kentzea. Ondorio horietarako, eraikinaren energia-birgaitze obratzat joko dira halakoak non etxebizitza kokatzen den eraikinaren energia-efizientzia hobetzea lortzen baita, eta frogatu egin beharko da, eraikinaren energia-efizientziaren ziurtagiriaren bitartez, zeina teknikari eskudunak jaulkiko baitu obrak egin direnean, energia primario ez-berriztagarriaren kontsumoaren beherakada izan dela, energia-ziurtagiria jaso eta gutxienez ere

ehuneko 30ekoa edo, bestela, eraikinaren energia-kalifikazioa hobetu dela, kalifikazio-eskala berean «A» edo «B» energia-klasea lorturik, obren hasiera aurretik jaulkitako ziurtagiriarekin alderatuta.

Etxebizitzekin parekatuko dira haiekin batera erosiak diren garaje-plazak eta trastelekuak.

Ez dute kenkari hori egiteko eskubiderik emanen jarduera ekonomiko bati atxikita dagoen etxebizitza-zatian eginiko obrek.

Kenkaria 2022, 2023 eta 2024ko zergaldietan eginen da haietako bakoitzean ordaindutako kopuruei dagokienez, baldin eta energia-efizientziaren ziurtagiria kenkaria eginen den zergaldia amaitu aurretik jaulki bada. Ziurtagiria jaulkitzen denean obra horiengatik kopuruak ordaindu ziren zergaldiaren ondorengo batean, kenkaria eginen da ziurtagiria jaulkitzen den aldia. Nolanahi dela ere, ziurtagiri hori 2025eko urtarrilaren 1a baino lehenago jaulki beharko da.

Kenkari honen gehieneko oinarria 5.000 eurokoa izanen da urtean.

Kenkariaren urteko gehieneko oinarria gainditzeagatik kenkaria egin gabe geratu diren kopuru ordainduetan kenkaria egiten ahalko da, muga berarekin, hurrengo lau ekitaldietan. Kenkariaren oinarri metatuak ezin izanen du ezein kasutan 15.000 euro gainditu”.

“1., 2. eta 3. apartatuetan jasotako kenkariaren oinarria 64.4 artikuluan ezarritakoaren arabera zehaztuko da, eta soilik hartuko dira kontuan obra horiek egiten dituzten pertsona edo erakundeei, bai eta aipatu ziurtagiriak ematen dituzten pertsona edo erakundeei ere, kreditu edo zordunketa txartel bidez, banku transferentziaren bidez, txeki izendunen bidez edo kreditu erakundeetako kontuetan egindako diru-sarreraren bidez ordaindutako zenbatekoak. Ezein kasutan ez dute kenkaria egiteko eskubiderik emanen legezko diruaren ematearen bitartez ordaindutako kopuruek”.

Hogeita hamazazpi. Hirurogeita seigarren xedapen gehigarria gehitzea, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

“Hirurogeita seigarren xedapen gehigarria. Aitorpena egiteko betebeharra eta lan etekinen gaineko atxikpenak.

1. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamenduko 56.a) artikuluan aipatzen den lan etekinen zenbatekoa, urtean eta osorik, 14.500 eurokoa izanen da.

Zenbateko hori erregelamendu bidez aldatzen ahalko da.

2. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, lehenengo bi tarteak kentzen dira lan etekin orokorren gaineko atxikipenaren ehunekoaren taulatik, maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Erregelamenduko 71.Bat artikuluan jasota dagoenetik. Aurrerantzean honako hau izanen da lehenengo tarteak:

Urteko etekina, eurotan	Seme-alaben eta beste ondorengo batzuen kopurua										
	Seme-alabarik gabe	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10 edo gehiago
14.500 baino gehiago	8,0	6,0	4,0	2,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0	0,0

Gainerako tarte eta ehunekoetan ez dago aldaketarik.

Atxikipenen taula erregelamendu bidez aldatzen ahalko da”.

Hogeita hemezortzi. Hirurogeita zazpigarren xedapen gehigarria gehitzea, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

“Hirurogeita zazpigarren xedapen gehigarria. Emantzipaziorako errentamenduaren kenkaria aplikatu ahal izateko gehieneko adina.

68 quinquies artikuluan ezarritakoa gorabehera, emantzipaziorako errentamenduaren kenkaria aplikatzeko gehieneko adina honako hau izanen da:

- a) 32 urte 2023ko zergaldian
- b) 33 urte 2024ko zergaldian
- c) 34 urte 2025eko zergaldian
- d) 35 urte 2026ko zergalditik aurrera”.

Hogeita hemeretzi. Hirurogeita zortzigarren xedapen gehigarria gehitzea; foru lege honek

indarra hartzen duenetik eta preskribatu gabeko aurreko zergaldietan izanen ditu ondorioak.

“Hirurogeita zortzigarren xedapen gehigarria. 2015eko martxoaren 24an gertatutako GWI9525 hegaldi-istripuaren biktimen familiartekoentzako laguntzak.

Zerga honetatik salbuetsita egonen dira ukitutako hegazkin konpainiak edo hari loturiko erakunde batek 2015eko martxoaren 24an gertatutako GWI9525 hegaldi-istripuaren biktimen familiartekoei ordaindutako borondatezko laguntzak”.

Berrogei. Hamaseigarren xedapen iragankorra.

“Hamaseigarren xedapen iragankorra. Epe berezia 2022rako zuzeneko zenbatespen bereziari uko egiteko.

2021ean 150.000 eurotik gorako baina 200.000 eurotik beherako negozio-zifraren zenbateko garbia izan duten subjektu pasiboek uko egiten ahalko diote, erregelamenduz ezarritako ondorioekin, 2022rako zuzeneko zenbatespen berezia aplikatzeari, 2022ko zergaren autolikidazioa aurkezten duten unean”.

Bigarren artikulua. Ondarearen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

Ondarearen gaineko Zergari buruzko azaroaren 19ko 13/1992 Foru Legearen manu hauek testu hau izanen dute:

Bat. 5.2 artikuluari f) letra gehitzea; 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

“f) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko ekainaren 20ko 2019/1238 (EB) Erregelamenduan araututako banakako pentsioen produktu paneuroparrei egindako ekarpenen ondoriozko eskubide ekonomikoak. Erregelamendu hori banakako pentsioen produktu paneuroparrari buruzkoa da”.

Bi. 5.8 artikulua, Bi.A).b) apartatua, eta Hiru eta Bost apartatuak, eta Bost apartatuaren egungo edukia Sei apartatua izatera igarotzea, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

“b) Ez dira balore gisa kontatuko, ez eta lanbide edo enpresa jardueri loturik ez dauden ondare elementu gisa ere, haien erosketa-prezioa entitateek lorturiko mozkin ez banatuen zenbatekoa baino handiagoa ez bada, baldin eta mozkin horiek lanbide- edo enpresa-jardueren ondoriozkoak badira. Urte horretan berean eta azken hamar urtetan lorturiko mozkinen batura muga gisa hartuko da.

Ondorio horietarako, enpresa- edo lanbide-jardueretatik etorritako mozkinen parekotzat jotzen dira aurreko d') letran aipatutako baloreetatik heldu diren dibidenduak, bai eta partaidetza horien eskualdaketetatik lortutako gainbalioak ere, baldin eta partaidetutako entitateak lortutako diru-sarreraren ehuneko 90, gutxienez, enpresa- edo lanbide-jarduerak egitetik heldu badira”.

“Hiru. Bi apartatuan aipatzen den kenkariak partaidetzen balioa baizik ez du hartuko –balio hori 15. eta 16. artikuluek ezarritako arauekin bat finkatuko da–; hain zuzen, lanbide- edo enpresa-jarduera aurrera eramateko behar diren aktiboak jarduera horretatik heldu diren zorrak kendu ondoren ateratzen denaren eta entitateak duen ondare garbiaren balioaren artean dagoen proportzioari dagokion zatian. Arau horiexek aplikatuko dira entitate partaidetuen partaidetzen balorazioan, entitate edukitzailearen partaidetzen balioa zehazteko.

Ondorio horietarako, Bi.A).b) apartatuan aipatzen diren horiek kontatuko dira beharrezko aktibo gisa, salbu eta:

a) enpresa- edo lanbide-jarduera bati lotuta ez dauden ondasun higiezinak direnean.

b) bigarren mailako merkatuetan kotizatutako baloreak, inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzak, eta 18. artikuluan aipatzen diren ibilgailu, ontzi eta aireontziak direnean.

Letra honetan aurreikusitakoa ez zaie aplikatuko Bi apartatuan aipatutako bigarren mailako merkatuetan kotizatutako baloreei. A).a).d').

Paragrafo honetan xedatutakoa aplikatuz beharrezko aktibo gisa kontatzen diren elementuek ezin izanen dute gainditu aktiboaren guztizkoaren 100eko 75”.

“Bost. Bi apartatuan araututako salbuespena ez zaie aplikatuko inbertsio kolektiboko erakundeetako partaidetzei”.

Hiru. 5. artikuluan 9. apartatua gehitzea, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin

“9. Sozietateen gaineko Zergari buruzko 26/2016 Foru Legearen hirugarren xedapen gehigarrian araututako kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duten entitate ekintzaileetako akzioak eta partaidetzak”.

Lau. 6. artikuluan 3. apartatua aldatzea eta 4. apartatua gehitzea.

“3. Hitzarmen Ekonomikoaren 17.2 artikulua arabera betebeharrak errealarengatik Foru Komunitatean zergapetuak izan behar diren subjektu pasiboaren zergapetzea izanen da Espainiako lurraldean kokatuta dauden, balia daitezkeen edo bete beharrekoak diren ondasun eta eskubideengatik.

Ondorio horietarako, Espainiako lurraldean kokatutako joko dira edonolako entitate baten funts berekietako partaidetzaren adierazgarri diren baloreak, merkatu antolatuetan negoziatu gabekoak, horren aktiboa ehuneko 50eko gutxieneko neurrian osatuta dagoenean, zuzenean edo zeharka, Espainiako lurraldean kokaturiko ondasun higiezinekin. Aktiboaren zenbatzea egiteko, ondasun kontabilizatu guztien kontabilitate-balio garbiak ordeztuko dira zerga-sortzapenaren datan dauzkaten merkatu-balioekin. Ondasun higiezinaren kasuan, kontabilitate-balio garbiak ordeztuko dira 10. artikuluan dioenaren arabera zerga-oinarri gisa kasuan-kasuan hartu behar diren balioekin.

Apartatu honek adierazitako subjektu pasiboek, izaera hori hartzen dutenetik bi hilabeteko epean, helbidea Espainian duen pertsona fisiko edo juridiko bat izendatu beharko dute, hark Nafarroako Zerga Ogasunaren aurrean ordezkaria dituzten zerga honengatik dituzten betebeharrak dagokiez. Aipatutako izendapenaren egunetik bi hilabeteko epean frogatu beharko da izendapen hori ogasun horretan.

Aurreko betebeharretakako edozein urratzea zerga arloko arau-hauste arina izanen da, 1.000 euroko isunaz zehatzeko modukoa. Zehapen hori mailakatu egingen da, eta suertatzen den zenbatekoa %100 handituko da baldin eta tributu arloko arau-haustea behin baino gehiagotan egiten bada.

4. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 52 ter artikuluan lekualdaturako pertsonentzat ezarritako araubide berezia aukeratzen duten subjektu pasiboek betebeharrak errealaren arabera tributatu

dute. Ondorio horietarako, ez zaie aplikatuko 3. apartatuko hirugarren eta laugarren paragrafoetan xedatutakoa”.

Bost. Lehen xedapen gehigarria, 2022ko urtarilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“Lehen xedapen gehigarria. Ondarearen gaineko Zergaren 2022ko eta 2023ko eskala.

2022ko eta 2023ko zergaldietan zergaren likidazio-oinarriari ondoko eskalan adierazten diren karga-tasak aplikatuko zaizkio:

Likidazio oinarria, zenbateraino (eurotan)	Kuota osoa (eurotan)	Likidazio-oinarriaren gainerakoa, zenbateraino (eurotan)	Tasa aplikagarria (ehunekoa)
0,00	0,00	155.511,88	0,16
155.511,88	248,82	155.511,88	0,24
311.023,76	622,04	311.023,76	0,40
622.047,53	1.866,13	622.047,53	0,72
1.244.095,06	6.344,87	1.244.095,06	1,04
2.488.190,11	19.283,46	2.488.190,11	1,36
4.976.380,22	53.122,84	4.976.380,22	1,68
9.952.760,45	136.726,02	1.051.024,05	2,00
11.003.784,50	157.746,50	Hortik gora	3,50"

Hirugarren artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen manu hauek testu hau izanen dute:

Bat. 6.4. artikulua indargabetzea. 5. apartatua dena 4. apartatua izanen da aurrerantzean.

Bi. 7.2. artikulua. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“2. Errentak eratzitzeko araubideko entitateek ez dute tributatu Sozietateen gaineko zergarengatik, salbu eta 23 bis.11 artikuluan xedatutako kasuan”.

Hiru. 12.1 a) artikulua, lehen paragrafoa, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin

“a) Aurre-aurreko zergaldian izandako negozio zifren zenbateko garbia hogeit hamar milioi eurotik beherakoa izatea”.

Lau. 23 bis artikuluko 10. apartatuko bigarren paragrafoa eta 11. apartatua. Egungo 11., 12. eta 13. apartatuak 12., 13. eta 14. apartatuak izanen dira, hurrenez hurren. 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“Gastu edo galera hori beste herrialdean edo lurraldean konpentsatzen bada gastuaren kenkaria egin edo zergadunak galera izan ondoko zergaldi batean, zergadunak konpentsazio horri dagokion zenbatekoa sartu beharko du bere zerga-oinarrian, konpentsazioa gauzatzen den zergaldian”.

“11. Errentak eratzitzeko araubidean dagoen entitate batek edo batzuek, 13. apartatuaren zentzuan elkarren artean lotuta daudenek, ehuneko 50eko edo gehiagoko partaidetza zuzena edo zeharkakoa badute urteko edozein egunetan kapitalean, funts propioetan, emaitzetan edo botoeskubideetan, eta egoiliarrek badira errentak eratzitzeko araubidean dagoen entitateari errentaren gaineko zerga pertsonal baten zergadun kalifikazioa ematen dioten herrialde edo lurraldeetan, zergadun gisa tributatu beharko dute jarraian ageri diren errenta positiboengatik. Errenta horiek, hain zuzen, errentak eratzitzeko araubidean dagoen entitateari errentaren gaineko zerga pertsonal baten zergadun kalifikazioa ematen dioten herrialde edo lurraldeetako egoiliar diren partaide guztiei dira egoztekoak:

a) Espainiako lurraldean lortutako errentak, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergari lotuta eta zerga hori ordaintzetik salbuetsita daudenak,

b) atzerriko errentak, entitate ordaintzailearen edo ordaintzaileen herrialdeak edo lurraldeak eskatutako zerga bati lotuta ez daudenak edo hura ordaintzetik salbuetsita daudenak.

Errentak zer urte naturaletan lortzen diren, urte horrekin bat etorriko da zergaldia.

Errentak eratzitzeko araubideko entitateak lortzen dituen gainerako errentak bazkideei, jaraunseei, erkideei edo partaideei eratzitzeko zaitzkie, eta tributatu beharko dute ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bategineko III. tituluko II. kapituluko 5. ataleko 1. azpiatalean xedatutakoarekin bat etorritik”.

Bost. 42.1.2 artikulua, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

“2. Hirugarren xedapen gehigarriko 3.e) letran ezarritako murriztapena”.

Sei. 61.2 eta 3 artikulua, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

“2. Ikerketatzat hartuko dira ezagupen orokor zientifiko eta teknikoaren bilaketa edo zabalkunde guztiak, baldin produktu, prozesu edo zerbitzu berriak sortzeko edo nabarmen hobetzeko balio badezakete.

Garapentzat hartzen da ikerketa edo bestelako ezagupen zientifiko baten emaitzak gauzatzea proiektu teknikoetan, produktu, prozesu edo zerbitzuentzako eskema edo diseinuetan, berriak izan nahiz aldatuak edo hobetuak, saltzekoak nahiz erabiltzekoak, horien barnean dela merkaturatzerik gabeko prototipoak sortzea. Jarduera honen barnean egonen da, halaber, beste produktu, prozesu edo zerbitzuen formulazio kontzeptuala eta diseinua egitea, bai eta hasierako erakustaldiak egiteko proiektuak edo proiektu pilotuak ere, betiere baldin produktu horiek ezin bihurtu edo erabili badira aplikazio industrialetarako edo merkaturatuak ustiatzeko.

Ikerketa eta garapen jardueratzat hartzen da “software” aurreratua pentsatzea, sortzea, konbinatzea eta konfiguratzea teorema eta algoritmo berrien edo sistema eragileen, lengoaien, interfazeen eta produktuen, negozio-prozesuen edo zerbitzu berrien edo nabarmen hobetuen elaboraziora bideratutako aplikazioen bidez, baldin eta aurrerapen zientifiko edo teknologiko esanguratsua badakar eta ziurgabetasun zientifiko edo tekniko bat sistematikoki konpontzeko helburua badu.

Desgaitasuna duten pertsonen informazioaren gizarteko zerbitzuetarako sarbidea errazteko softwarea ere kontzeptu horretan sartuko da, irabazi-asmorik gabe egiten denean.

Ez dira sartzen, ordea, softwarearen mantentze-lanekin edo haren eguneratzeekin zerikusia duten ohiko jarduerak edo errutinazkoak.

3. Aurreko apartatuan sartzen ez diren berrikuntza teknologikoko jardueretan arituz gero, eskubidea izanen da kasuan kasuko zergaldian izandako gastuen 100eko 15eko kenkaria egiteko kuota likidoan, apartatu honetan ezarritako baldintzetan.

Aurreko paragrafoan ezarritako kenkaria ehuneko bost handituko da, baldin eta proiektuak gauzatzeko enkargua egiten bazaie Espainian edo Europar Batasuneko edo Europako Esparru Ekonomikoko edozein estatu kidetan dauden unibertsitatei, ikerketa-organismo publikoei edo teknologia-zentro eta berrikuntza teknologikolari laguntzeko zentroi, bai eta Nafarroako I+G+b Sistemaren (SINA) betearazpen-eragile gisa egiaztatutako enpresa-arloko I+G+b-ko unitateekin kontratatutakoak ere, Zientzia eta Teknologiar buruzko ekainaren 27ko 15/2018 Foru Legean jasotakoak. d) letran jasotako kasuan ere igoera hori aplikatuko da.

Berritasun teknologikotzat jotzen da produktu edo produkzio prozesu berriak edo lehengo hobekuntza teknologiko nabarmenak lortzea emaitza duen jarduera.

Berrizat edo hobetuztat joko dira lehengo produktu edo prozesuen aldean mamizko ezaugarri edo aplikazio teknologiko diferentek ageri dituzten ondasunak, zerbitzuak edo negozio-prozesuak.

Jarduera honetan sartuko da produktu edo prozesu berriak plano, eskema edo diseinu batean gauzatea, eta bai merkaturatzerik gabeko prototipoak eta hasierako erakustaldiak egiteko proiektuak edo proiektu pilotuak eta zenbait industriatako erakusgaiak, hala nola animazio eta bideojokoetakoak, oihalgintza eta zapatagintzakoak, larrua ontzekoak, larrukigintzakoak, jostailugintzakoak, altzarigintzakoak eta zuraren industriako erakusgaiak, eta are aplikazio industrialetarako edo merkaturuan ustiatzeko bihurtu edo erabili ahal direnak ere.

Kenkariaren oinarria finkatzeko, berrikuntza teknologikoko jardueretan kontzeptu hauetan zergaldian egindako gastuak hartuko dira:

a) Diagnostiko teknologikoko jarduerak, konponbide teknologiko aurreratuak identifikatu,

zehaztu eta orientatzera bideratuak, zeinahi delarik azkeneko emaitza.

b) Softwarearen ingeniariak, diseinu industriala edo produkzio prozesuen edo prozesuaren ingeniariak, horien barnean dela plano, marrazki edo euskarriak itxuratzea, produktu edo prozesu bat fabrikatu, saiatu, instalatu eta erabiltzeko eta zenbait industriatako erakusgaiak, hala nola oihalgintza eta zapatagintzakoak, larrua ontzekoak, larrukigintzakoak, jostailugintzakoak, altzarigintzakoak eta zuraren industriako erakusgaiak egiteko behar diren deskripzio elementuak, zehaztapan teknikoak eta funtzionamendu ezauzgarriak definitzekoak.

c) Teknologia aurreratua eskuratzea, patente, lizentzia, "know-how" eda diseinuen bidez. Zergadunari lotutako pertsona edo entitateei ordaindutako diru-kopuruak ez dute kenkaria egiteko eskubiderik emanen. Kontzeptu honi dagokion oinarria ezin izanen da milioi bat eurotik gorakoa izan urtean.

d) Berrikuntzaren kudeaketari lotutako arauak betetzen direla egiaztatuzko ziurtagiriak lortzea (ISO 56002, UNE166000 edo antzekoak), baina arau horiek ezartzeko gastuak sartu gabe.

e) Ezagutzako Zerbitzu Intentsiboak hirugarrenei kontratatzea. Zerbitzu hauek definitzeko Nafarroako Gobernuak horretarako emandako araudia hartuko da erreferentzia gisa, Ikerketa, Garapenen eta Berrikuntzaren arloko eskumena duen departamentuak lehiakortasuna hobetzeko dirulaguntzen deialdiaren esparruan".

Zazpi. 62.4 artikulua, bigarren paragrafoa, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin

"Aurrekoa gorabehera, proiektuaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak ezin izanen du aplikatu, kuota-terminoetan, proiektua finantzatzeko ordaindu dituen diru-kopuruak bider 1,20 egitearen biderkadurari dagokion zenbatekotik gorako kenkaririk. Gaindikina ikerketa, garapen edo berrikuntza teknologikoko proiektua egiten duen zergadunak aplikatzen ahalko du".

Zortzi. 64.A).2, 4.a)Laugarrena artikulua eta c) letra gehitzea 4. apartatuari, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

"2. Iturri berriztagarrietatik datorren energiatzat joko da iturri ez-fosiletatik datorren energia; hau da, haize-energia, eguzki-energia (termikoa eta fotovoltaikoa), energia geotermikoa, giro-energia, marea-energia, olatu-energia eta bestelako energia ozeanikoak, energia hidraulikoak, eta biomasa-

tik, zabortegietako gasetatik, araztegietako gasetatik eta biogasetik datorrena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko abenduaren 11ko 2018/2001 Zuzentarauan definitzen diren moduan.

Bereziki, iturri berriztagarrietatik datorren energiatzat joko da hidrogeno berriztagarria, hots, aurreko paragrafoan aipatutako iturri ez-fosiletatik lortutako hidrogenoa”.

“4. Autokontsumo partekatuko proiektu batean egindako inbertsioa edo energia-komunitate baten inbertsioa bada, kenkariaren ehunekoa 5 puntu gehituko da”.

“c) Erabilera termikoetarako instalazioetan egiten diren inbertsioen kasuan, gasaren ordezkari hidrogeno berriztagarria erabiltzen bada, kenkariaren ehunekoa 15 puntu igoko da gehienez, hidrogeno berriztagarria erabiltzen den heinean”.

Bederatzi. 64.B)1.a)artikulua, lehenengo paragrafoa eta 1. eta 2. ordinalak.

“a) Entitatearen jarduera ekonomikoari atxikitako ibilgailu berrietan egindako inbertsioek eskubidea emanen dute 100eko 30eko kenkaria egiteko, baldin eta ibilgailu elektrikoak badira, eta 100eko 5eko kenkaria, berriz, ibilgailu hibrido entxufagarriak badira, baldin eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko maiatzaren 30eko 2018/585 (EB) Erregelamenduan eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013ko urtarrilaren 15eko 168/2013 (EB) Erregelamenduan zehaztutako kategoria hauetakoren batekoak badira:

Lehenengo a) M1 turismoak: Gehienbat bidaiariak eta haien bagajea garraiatzeko diseinatu eta fabrikatutako ibilgailu motordunak, gidariarenaz gain gehienez zortzi eserleku dituztenak, zutik doazen bidaiarientzako tokirik gabe. Berdin dio eserleku bakarra duen, gidariarena alegia, edo gehiago.

Bigarrena) N1 furgonetak edo kamioi arinak: Gehienbat salgaiak garraiatzeko diseinatu eta fabrikatutako ibilgailu motordunak, 3,5 tonara arteko gehieneko masa dutenak”.

Hamar. 64 bis artikulua gehitzea, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

“64 bis artikulua. Kenkaria, garapen jasangarriko eta ingurumena babesteko eta hobetzeko proiektuei atxikitako ibilgetu material berrian egindako inbertsioengatik.

1. Garapen jasangarrirako eta ingurumena babesteko eta hobetzeko proiektuak gauzatzeko

beharrezkoak diren ibilgetu materialaren elementu berrietan egiten diren inbertsioek eskubidea emanen dute inbertsio horien zenbatekoaren 100eko 15eko kenkaria egiteko kuota likidoan.

2. Proiektuek honako jarduera hauetakoren bat edo batzuk izan beharko dituzte xede:

a) Beste enpresa batzuek sortutako haize-energiako, energia fotovoltaiakoko eta baterietako osagaiak berrerrabiltzea eta birziklatzea.

b) Hidrogeno berriztagarria ekoiztea.

c) Hidrogeno berriztagarriaren balio-kateko osagaiak fabrikatzea.

3. Kenkariaren oinarria Europako Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduan arabera diruz lagundu daitezkeen kostutzat hartzen diren inbertsioen zenbatekoak zehaztuko du. Erregelamendu horren bidez, laguntza-kategoria jakin batzuk barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dira, Tratatuaren 107. eta 108. artikuluek aplikatuz.

Inbertsioa zer egunetan jartzen den abian, egun horrek adieraziko du kenkaria egiteko eskubidea noiz sortzen den.

Energiaren arloko eskumena duen Nafarroako Gobernuko organoak txostena emanen du, honako hauek egiaztatzeko: 2. apartatuan adierazitakoetatik zer proiektu motari zuzentzen zaizkion inbertsioak, kenkariaren oinarria eta abian jartzeko data.

4. Kenkariaren zenbatekoa ez da 15 milioi eurotik gorakoa izanen proiektu eta enpresa bakoitzeko.

5. Artikulu honetan araututako kenkariaren zenbatekoak, zergadunak proiektu bakoitzeko jasotako gainerako laguntza publikoekin batera, ezin izanen ditu muga hauek gainditu:

a) 2.a) apartatuan jasotako jardueraren bat xede duten proiektuen kasuan, kostu diruz lagungarrien ehuneko 35; kostu horiek Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamenduan 47.7 artikuluan aurreikusitakoaren arabera zehaztuko dira.

b) 2. apartatuko b) eta c) letretan adierazitako jardueraren bat xede duten proiektuen kasuan:

1. Diruz lagundu daitezkeen kostuen ehuneko 45, baldin eta Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamenduan 41.6.a) edo b) artikuluan aurreikusitakoaren arabera zehazten badira.

2. Diruz lagundu daitezkeen kostuen ehuneko 30, baldin eta Batzordearen 651/2014 (EB) Erre-

gelamenduaren 41.6.c) artikuluan aurreikusitakoaren arabera zehazten badira.

6. Kenkariaz baliatzeko, ibilgetuaren barnean kontabilizatu beharko dira egindako inbertsioak, gaineko ondare elementuetatik bereizita eta haien identifikaziorako bidea emanen duen epigrafe baten pean. Era berean, inbertsio horiek zergadunaren ondarean egon beharko dute gutxienez bost urtez, edo, bizitza baliagarria laburragoa balitz, haren bizitza baliagarrian, eskualdatu edo laga gabe.

Finantza-errentamenduko kontratuen bidez egindako inbertsioak onartuko dira, nahiz eta, kontabilitate arauak aplikatzeagatik, inbertsio horiek ez kontabilizatu ibilgetu gisa.

7. Artikulu honetan ezarritako baldintzak ez betetzeak, finantza-errentamenduko kontratuetan erosteko aukera ez erabiltzea barne, egindako kenkaria galtzea ekarriko du, eta 76.3 artikuluan ezarritakoa aplikatu beharko da”.

Hamaika. 65.3. artikulua, lehen paragrafoa.

“3. Artikulu honetan arautzen diren kenkarien zenbatekoa, zergadunak ekoizpen bakoitzarengatik jasotako gainerako laguntzak gehituta, ez da kostu diruz lagungarrien ehuneko 50 baino handiagoa izanen. Halere, muga hori honela handituko da kasu hauetan.”

Hamabi. 65 bis.5 artikulua, bigarren paragrafoa, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin

“Aurrekoa gorabehera, ekoizpenaren finantzaketan parte hartzen duen zergadunak ezin izanen du aplikatu, kuota-terminoetan, ekoizpena finantzatzeko ordaindu dituen diru-kopuruak bider 1,20 egitearen biderkadurari dagokion zenbatekotik gorako kenkaririk. Ekoizleak gainkina aplikatzen ahalko du”.

Hamahiru. 65 ter artikulua gehitzea, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin

“65. ter artikulua. Kenkaria arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunetan inbertsioak egiteagatik.

1. Arte eszenikoen eta musikalen zuzeneko ikuskizunen ekoizpenean eta erakusketan egindako gastuek ehuneko 30eko kenkaria izanen dute kuota likidoan.

Ehuneko 40ko kenkaria aplikatuko da nazioarteko bira baten parte den ikuskizuna bada.

Kenkariaren oinarria jarduera horietan sortutako zuzeneko kostuek (artistikoak, teknikoak eta sustapenaren arlokoak) osatuko dute.

Zergaldi bakoitzean sortutako kenkaria ezin izanen da izan 500.000 eurotik gorakoa zergadun bakoitzeko.

2. Kenkari hau aplikatu ahal izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

a) Zergadunak Arte Eszenikoen eta Musikaren Institutu Nazionalaren ziurtagiri bat lortu izana, horretarako, ministro-agindu bidez ezartzen diren baldintzetan.

b) Kenkarirako eskubidea sortzen den zergaldian jarduera horiek garatzean lortutako etekinetatik, zergadunak gutxienez ehuneko 50 erabiltzea apartatu honetan aurreikusitako kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen duten jarduerak egiteko. Betebehar hori betetzeko epea etekin horiek lortu diren zergaldiaren hasieratik zergaldi hori itxi ondorengo 4 urteetara bitartekoa izanen da.

Kenkariaren zenbatekoak, zergadunak jasotako dirulaguntzekin batera, ezin izanen du gainditu gastu horien ehuneko 80ko muga”.

Hamalau. VI. tituluko IV. kapituluko 3. atala, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

“3. atala. Beste pizgarri batzuk

66 artikulua. Kenkaria, enpresen gizarte aurreikuspeneko sistemetarako enpresa-ekarpenengatik.

Subjektu pasiboak ehuneko 10eko kenkaria egiten ahalko du urteko 27.000 eurotik beherako ordainsari gordinak dituzten langileen alde egoztitako enpresa-ekarpenen kuota likidoan, baldin eta ekarpen horiek egiten badira enpleguko pentsio planetan, enpresen gizarte aurreikuspeneko planetan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentarauan araututako pentsio planetan (zuzentarau hori enpleguko pentsio funtsen jardueri eta gainbegiratzeari buruzkoa da), edo subjektu pasiboa sustatzaile den gizarte aurreikuspeneko tresna gisa jarduten duten gizarte aurreikuspeneko mutualitateetan.

27.000 euroko edo gehiagoko urteko ordainsari gordinak dituzten langileen kasuan, zenbateko horri dagozkion enpresa-ekarpenen zati proporzionalaren gainean aplikatuko da kenkaria.

Ez da kenkaria aplikatuko langileak langile autonomoen araubide berezian alta emanda daudenean eta zergadunak kotizazioa osatzen duene-

an aurreko paragrafoan aipatutako gizarte aurreikuspeneko edozein sistemataraz egindako ekarpenekin, zenbateko horien baturak Gizarte Segurantzako araubide orokorrean legokiokeen kotizazioa gainditzeko duenean izan ezik; halakoetan, azken hori gainditzeko duen zenbatekoaren arabera kerkaria aplikatzen ahalko da”.

Hamabost. 67.4 artikulua, lehen paragrafoa, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

“4. 58., 64.B) eta 66. artikuluetan aurreikusitako kerkariak ezin izanen dute osotara gaintzitu kuota likidoaren ehuneko 25, jarduera hasi arte 58. artikuluan araututakoa izan ezik, horrek kuota likido osoa hartu baitezake”.

Hamasei. 87.1.b) artikulua, azken paragrafoa, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

“Aurrekoa gorabehera, kontabilitate irizpideen arabera bazkideek interes ekonomikoko taldeei egiten dizkieten ekarpenak ezaugarri berezidun ondare-tresnatzat kalifikatu behar direnean, likidazio-oinarri negatiboan eta kuotako kerkarien oinarri egizpenen osotasunak ezin izanen du ekarri bazkidearen kuota efektiboa honako biderkadura hau baino neurri handiagoan txikiagotzea: entitatearen kapitalari egin dizkion ekarpenen zenbateko ordaindua bider 1,20”.

Hamazazpi. 92.2.b) artikulua, lehen paragrafoa, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

“b) Etxebizitzek errentamenduan edo errentamendurako eskainiak bost urtez irautea gutxienez. Epe hori honela zenbatuko da:”

Hemezortzi. 93.1 artikulua, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

“1. Laurogeita hamabigarren artikuluko baldintzak betetzen dituzten etxebizitzaren errentamendutik sortutako errentei kuota osotik dagokien partearen ehuneko 40ko hobaria izanen du.

Hobari hori ehuneko 85ekoa izanen da honako hauen errentamendutik datozen errentak direnean:

a) Alokairu Sistema Publikoari atxikitako etxebizitzak. Sistema hori jasota dago Nafarroako Etxebizitzarako Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legearen bederatzigarren xedapen gehigarrian.

b) Nafarroan etxebizitza izateko eskubideari buruzko 10/2010 Foru Legearen hogeita batgarren

xedapen gehigarriari eta Nafarroan etxebizitzaren arloko jarduketa babesgarriak arautzen dituen irailaren 18ko 61/2013 Foru Dekretuaren bigarren xedapen iragankorrari iraganean atxikitako etxebizitzak.

c) Desgaitasuna duten pertsonak etxebizitzak errentamenduan hartzetik eratorritako errentak direnean, baldin eginak badira, haietan, irisgarritasunerako eta komunikazio sentsorialerako beharrezkoak diren egokitzapen-obra eta -instalazioak, desgaitasuna duten pertsonak duintasun eta egokitasunez molda daitezela erraztekoak. Administrazio eskudunak ziurtatu egin beharko ditu obra eta instalazio horiek. Errentariak desgaitasuna frogatu beharko du pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergari buruzko araudian aurreikusitako moduan”.

Hemeretzi. Hirugarren xedapen gehigarria, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

“Hirugarren xedapen gehigarria. Ekintzaitzari laguntzeko neurriak

1. Ekintzaileak dira enpresa edo lanbide jarduera bat egiten duten pertsona fisikoak eta entitateak, nortasun juridikoa izan ala ez, jarduera hori betetzen duten lehen bost zergaldietan, baldin eta ondokoa betetzen badute:

a) Enpresa txikiaren izatea.

b) Altan emanda egotea jarduera ekonomikoaren gaineko zergan, ekintzaitzari laguntzeko neurriak jasotzeko moduan dauden zergaldietan, etenik gabe.

c) Entitateak badira, ez kotizatzea merkatu arautu batean eta ez banatzea edo banatu izana dibidendurik.

2. Honako hauek ez dira ekintzaitzat hartuko:

a) Ondasunen edo zerbitzuen ehuneko 75etik gora pertsona fisiko edo entitate bakar bati ematen dioten pertsona fisikoak edo entitateak, eta ekonomikoki mendekoa den langile autonomotzat joak dauden pertsona fisikoak, Lan Autonomoaren Estatutuari buruzko uztailaren 11ko 20/2007 Legearen II. tituluko III. kapituluan xedatutakoari jarraituz.

b) Pertsona fisikoak, baldin eta hasten badira lehenago, aurreko 5 urtean, edozein unetan, beraiek, beren ezkontideek, aurreko edo ondorengo ahaideek, edo haien partaidetza duten errentak eratxikitzeko araubideko entitateak, edo sozietateen gaineko zergaren zergadunak diren entitateak (haietan ehuneko 25eko partaidetza edo handiagoa badute) egin duten jarduera batean.

c) Entitateak, baldin eta hasten badira lehena-go, aurreko 5 urtean, edozein unetan, beraiek, edo beste entitate batek, zeinarekin kapitalaren titulatasunaren ehuneko 50 baino gehiagotan berdina baita, ehuneko 25eko partaidetza edo handiagoa duen bazkideren batek edo sozietateen talde bereko edozein entitatek (Merkataritzari buruzko Kodearen 42. artikuluan xedatutakoarekin bat) egin duten jarduera batean, kontuan hartu gabe entitateen egoitza eta urteko kontu kontsolidatuak egin beharra.

Enpresa oinordetza, jarraipena edo berregituratzea egiten bada, jarduera bete zuen lehenbiziko pertsonak edo entitateak jarduera hasi zuenetik aurrera kontatuko da 5 zergaldiko epea.

Jardueraren hasiera izanen da pertsona fisikoak edo entitateak jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta eman behar duen unea, zerga horri buruzko arauarekin bat.

3. Pertsona edo entitate ekintzaileen onura fiskalak:

a) Ez dute izanen pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren konturako ordainketa zatikatua egin beharra.

b) Zerga Administrazioak baimena emanen du, aldez aurreko eskaera eginik, bermerik aurkeztu behar izan gabe eta berandutze-interesa sortu gabe, bai sozietateen gaineko zergan bai pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergan, enpresa edo lanbide jarduera dela-eta sartu beharreko kuota geroratzeko. Geroratuko kuotaren sarrera zergaldi bakoitzeko aitorten-likidazioa aurkezteko epea bukatzen den egunetik hasi eta hamabi hilabeteko epean egin beharko da.

c) Zerga Administrazioak baimena emanen du, aldez aurreko eskaera eginik, bermerik aurkeztu behar izan gabe eta berandutze-interesa sortu gabe, beren langileei pertsona fisikoaren errentaren gaineko zergan egindako konturako atxikipe-nak geroratzeko. Geroratutako kopuruen sarrera hurrengo urteko otsaileko azken eguna baino lehen egin beharko da.

d) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek ehuneko 30 murriz dezakete beren enpresa edo lanbide jardueraren etekin garbia positiboa den lehen eta bigarren zergaldietan, baldin eta zergaldi horiek 5 urteko epearen barnean badaude jarduera hasi zenetik aurrera. Murriztapen hori aplikatzeko, zuzeneko zenbatespenaren araubidean zehaztu behar da enpresa edo lanbide jardueraren etekin garbia.

e) Sozietateen gaineko zergaren zergadunek ehuneko 30 murriz dezakete zerga-oinarria positi-

boa den lehen eta bigarren zergaldietan, baldin eta zergaldi horiek 5 urteko epearen barnean badaude jarduera hasi zenetik aurrera. Jarduera ekonomiko bat garatzen heldu den zerga-oinarriaren zatiari baino ez zaio aplikatuko murriztapen hori.

f) 58. artikuluko kenkaria aplika dezakete, nahiz eta 59.b) artikulua aipatzen duen baldintza ez bete.

g) Jarduera berritzaile bat egiten badute edo bereziki sustatu gogo den sektore batekoa edo espezializazio adimentsukoa:

1) 58. artikuluko kenkaria aplika dezakete, ehuneko 5 puntu gehituta.

2) 78.2.2 artikuluan aipatzen diren ikerketa-, garapen- eta berrikuntza-jarduerak egiteagatiko kenkari espezifikoki dagokion itzulketaren muga 100.000 euro handituko da.

4. Entitate ekintzaileetan inbertitzen duten pertsonen edo entitateen onura fiskalak.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren zergadunek eta sozietateen gaineko zergari lotutako zergadunek ehuneko 25eko kenkaria egiten ahalko dute entitate ekintzaileak eratu edo haien kapitala handitzetik heldu diren akzioen edo partaidetzen harpidetza egitean ordaintzen duten diru kopuruan, baldintza hauek betetzen badira:

a) Inbertsioa jasotzen duen entitateak Nafarroako foru araudia aplikatu behar du sozietateen gaineko zergan.

b) Pertsona fisikoa den zergadunaren partaidetza ezin da izan, zergaldiaren egun bakar batean ere, inbertsioaren xedeko sozietatearen kapital sozialaren edo boto-eskubideen ehuneko 40tik gorakoa. Horretarako, kontuan hartuko da, orobat, subjektu pasiboaren ezkontidearen partaidetza eta haren odol edo ezkontza bidezko zuzeneko edo alboko ahaideena, hirugarren mailara arte, horiek barne. Partaidetzaren muga hori hiru urtez bete beharko da gutxienez, sozietatea eratzeko edo kapitala handitzeko erabakiak eragina hartzen duen egunetik aurrera.

c) Zergadunaren partaidetza, hura pertsona juridikoa denean, bere talde berean dauden gainerako sozietateen partaidetzarekin batuta (Merkataritzari buruzko Kodearen 42. artikuluan zentzuan), kontuan hartu gabe entitateen egoitza eta urteko kontu kontsolidatuak egin beharra, ezin da inbertsioaren xedeko sozietatearen boto-eskubideen edo kapital sozialaren ehuneko 40tik gorakoa zergaldiko ezein egunetan. Partaidetzaren muga hori hiru urtez bete beharko da gutxienez,

sozietatea eratzeko edo kapitala handitzeko erabakiak eragina hartzen duen egunetik aurrera.

d) Zergadunak, pertsona fisikoa bada, parte har dezake bere inbertsioa hartu duen sozietatearen administrazio kontseiluan, baina ezin du inola ere hango betearazpen edo zuzendaritza eginkizunik bereganatu. Laneko edo lanbideko harremanik ere ezin du izan entitatearekin inbertsioaren aldian eta hurrengo bietan.

e) Zergadunaren ondarean mantendu behar dira akzioak edo partaidetzak, gutxienez 3 urteko epean. Epe horretan, entitateak jarraitu behar du jarduera ekonomiko bat gauzatzen.

f) Kenkari hori aplikatzeko, Zerga Administrazioak aldez aurretik egiaztatu behar du aurreko baldintzak betetzen direla eta, inbertsioa zer entitatetan egiten den, horrexek erregistraturik egon behar du 6. apartatuak araututako pertsona edo entitate ekintzaileen erregistroan. Erregistroan inskribatzen den egunetik aurrera eta egun horren aurreko 6 hilabetean egindako inbertsioek izanen dezakete kenkaria.

Harpidetutako akzioak edo partaidetzak bada gozkie jarduera berritzaile bat egiten duten entitateei edo bereziki sustatu gogo den sektore bateko edo espezializazio adimentsuko entitateei, kenkaria izanen da egindako diru-ekarpenaren zenbatekoaren ehuneko 35ekoa.

Kenkariaren gehieneko zenbatekoa 50.000 eurokoa izango da zergaldiko. Zenbateko hori 100.000 eurokoa izatera pasako da, inbertsioa zer entitatetan egiten den, horrexek jarduera berritzaile bat egiten badu, edo bereziki sustatu gogo den sektore batean sartuta badago, edo espezializazio adimentsukoa bada. Kuota aski ez izateagatik kenkaririk gabeko zenbatekoak kenkaria izan dezake hurrengo 15 zergaldietan.

5. Zer den jarduera berritzailea edo bereziki sustatu gogo den sektore batekoa edo espezializazio adimentsukoa.

Jarduera berritzaileztat edo bereziki sustatu gogo den sektore batekotzat edo espezializazio adimentsukotzat joko da garapen ekonomikoaren arloko eskumena duen departamentuan halakotzat jotzen dena.

6. Pertsona edo entitate ekintzaileen erregistroa.

Xedapen honetan zehazten diren onura fiskalak aplikatzeko, zergadunek pertsona edo entitate ekintzaileen erregistroan inskribatzeko eskaera egin beharko dute.

Erregistroko inskripzioa jarduera hasten deneetik aurrera egin daiteke.

Erregistroan inskripzioa egiten den egunetik aurrera aplika daitezke onura fiskalak, eta gehienez ere 5 zergalditan, jarduera hasten den egunetik aurrera.

7. Ezin izanen dute araubide honetako onura fiskalik eskuratu pertsona edo erakunde ekintzaileek, beraiek edo bitarteko pertsona batek sortu edo zuzendutakoek, tributu-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ez badituzte, eta epai irmo bidez kondena jaso badute administrazio desleialaren, zigortzeko moduko kaudimengabeziaren, sozietate-delituen, kapitalak zuritzearen eta terrorismoa finantzatzaren delituengatik, Ogasun Publikoaren eta Gizarte Segurantzaren aurkako delituengatik, prebarikazio, funtzionario-eroskeria, influentzia-trafiko, ondasun publikoak bidegabe erabiltzearen, iruzurren eta legearen aurkako ordainarazpenen delituengatik edo hirigintza-delituengatik, bai eta dirulaguntzak edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzeko zigorra jasotakoek ere. Administrazioarekin kontratatzeko aukera galdu dutenek ere ezin izanen dituzte baliatu onura hauek.

8. Ez-betetzeak.

Xedapen honetan eskatzen diren baldintzak bete beharko dira araubide honen onura fiskalak izateko eskubideaz baliatzeko.

Aurreko apartatuetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez bada edo erregistroetako datuak zuzenak ez direla edo faltsuak direla egiaztatzen bada, hori aski izanen da erregistroko inskripzioa ukatzeko edo, zergadunak jadanik inskribatuta baldin badaude, erregistro horretatik baztertzeko.

Ez-betetze horrek ekarriko du izandako onura fiskalak galtzea. Izandako onura 3. apartatuko b) eta c) letretan zehaztutako geroratzeetako edozein denean, pertsona edo entitate ekintzaileak ordaindu beharko du, hilabeteko epean ez-betetzea gertatzen denetik aurrera, geroratutako zenbatekoa, gehi bidezko berandutze-interesak. Gainerako kasuetan, pertsona edo entitate ekintzaileak ordaindu beharko du, ez-betetzea gertatzen den zergaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo sozietateen gaineko zergaren kuotarekin batera, gaizki aplikatutako kenkariari edo murriztapenari dagokion kuota osoa, gehi berandutze-interesak.

4. apartatuan ezarritako baldintzetako edozein ez-betetzeak ekarriko du, inbertsioa egin duen pertsonarentzat edo entitatearentzat, egindako kenkarirako eskubidea galtzea. Hortaz, ez-bete-

tzea gertatzen den zergaldiko pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren edo sozietateen gaineko zergaren kuotarekin batera, gaizki aplikatutako kenkariari dagokion kuota osoa ordaindu beharko du, gehi berandutze-interesak.

9. Zerga arloko eskumena duen departamentuko titularrari gaikuntza ematen zaio beharrezko xedapenak eman ditzan xedapen hau garatzeko.

Zehazki, gaikuntza ematen zaio pertsona edo entitate ekintzaileen erregistroa eta horretan inskripzioa egiteko prozedura arautzeko”.

Hogei. Hamazazpigarren xedapen gehigarria, errubrika.

“Hamazazpigarren xedapen gehigarria. 2023an hasten diren zergaldietan likidazio oinarri negatiboak murrizteko mugak”.

Laugarren artikulua. Oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren xedapenak biltzen dituen testuategina.

Abenduaren 16ko 250/2002 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren xedapenen testuategineko manu hauek testu hau izanen dute:

Bat. 3.2 artikulua.

“2. Zerga honetarako, adopzioa eta odolkidetasuna parekatu egiten dira. Era berean, ulertuko da adoptatuak eusten diola adopzioa eratu aurretik jatorrizko familiarekin zuen ahaidetasun-mailari”.

Bi. 34.1.d).b”) artikulua eta c”) azpiletra kentzea.

“b”) Eskuratzailleak ez besterentzea jarauntsitako etxebizitza eta etxebizitza hori haren ohiko bizilekua izatea, hura eskuratu eta hurrengo bost urteetan, salbu eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudian zehaztuta dauden salbuespenerako inguruabarretako bat gertatzen denean, etxebizitza ohiko bizileku gisa mantendu beharreko denborari dagokionez”.

Hiru. Bigarren xedapen gehigarria. 3, bigarren paragrafoa. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera gertatzen diren zerga-egitateetan izanen ditu ondorioak.

“Halaber, ulertuko da ehuneko 65 edo gehiagoko desgaitasun-gradua dutela mendekotasun-egoera bat edozein gradutan aitortua duten pertsonak”.

Lau. Bigarren xedapen iragankorra gehitzea. Egungo xedapen iragankor bakarra lehenengo xedapen iragankorra izanen da, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera gertatzen diren zerga-egitateetarako ondorioekin.

“Bigarren xedapen iragankorra. Epai bidez ezgaitutako pertsonak, 8/2021 Legeak indarra hartu aurretik emandako epaien bidez luzatu edo berriz gaitutako guraso-ahalaren menpe daudenak.

Ekainaren 2ko 8/2021 Legeak legeria zibila eta prozesala aldatzen du, desgaitasuna duten pertsonen beren gaitasun juridikoaz baliatzen laguntzeko; lege horren bosgarren xedapen iragankorra aplikatuz, mantentzen direnean epai bidez ezgaituta eta aipatu lege horrek indarra hartu aurretik emandako epaien ondorioz luzatu edo berriz gaitu den guraso-ahalaren menpe dauden pertsonen egoerak, foru lege honen bigarren xedapen gehigarria aplikatuko da, 2022ko abenduaren 31n indarra duten baldintzetan”.

Bosgarren artikulua. Ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren xedapenak biltzen dituen testuategina.

Apirilaren 26ko 129/1999 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako ondare eskualdaketen eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergari buruzko xedapenen testuateginaren manu hauek testu hau izanen dute:

Bat. 3.2.B) artikulua.

“B) Aitortutako eta konpentsatutako adjudikazio-soberakinak, salbu eta Kode Zibilaren 821. eta 829. artikuluetan, 1056. artikuluko bigarren paragrafoan eta 1062. artikuluko lehen paragrafoan xedatutakoa betetzetik eta oinarri berean funtsatutako foru zuzenbideko xedapenak betetzetik heldu direnak.

Kompentsatu gabeko adjudikazio-soberakinek tribututako dute, betiere, oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergaren arauen arabera”.

Bi. 8.1.b) artikulua.

“b) Aurreko letran xedatutakoaren salbuespen gisa, etxebizitzaren eskualdaketak, horien eranskin banaezinak barne, honela tribututako du:

1. 100eko 5eko tasa aplikatuko da, baldin eta ondoko baldintza hauek betetzen badira:

a) Eskuratzaillea bi seme-alaba edo gehiagoz osatutako familia-unitate bateko kide izatea.

b) Eskualdaketa onduz etxearen jabari osoa eskuratzeko, inoiz ere izan gabe lehenago usufuktuan eta jabetza soilean banaturiko jabariaren kontsolidazioaren ondorio.

c) Etxebizitza familia-unitatearen ohiko bizileku gisa erabiltzea.

d) Eskurapenaren unean, familia-unitateko ezin kide ez izatea Nafarroako Foru Komunitatean kokatutako beste etxebizitza baten 100eko 25en edo gehiagoren jabe.

Tasa murriztua gehienez ere 180.304 euroko zerga-oinarri bati aplikatuko zaio, eta bakarra izanen da familia-unitateko eta etxebizitzako.

Zerga-oinarri horrek kopuru hori gaintzen badu, 100eko 5eko tasa 180.304 eurori baizik ez zaie aplikatuko, eta hortik gorakoari, berriz, higiezin eskualdaketei dagokien tasa orokorra.

Zenbaki honen ondorioetarako, familia-unitatearen kontzeptua ulertuko da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren araudian ezarritako moduan.

2. 100eko 4ko tasa aplikatuko da, etxebizitza subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza denean eta despopulazio arriskuan dagoen udalerrri batean kokatuta dagoenean; toki administrazioaren eta despopulazioaren arloko eskumena duen departamentuko titularraren foru agindu bidez ezarriko da zein diren udalerrri horiek. Eskualdaketa formalizatzen duen agiri publikoan berariaz agertu beharko da ohiko etxebizitza gisa erabiliko dela.

b) letra honen ondorioetarako, ohiko etxebizitzaren kontzeptua ulertuko da pertsona fisikoan errentaren gaineko zergaren araudian definitutako moduan.

Erregelamenduz ezarriko da letra honetan ezarritako baldintzak ziurtatzeko zein agiri behar diren”.

Hiru. 35.I.B.26. artikulua, lehen paragrafoa.

“26. Mailegu eta kreditu hipotekarioen kontratuzko nobazioak formalizatzeko eskritura publikoak, egiten direnak martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-dekretuaren babesean –baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko presako neurriei buruzkoa– eta Jardunbide Egokien Kode berriaren babesean –zeina ezarri baitzen azaroaren 22ko 19/2022 Errege Lege-dekretuaren bitartez, zeinak ohiko etxebizitzaren gaineko hipoteka-mailegutan interes-tasen igoera samurtzeko Jardunbide Egokien Kode bat ezartzen baitu, baliabiderik gabeko zordun hipotekarioak babesteko presako neurriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege-dekretua aldatzen baitu eta hipoteka-maileguen merkaturia hobetzeko bestelako neurri egiturazkoak hartzen baititu–, salbuetsirik egonen dira egintza juridiko dokumentatuen modalitateko notario-agirien mailakako kuotatik”.

Lau. 35.I.B artikulua, 34. apartatua gehitzea.

“34. Emakumearen aurkako indarkeriaren ondorioz hildako emakumeen kasuan, indarkeria mota hori legeak edo Espainiak berretsitako nazioarteko tresnek definitzen duten moduan ulerturik, kalte-ordainak pagatzeko edozein tituluren bidez egindako ondasun edo eskubide eskualdaketak, judizialki aitortutako zenbatekoaren arabera, kalte-ordain horien onuradunak direnean hildako emakumeen kargura zeuden seme-alabak, tutoretzapeko adingabeak edo desgaitasuna duten eta beren gaitasun juridikoa gauzatzeko laguntza neurriak dituzten pertsonak”.

Seigarren artikulua. Saltoki handien gaineko zerga.

2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri

batzuk hartzeari buruzko abenduaren 27ko 30/2018 Foru Legearen hamaikagarren artikuluko hiru.4 apartatuari c) letra gehitzen zaio:

“c) Beste autonomia erkidego baten hiriburutik 15 kilometro baino gutxiagora kokatutako saltokiak, baldin eta beste autonomia erkidego horretan ez badago saltoki handien gaineko zergaren antzeko zergarik, nahiz eta merkataritza-eremu berean egon”.

Zazpigarren artikulua. Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko Foru Legea.

2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzko ekainaren 18ko 14/2018 Foru Legearen manu hauek testu hau izanen dute:

Bat. V. titulua, I. kapitulua.

“I. kapitulua. Hondakinak hondakindegietan uztearen eta hondakinen errausketaren eta koerrausketaren gaineko zerga.

29. artikulua. Zergaren ordainarazpena.

Foru Komunitateari dagokio hondakinak hondakindegietan uztearen eta hondakinen errausketaren eta koerrausketaren gaineko zergaren ordainarazpena, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 40 quater artikuluan ezarritakoaren arabera.

30. artikulua. Izaera eta helburua.

1. Hondakinak hondakindegietan uztearen eta hondakinen errausketaren eta koerrausketaren gaineko zerga zeharkako tributu bat da, izaera erreala eta estafiskala duena, eta ezartzen zaie Nafarroako Foru Komunitateko lurralde eremuan kokatutako hondakindegia eta errausketarako edo koerrausketarako instalazioetara, ezabatzeko edo balorizazio energetikoa egiteko, eramaten diren hondakinei.

Zergak eragindako diru-sarrerek lotura beraiazkoa duen aurrekontu-partida bat osatuko dute hurrengo urteko Nafarroako Aurrekontu Orokorretan, “Hondakinen Funtsa” izenekoa.

Zergaren ondorioz biltzen den dirua foru lege honetan aurreikusitako helburuetarako baizik ez da erabiliko.

2. Haren helburua da hondakinak ekiditea, berrerabiltzeko prestatzea eta birziklatzea, zati organikoa lehentasunezko zatitzat hartuta, baita ingurumen-hezkuntza ere, bultzatu nahi baita gutxiago erabil daitezzen hondakindegia eta hondakinen errausketa eta koerrausketa.

31. artikulua. Kontzeptuak eta definizioak.

1. Zerga honen ondorioetarako, honako definizio hauek hartuko dira aintzat:

a) Hondakinen koerusketarako instalazioa: definitzen da Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzeko eta industria isuriei buruzko Erregelamenduko 2.15 artikuluan ezarritakoaren arabera. Urriaren 18ko 815/2013 Errege Dekretuaren bidez onetsi zen aipatu erregelamendua.

b) Hondakinen errausketarako instalazioa: definitzen da 16/2002 Legea garatzeko eta industria isuriei buruzko Erregelamenduko 2.18 artikuluan ezarritakoaren arabera.

c) D10 eragiketa gisa kodetutako udal hondakinen errausketarako instalazioa: udal hondakinak eta udal hondakinen errefusak errausteko instalazioa, ez dituen gainditzien Ekonomia zirkularrerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen II. eranskinean ezarritako atalaseak.

d) R01 eragiketa gisa kodetutako udal hondakinen errausketarako instalazioa: udal hondakinak eta udal hondakinen errefusak errausteko instalazioa, gainditzien dituen apirilaren 8ko 7/2022 Legearen II. eranskinean ezarritako atalaseak.

e) Kudeaketa bulegoa: hondakinak hondakindegietan uztearen eta hondakinen errausketaren eta koerusketaren gaineko zerga kudeatzeko eskumena duen organoa, Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren edo kasuan kasuko autonomia erkidegokoaren egitura organikoari buruzko araudiaren arabera.

f) Udal hondakinen errefusak: udal hondakinen tratamendutik ateratzen diren hondakinak, aipatzen direnak uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren IV. eranskineko 1. ataleko d), e) eta g) letretan. Errefustzat hartzen dira udal hondakinetatik eratorritako erregaiak eta berreskuratutako erregai solidoak.

g) Hondakinak: apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 2.a) artikuluan definitzen direnak, lege beraren 3.2 eta 3.3 artikuluetan ezarritako salbuespenekin.

h) Hondakin geldoak: uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren 2.a) artikuluan definitutako hondakinak.

i) Udal hondakinak: apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 2.av) artikuluan definitutako hondakinak.

j) Hondakindegia: hondakinak ezabatzeko instalazioa, haiek lur gainean edo lurpean utzita. Apirilaren 8ko 7/2022 Legearen III. eranskinean D01,

D05 eta D12 gisa kodetutako eragiketak egiteko baimendutako instalazioak sartzen dira.

2. Kapitulu honetan agertzen diren eta substantibitate propioa duten kontzeptuei eta terminoei dagokienez, kapitulu honetan definitzen direnak salbu, zerga honen xedeko esparruan sartzen diren produktuei buruz Europar Batasuneko eta Estatuko araudian xedatzen dena bete beharko da.

32. artikulua. Zerga-egitatea.

Honako hau da zergaren zerga-egitatea:

1. Hondakinak entregatzea, haiek ezabatzeko, Nafarroako Foru Komunitatean dauden hondakin-degi baimenduetan, titulartasun publikoa zein pribatua dutenetan.

2. Hondakinak entregatzea, haiek ezabatzeko edo balorizazio energetikoa egiteko, Nafarroako Foru Komunitatean hondakinen errausketarako dauden instalazio baimenduetan, titulartasun publikoa zein pribatua dutenetan.

3. Hondakinak entregatzea, haiek ezabatzeko edo balorizazio energetikoa egiteko, Nafarroako Foru Komunitatean hondakinen koerusketarako dauden instalazio baimenduetan, titulartasun publikoa zein pribatua dutenetan.

33. artikulua. Salbuespenak.

Honako jarduera hauek zergaren aplikaziotik salbuetsita daude:

1. Hondakinak entregatzea hondakindegietan edo hondakinen errausketarako edo koerusketarako instalazioetan, baldin eta agintari publikoek agindu badute ezinbesteko kasuetan, premia larriko egoeretan edo hondamendietan, edota suntsitu beharreko konfiskatutako ondasunak badira.

2. Hondakinak entregatzea hondakindegietan edo hondakinen errausketarako edo koerusketarako instalazioetan, baldin eta hondakin horiek, beren aldetik, sortu badira zerga hau benetan ordaindu duten zergapeko beste eragiketa batzuetatik.

3. Hondakinak entregatzea hondakindegietan edo hondakinen errausketarako edo koerusketarako instalazioetan, baldin eta legez nahitaezkoa bada hondakin horiek gisa horretako instalazioetan ezabatzea.

4. Administrazioek lurzoruen deskontaminaziotik datozen hondakinak hondakindegietan entregatzea, baldin eta ezin izan badira tokian bertan tratatu 9/2005 Errege Dekretuaren 7.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, administrazioak subsidia-rioki aritzen direnean, zuzenean edo zeharka, lur-

zoruak kutsatuak deskontaminatzeko jarduketan, eta horiek legez deklaratu badira interes orokorreko jarduketa.

5. Hondakin geldoak entregatzea hondakindegietan, baldin eta hondakin horiek egokiak badira bertan leheneratze, egokitze edo betetze lanak egiteko, edota eraikuntzarako.

6. Hondakinak entregatzea hondakindegietan edo hondakinen errausketarako edo koerrausketarako instalazioetan, baldin eta hondakin horiek sortu badira udal hondakinen errefusenak ez diren tratamendu eragiketetatik, eta etorri badira tarteko tratamenduko eragiketak ez diren balorizazio eragiketak egiten dituzten instalazioetatik.

34. artikulua. Subjektu pasiboak: zergadunak eta ordezkioak.

1. Subjektu pasiboak dira, zergadun gisa, hondakinak hondakindegian ezabatzeko edo errausteko edo koerrauszteko entregatzen dituztenak. Izaten ahal dira pertsona fisikoak edo juridikoak edo Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 25. artikuluan aipatzen diren nortasun juridikorik gabeko entitateak.

Zergaduna Nafarroako toki entitate bat denean, Nafarroako Hondakinen Erakunde Publikoak bete beharko ditu, entitateen beraien ordezkari gisa, haiek autolikidazioari eta sarrerari buruz dituzten zerga betebeharrak.

2. Zergaduna Nafarroako toki entitate bat denean izan ezik, zergadunen ordezko izanen dira hondakindegien edo hondakinen errausketarako edo koerrausketarako instalazioen titulartasuna dutenak. Izaten ahal dira pertsona fisikoak edo juridikoak edota 13/2000 Foru Legearen 25. artikuluan aipatzen diren nortasun juridikorik gabeko entitateak.

3. Zergadunaren ordezkoek zergadunei jasanarazi beharko diete zergaren ondorioz sortutako kuoten zenbatekoa, eta zergadunak behartuta egonen dira kuota horiek jasatera. Jasanarazpena ez da eskatuko Administrazioak egindako likidazioen kasuan eta zergadunak berak dagokion autolikidazioa aurkeztu behar duenean. Sortutako kuotak fakturan jasanaraziko dira, bertan jasotzen diren gainerako kontzeptuetatik bereizita.

35. artikulua. Sortzapena.

Zerga hau sortuko da hondakinak hondakindegian uzten direnean edo hondakinen errausketarako edo koerrausketarako instalazioetan errausten edo koerrauszten diren nean.

36. artikulua. Zerga-oinarria.

1. Zerga-oinarria izanen da hondakindegietan utzitako, erraustutako edo koerrausutako hondakinen pisua, tona metrikoetan, hiru dezimalekin adierazita.

Aurreko apartatuan definitutako zerga-oinarria zehaztuko da zerga honen zerga-egitate diren jarduerak egiten diren instalazio bakoitzeko.

2. Zerga-oinarria, oro har, zuzeneko zenbatespenaren bidez finkatuko da, instalazioetako pisatze sistemen bidez.

3. Administrazioak zerga-oinarria zuzeneko zenbatespenaren bidez zehazterik ez badu, zeharkako zenbatespenaren bidez eginen du, 13/2000 Foru Legearen 43. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

Zerga-oinarria zeharkako zenbatespenaren bidez zehazteko, utzitako, erraustutako edo koerrausutako hondakinen pisua kalkulatzeko erabil daitekeen edozein datu, inguruabar edo aurrekari erabiltzen ahalko da, eta, bereziki, hondakinen bolumenaren jasotze topografikoa eta utzitako, erraustutako edo koerrausutako hondakinen karakterizazioa, hots, dentsitatea eta osaera zehaztea.

37. artikulua. Kuota osoa.

1. Kuota osoa kalkulatu da zerga-oinarriari dagokion karga-tasa aplikatuz:

a) Hondakin ez-arriskutsuen hondakindegietan utzitako hondakinen kasuan:

1. Udal hondakinak badira: 40 euro tona metriko.

2. Udal hondakinen errefusak badira: 30 euro tona metriko.

3. Aurreko 1. eta 2. zenbakietan zehaztutakoak ez diren hondakinak badira: 15 euro tona metriko.

b) Hondakin arriskutsuen hondakindegietan utzitako hondakinen kasuan:

1. Hondakinak alde zuzeneko tratamendutik salbuetsitakoak badira, uztailaren 7ko 646/2020 Errege Dekretuaren 7.2 artikuluan ezarritako baldintzen arabera: 8 euro tona metriko.

2. Bestelako hondakinak badira: 5 euro tona metriko.

c) Hondakin geldoen hondakindegietan utzitako hondakinen kasuan:

1. Hondakinak alde zuzeneko tratamendutik salbuetsitakoak badira, uztailaren 7ko 646/2020

Errege Dekretuaren 7.2 artikuluan ezarritako baldintzen arabera: 3 euro tona metrikoko.

2. Bestelako hondakinak badira: 1,5 euro tona metrikoko.

d) D10 eragiketa gisa kodetutako ezabatze eragiketak egiten dituzten udal hondakinen errausketarako instalazioen kasuan: 20 euro tona metrikoko.

e) R01 eragiketa gisa kodetutako balorizazio eragiketak egiten dituzten udal hondakinen errausketarako instalazioen kasuan: 20 euro tona metrikoko.

f) Hondakinen errausketarako bestelako instalazioen kasuan: 20 euro tona metrikoko.

g) Hondakinen koerrausketarako instalazioetan koerrauskutako hondakinen kasuan: 0 euro tona metrikoko.

2. Hondakinen errausketarako instalazioen titularrak, 1. apartatuko d) eta e) letretan ezarritako zerga-tasak aplikatzeko, Nafarroako Gobernuak egindako jakinarazpena izan beharko dute. Jakinarazpen horretan adieraziko dira energia-efizientziaren balioa eta eragiketaren sailkapena (D10 edo R01 gisa sailkatua dagoen), Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatzeko eta industria isuriei buruzko Erregelamenduko 40.2 artikuluan ezarritakoaren arabera.

38. artikulua. Zergaren kudeaketa.

1. Nafarroako Hondakinen Erakunde Publikoak, zergadunaren ordezkoez edo, hala dagokionean, zergadunek zergaren autolikidazioa aurkeztu beharko dute, zerga kuota kalkulatu, eta dagokion diru-sarrerara egin, betiere tributuen arloko eskumena duen departamentuko titularrak foru agindu baten bidez ezarritako moduan, tokian eta epeetan.

Nafarroako Hondakinen Erakunde Publikoak ordaindutako zerga modu proportzionalean banatuko da toki entitateen artean, kontuan harturik haietako bakoitzak tratamendurako edo isurketarako instalazioetan entregatutako hondakinen kantitatea eta kalitatea, eta entitate horiek beharturik daude dagokien zatia ordaintzera Nafarroako Hondakinen Erakunde Publikoari.

2. Autolikidazioaren aldia zerga-egitaterik bat ere gertatu ez arren, berdin-berdin aurkeztu beharko da autolikidazioa.

3. 1. apartatuan ezarritakoaren arabera autolikidazioak aurkeztu behar dituztenek nahitaez inskribatu beharko dute, jarduera hasi aurretik, hon-

dakinak hondakindegietan uztearen eta hondakinen errausketaren eta koerrausketaren gaineko zergaren lurralde-erregistroan. Tributuen arloko eskumena duen departamentuko titularraren foru agindu baten bidez arautuko da lurralde-erregistro hori, eta baita bertan inskribatzeko prozedura ere.

4. Hondakindegien edo hondakinen errausketarako edo koerrausketarako instalazioen titularrak diren subjektu pasiboek datadun erregistro bat eraman beharko dute utzitako, errauskutako eta koerrauskutako hondakinei buruz. Betebehar hori betetzat joko da Ekonomia zirkularerako hondakinei eta lurzoru kutsatuei buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legearen 64. artikuluan aipatzen den artxibo kronologikoa eramaten bada.

Tributuen arloko eskumena duen departamentuko titularraren foru agindu baten bidez garatzen ahalko da aipatu erregistroaren erregulazioa.

5. Hondakindegien eta errausketarako edo koerrausketarako instalazioen titularrak behartuta daude instalazio publiko edo pribatuetan, erraus-teko edo koerraus-teko edo bertan isurtzeko, entregatzen diren hondakinen pisaketa-datuak deklaratu eta frogatzera.

Horren ondorioetarako, hondakindegietako, tratamendurako instalazioetako eta errausketa edo koerrausketa egiten den instalazioetako sarreran behar diren pisaketa sistemak instalatuko dira, 51. artikuluan ezarritakoarekin bat. Hori guztia, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak egiaztatzen ahal izan dezan sistema horiek funtzionamendu egoera onean daudela, baita hondakinen datuen igorpena eta trazabilitatea ere.

39. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak.

1. Deusetan galarazi gabe 2. apartatuan xedatutakoa, zerga honi dagozkion arau-hausteak 13/2000 Foru Legean xedatutakoaren arabera kalifikatu eta zehatuko dira.

2. Tributuen arloko arau-haustea da ez inskribatzea hondakinak hondakindegietan uztearen eta hondakinen errausketaren eta koerrausketaren gaineko zergaren lurralde-erregistroan.

Arau-hauste hori 1.000 euroko diruzko isun finkoarekin zehatuko da.

Kasu horretan, Tributuei buruzko 13/2000 Foru Legearen 71.4 artikuluan xedatutakoa aplikatuko da”.

Bj. Zortzigarren xedapen gehigarria.

“Zortzigarren xedapen gehigarria. Hondakinen fluxuak eta hondakinen funtsaren banaketa 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Hondakinen funtsaren banaketaren ondorioetarako, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera “etxeko hondakinak” “udal hondakintzat” hartuko dira, eta gainerako hondakinak “bestelako hondakintzat”.

Hiru. Lehen xedapen iragankorra.

“Lehen xedapen iragankorra. Nafarroako Hondakinen Erakunde Publikoa sortzea eta Nafarroako Hondakin Solidoen Tratamendurako Partzuergoa desegitea.

1. Nafarroako Gobernuak, foru lege honek indarra hartzen duenetik sei hilabeteko epean, Nafarroako Hondakinen Erakunde Publiko bat sortzea sustatuko du, foru lege honen 15. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Nafarroako Hondakinen Erakunde Publikoa sortzeak berekin ekarriko du Nafarroako Hiri Hondakinen Tratamendurako Partzuergoa desegitea, aplikatu beharreko araudian ezarritakoarekin bat.

2. Nafarroako Hondakinen Erakunde Publikoa sortu bitartean, Nafarroako Hiri Hondakinen Tratamendurako Partzuergoak bere gain hartuko ditu foru lege honek aipatu erakundeari esleitzen dizkion eginkizunak eta betebeharrak hondakinak hondakindegian ezabatzearen eta erraustearen gaineko zergaren kudeaketari, Hondakinen Funtsa urtero banatzeko nahitaezko kontsultari eta gainerako lankidetzak eta aholku-eginkizunei dagokienez.

Bereziki, egoera hori gertatu arte, Partzuergoak bere gain hartuko ditu, aldi baterako, zergaren zerga-oinarria zehazteari dagokionez Erakunde Publikoari esleitutako eginkizunak.

Bestalde, eta epemuga berberarekin, Erakunde Publikoari esleitutako eginkizuna, zergaren autolikidazioa, sarrera eta banaketa egitekoa (34.1 eta 38.1 artikuluetan jasotzen da), Partzuergoak beteko du haren kide diren entitateen ordezkari gisa.

Denbora-tarte berean, Iruñerriko Mankomunitateak bere izenean eginen ditu berak hondakindegietan deuseztatzeko entregatzen dituen hondakinengatik dagozkion zergaren autolikidazioa eta sarrera egiteko eginkizunak”.

Lau. Hirugarren xedapen iragankorra, gehitzea.

“Hirugarren xedapen iragankorra. Hondakin industrial jakin batzuei aplikatu beharreko araubidea, hondakinak hondakindegietan uztearen eta hondakinen errausketaren eta koerrausketaren gaineko zergari dagokionez.

2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako hiru urteetan, hondakinak hondakindegietan uztearen eta hondakinen errausketaren eta koerrausketaren gaineko zergatik salbuetsita izanen da hasierako ekoizleak bere instalazioetan dauden hondakindegietan hondakin industrial ez-arriskutsuak entregatzea, baldin eta bere titulartasunekoak eta soilik berak erabiltzeko badira hondakindegioriek”.

Zortzigarren artikulua. Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra.

Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren manu hauek honako testu hau izanen dute:

Bat. 71.1.b) artikulua.

“b) Zerga-Administrazioaren jarduketari gogor edo uko egitea nahiz aitzakiak bilatzea, edo haren ikerlanari oztupoak jartzea kudeaketa, ikuskatze edo bilketa faseetan.

Inguruabar hori gertatzen bada arau-hauste astun bat egin denean, zehapenaren portzentajea ehuneko 20tik ehuneko 60ra bitarte handituko da.

Inguruabar hori gertatzen bada arau-hauste soil bat egin denean, zehapenaren zenbatekoa handituko da gehieneko zenbatekoaren ehuneko 20tik ehuneko 40ra bitarte. Horrez gain, behar den bezala jakinarazpena eta ohartarazpena jaso eta gero, zergapekoak ez badie administrazio horren errekerimenduei erantzun, zenbateko hauek gehituko dira:

a) 300 euro, bigarren aldia bada errekerimendu bat betetzen ez dela.

b) 600 euro, hirugarren aldia edo hurrengoa bada errekerimendu bat betetzen ez dela”.

Bi. 105 bis 4 eta 5 (bigarren paragrafoa) artikulua

“4. Artikulu honetan arautzen diren argitalpen erabakiak hartzeko eskumena Nafarroako Foru Ogasuneko zuzendari kudeatzaileak izanen du, eta argitalpena, edozein kasutan, urte bakoitzeko ekainean egin beharko da”.

“Hori gorabehera, zorduna ez da zerrendan sartuko ordaintzeko dauzkan zorrak ekainaren 1a baino lehen ordaintzen baditu, edo, zerrendan sartzeko proposamena maiatzaren 21aren ondoren egin bada, 10 eguneko epean, jakinarazten zaionetik kontaktzen hasita”.

Hiru. 124.3 artikulua, 3. 4. eta 5. apartatuen egungo edukia 4., 5. eta 6. apartatuetakoa izanen da.

“3. Enbargo-eginbidearen aurka egiteko arrazoi hauek baino ez dira onartuko:

a) Zorra iraungitzea edo ordainketa exijitzeko eskubidea preskribatzea.

b) Premiamendu-probidentziaren jakinarazpena ez egitea.

c) Foru lege honetan enbargoari buruz jasotako arauak ez betetzea.

d) Diru bilketako prozedura etetea”.

Lau. Hemezortzigarren xedapen gehigarria, 2. eta 3. apartatuak indargabetzea eta 1. apartatuko zenbakia kentzea.

Bost. “Hogeita hamahirugarren xedapen gehigarria.

“Hogeita hamahirugarren xedapen gehigarria. Plangintza fiskaleko mugaz gaindiko mekanismoei buruzko informazioa emateko betebeharra

1. Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentarauaren (fiskalitatearen arloko lankidetzaren administratiboari buruzkoa eta 77/799/EEE Zuzentaruaren indargabetzen duena) 3. artikulua 21. eta 22. apartatuen arabera, betebeharraren ondorioetarako bitartekari edo zergapeko interesdun diren pertsonak edo entitateak honako informazio hau eman beharko diote Zerga Administrazioari, foru lege honen 27.5 eta 103. artikuluetan xedatutakoaren arabera eta tributuen arloko eskumena duen departamentuko titularrak ezarritako baldintzetan:

a) Esku hartzen edo parte hartzen duten mugaz gaindiko mekanismoei buruzko informazioa (Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentarauaren 3.18 artikuluan definitutakoak), zuzentaru horren IV. eranskinean zehaztutako ezaugarri bereizgarrien bat gertatzen denean.

b) Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentarauaren 3.24 artikuluan aipatzen diren mugaz gaindiko mekanismo merkaturagarrien eguneratzeari buruzko informazioa.

c) Espainian a) eta b) letretan aipatzen diren plangintza fiskaleko mugaz gaindiko mekanismoak erabiltzeari buruzko informazioa.

Informazioa emateko betebeharraren ondorioetarako, ez dira aitortu beharreko plangintza fiskaleko mugaz gaindiko mekanismotzat hartuko mugaz gaindiko akordio, negozio juridiko, eskema edo eragiketak, oinarrituta badaude komunikatuta-

ko eta Europako Batzordearen erabaki bidez berariaz baimendutako araubide fiskaletan.

2. Informazioa emateko betebeharratik salbuesita egonen dira –Kontseiluaren 2011/16/EB Zuzentarauaren 8 bis ter.5) artikulua aipatzen duen sekretu profesionalaren betebeharratik zuzentaru horren arabera bitartekari gisa hartzen direnak, egindako jarduera edozein dela ere, zuzentaruak jasotzen dituen mugaz gaindiko mekanismoetako batean aholkulari lanak egin badituzte (diseinuan, merkaturatzean, antolatzean, gauzatzeko eskura jarri edo hura gauzatzeko kudeaketan), haien helburu bakarra mekanismoa aplikagarria den araudira egokitzen dela ebaluatzea izan bada, baina horren ezarpenean lagundu gabe.

Sekretu profesionalaren betebeharra duen bitartekaria betebeharratik libre gelditzen ahalko da interesdun den zergapekoak modu fede-emailean komunikaturik emandako baimenaren bitartez.

3. Bitartekariak 2011/16/EB Zuzentarauak aipaturiko plangintza fiskaleko mekanismoei buruz informatzeko betebeharra betetzea, legez beharrituriko moduan, ez da izan –aplikagarria den araubide juridikoarekin bat kontratuz edo araudiz ezarritako informazio-zabalpenaren gaineko murriztapenen urraketa, eta subjektu behartuei ez die inolako erantzukizunik ekarriko informazio horren titular den zergapeko interesdunarekiko.

4. Tributuen arloko arau-haustek hauek dira:

a) Xedapen gehigarri honetan aipatzen diren aitortpen informatiboak epearen barruan ez aurkeztea.

Zehapena 2.000 euroko diruzko isun finkoa izan da aitortpenen jaso beharreko mekanismo berari buruzko datu edo datu-multzo bakoitzeko, gutxienez 4.000 eurokoa, eta gehienez mekanismo bakoitzak jasotako edo jasoko dituen ordainsarien zenbatekoaren baliokidea edo mekanismo bakoitzetik eratorritako ondorio fiskalaren zenbatekoaren baliokidea, 5. apartatuan ezarritako moduan kalkulatuta, arau-hauslea bitartekaria edo zergapeko interesduna den, hurrenez hurren. Gehieneko muga ez da aplikatuko 4.000 euro baino gutxiagokoa denean.

Aurrekoa gorabehera, mugaz gaindiko mekanismo batek baliorik ez badu zerga arloko departamentu eskudunaren titularrak ezarritako baldintzetan, eta arau-hauslea zergapeko interesduna bada, bitartekariak jasotako edo jasoko dituen ordainsarien baliokidea izan da gehieneko muga.

Ordainsaririk ez dagoenean, muga izanen da bitartekari izaera ekarri duen jardueraren merkatubalioa, kalkulatua Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 28.2 artikuluan xedaturikoaren arabera.

Aurreko gehieneko mugak aplikatzeko, arau-hausleak muga horien konkurrentzia eta neurria egiaztatu beharko ditu.

Paragrafo honetan ezarritako zehapena eta gehieneko nahiz gutxienezko mugak erdira murriztuko dira, informazioa epez kanpo aurkeztu denean, Zerga Administrazioak aurretiazko errekerimendurik egin gabe.

Epe barruan aurkezten badira aitorten osatugabeak, zehaztugabeak edo datu faltsuekin egindakoak, eta, ondoren, alde aurreko errekerimendurik gabe, epez kanpo aurkezten bada aurrekoen osagarri edo ordezkotako aitortenik, ez da gertatuko apartatu honen b) letran, epe barruan aurkeztutako aitortunei dagokienez, aipatzen den arau-haustea, eta epez kanpo aitortutakoari dagokionez paragrafo hau aplikatzearen ondoriozko zehapena ezarriko da.

b) Xedapen gehigarri honetan aipatzen diren aitorten informatiboak osatu gabe, zehaztu gabe edo datu faltsuekin aurkeztea.

Zehapena 2.000 euroko diruzko isun finkoa izanen da aitorpenean sartu beharreko mekanismo bati buruzko datu edo datu-multzo osatugabe, zehaztugabe edo faltsu bakoitzeko, gutxienez 4.000 eurokoa, eta gehienez mekanismo bakoitzeko jasotako edo jasoko diren ordainsarien zenbatekoaren baliokidea edo mekanismo bakoitzetik eratorritako ondorio fiskalaren baliokidea, 5. apartatuan ezarritako moduan kalkulatuta, arau-hauslea bitartekaria edo zergapeko interesduna den, hurrenez hurren. Gehieneko muga ez da aplikatuko 4.000 euro baino gutxiagokoa denean.

Aurrekoa gorabehera, mugaz gaindiko mekanismo batek baliorik ez duenean erregelamendu bidez ezarritako moduan, eta arau-hauslea zergapeko interesduna denean, bitartekariak jasotako edo jaso beharreko ordainsarien baliokidea izanen da gehieneko muga.

Ordainsaririk ez dagoenean, muga izanen da bitartekari izaera ekarri duen jardueraren merkatubalioa, kalkulatua Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen 28.2 artikuluan xedaturikoaren arabera.

Aurreko gehieneko mugak aplikatzeko, arau-hausleak muga horien konkurrentzia eta neurria egiaztatu beharko ditu.

c) Xedapen gehigarri honetan aipatzen diren aitorten informatiboak bitarteko elektronikoko, informatiko eta telematikokoak ez diren beste bitarteko batzuen bidez aurkeztea, bitarteko horien bidez aurkezteko betebeharra dagoen kasuetan.

Zehapena 250 euroko diruzko isun finkoa izanen da, aitorpenean jaso beharreko mekanismo berari buruzko datu edo datu-multzo bakoitzeko, gutxienez 750 eurokoa eta gehienez 1.500 eurokoa.

d) Xedapen gehigarri honetan erregulatutako arau-haustea eta zehapenak bateraezinak dira 67.1.a) eta 72.1. artikuluetan ezarritakoekin.

5. Efektu fiskalaren balioztat joko da aitorturiko mekanismoak tributu-zorretan sortu duen emaitza, zeinak barne hartu beharko baitu aurrezki fiskala, hala badagokio.

Ondorio horietarako, honako hau izanen da aurrezki fiskala: aitortu beharreko mugaz gaindiko mekanismoa egin izan ez balitz edo mekanismo horren bitartez zerga-egitatea egotea erabat edo partez saihestegatik oinarriari edo zerga-kuotari aplikatzen zaion eta tributu-zorriari eragiten dion edozein murriztapen, baita tributu-zorriaren sortzapenaren gerorapena ere. Aurrezki fiskaltzat joko da, orobat, oinarriak, kuotak, kenkariak edo etorkizunean konpentsatzeko edo kenkaria egiteko modukoa den beste edozein kreditu fiskal sortzea.

Mekanismoan parte-hartzaile direnean enpresa elkartuen izaera duten entitateak edo pertsonak (2011/16/EB Zuzentarauaren 3.23) artikulua halakotzat hartzen dituenak), aurrezki fiskala egoteari buruzko kalifikazioa, letra honen ondorioetarako, eginen da aintzat harturik entitate elkartu guztien gaineko ondorioak, aurreko paragrafoan aipatutakoak, zein ere den tributazio-jurisdikzioa".

Sei. Hogeita hamalagarren xedapen gehigarria.

"Hogeita hamalagarren xedapen gehigarria. Partikularren artean sorturiko betebeharrak, plangintza fiskalerako mugaz gaindiko mekanismoei buruzko informazioa emateko betebeharraren ondoriozkoak

1. Sekretu profesionalaren betebeharraren ondorioz mugaz gaindiko plangintza fiskaleko mekanismoen aitortena aurkeztetik salbuetsita dauden bitartekariak behartuta egonen dira salbuespen horren berri modu fede-emailan ematera mekanismo horietan parte hartzen duten gainetarako bitartekariei eta zergapeko interesdunei. Horiena izanen da aitortena aurkezteko betebe-

harra, tributuen arloko eskumena duen departamentuko titularrak ezartzen duen moduan.

2. Aitorpena egitera legez behartuta dauden eta aitorpena aurkeztu duten pertsonak edo entitateak aurkezpen horren berri eman beharko diete, modu fede-emailean eta tributuen arloko eskumena duen departamentuko titularrak ezarritako baldintzetan, gainerako bitartekariak edo, hala badagokio, gainerako zergapeko interesdunei, eta, horren arabera, aitorpena egiteko betebeharrak salbuetsita geratuko dira.

3. Tributuen arloko arau-haustea hauek dira:

a) 1. apartatua aipatzen den komunikazioa ezarritako epean ez egitea edo komunikazioa egitea datuak kenduta edo datu faltsuak, osatugabeak edo zehaztugabeak sartuta.

Arau-haustea 600 euroko diruzko isun finko batez zehatuko da.

Komunikazioa epe barruan ez egiteaz gain, dagokion plangintza fiskaleko mugaz gaindiko mekanismoaren aitorpenik –hogeita hamahirugarren xedapen gehigarriaren 1.a) apartatua aipatzen dena– ez bada egiten beste bitartekari batek edo, hala badagokio, zergapeko interesdunak, komunikazioa egin izan balitz aitorpena aurkeztu beharko zukeenak, zehapena izanen da aipatutako aitorpena ez aurkezteagatik arau-hausteari dagokiona, hogeita hamahirugarren xedapen gehigarriaren 4.a) apartatua aurreikusitako dena.

b) 2. apartatua aipatzen den komunikazioa ezarritako epean ez egitea, edo komunikazioa egitea datuak kenduta edo datu faltsuak, osatugabeak edo zehaztugabeak sartuta.

Arau-haustea 600 euroko diruzko isun finko batez zehatuko da”.

Zazpi. Hogeita hemezortzigarren xedapen gehigarria, gehitzea.

“Hogeita hemezortzigarren xedapen gehigarria. Zerga zorra geroratzeko edo zatikatzeko, 2023an egiten diren eskaerei aplikatu beharreko neurri berariazkoak.

Tributu-zorra geroratzeko edo zatikatzeko 2023an egiten diren eskaerei, baldin eta diru-bilketaren kudeaketa lana tributuen arloan eskumena duen departamentuari badagokio, hogeita hamazazpigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatuko zaie”.

Zortzi. Seigarren xedapen iragankorra, bigarren paragrafoa, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

“Aurrekoa gorabehera, 2023an beren ondorioei eutsiko diete Erregistro Fiskal horretan lehendik dauden inskripzioek, bikote egonkorra inskribatu arte Nafarroako Foru Komunitateko bikote egonkorren Erregistro Bakarrean, apirilaren 14ko 27/2021 Foru Dekretuan araututakoan, edo aplikatzekoa zaion araudiaren arabera dagokion erregistroan”.

Bederatzigarren artikulua. Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen Foru Legea.

Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen manu hauek honako testu hau izanen dute:

Bat. 15 artikulua.

“15. artikulua. Tributu araubide bereziaren aukera.

1. Foru lege honetan araututako tributu araubideari heldu nahi dioten fundazioek erregistro orokor elektronikoaren bidez jakinarazi beharko diote Nafarroako Foru Ogasunaren barruan fundazioen arloko eskumena duen zerbitzuari, eta araubide hari lotuta geratuko dira hura aplikatzeko baldintzak betetzen badituzte eta modu berean jakinarazten ez duten bitartean araubideari uko egin diotela.

2. Jakinarazpena egin beharko da entitatea Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatzen denean. Nafarroako Foru Ogasunaren barruan fundazioen eskumena duen zerbitzuak argibideak eta datu osagarriak eskatzen ahalko dizkie interesdunei, fundazioaren eta estatutuen klausulak zehatz-mehatz ezagutzeko.

Jakinarazpena egin eta 3 hilabeteko epean entitateak ukoaren berariazko jakinarazpenik jaso ez bada, ulertuko da tributu araubide berezia aplikatzen ahal duela.

3. Zerga araubide berezia aplikatzea ukatzen ez bada, Nafarroako Fundazioen Erregistroan inskribatzen denetik aplikatuko da, salbu eta araubidearen aldeko aukeraren berri aurkezten denarako hilabete baino gehiago igaro bada inskripzioaren datatik; horrelakoetan, fundazioen arloko eskumena duen zerbitzuak espresuki komunikatuko du zein den haren aplikazio data.

Era berean, tributu araubide bereziaren aplikazio data jakinaraziko da, baldin eta jakinarazpen datatik atzerapenak gertatzen badira dokumentazioa aztertzean, fundazioari egotz dakizkikeen arrazoiengatik”.

Bj. 16. artikulua. Indargabetzea.

Hiru. 39.1.a), 2.a) eta 4 artikulua, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

“a) Kenkari hauen aurreko zerga-oinarriaren ehuneko 30 eta, hala behar denean, foru lege honen 42. eta 47. artikuluetan eta hamargarren, hamabigarren eta hamahirugarren xedapen gehigarrietan eta Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen maiatzaren 16ko 8/2014 Foru Legearen 17. artikuluan aipatzen direnena”.

“a) Kenkari hauen aurreko zerga-oinarriaren ehuneko 10 eta, hala behar denean, foru lege honen 42. eta 47. artikuluetan eta hamargarren, hamabigarren eta hamahirugarren xedapen gehigarrietan eta Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen maiatzaren 16ko 8/2014 Foru Legearen 17. artikuluan aipatzen direnena”.

“4. Artikulu honetan jasotako kenkari mugak bateragarriak izanen dira foru lege honen 42. eta 47. artikuluetan eta hamargarren, hamabigarren eta hamahirugarren xedapen gehigarrietan eta Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen maiatzaren 16ko 8/2014 Foru Legearen 17. artikuluan aurreikusitakoekin”.

Lau. 42.1.a) eta 3 artikulua, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

“a) Kenkari honen aurreko zerga-oinarriaren ehuneko 5 eta, hala behar denean, foru lege honen 37. eta 47. artikuluetan eta hamargarren, hamabigarren eta hamahirugarren xedapen gehigarrietan eta Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen maiatzaren 16ko 8/2014 Foru Legearen 17. artikuluan aipatzen direnena”.

“3. Kenkariaren muga bateragarria izanen da foru lege honen 37. eta 47. artikuluetan eta hamargarren, hamabigarren eta hamahirugarren xedapen gehigarrietan eta Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen maiatzaren 16ko 8/2014 Foru Legearen 17. artikuluan aurreikusitakoekin”.

Bost. 47.2.a) eta 4 artikulua, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

“a) Kenkari honen aurreko zerga-oinarriaren ehuneko 5 eta, hala behar denean, foru lege honen 37. eta 42. artikuluetan eta hamargarren,

hamabigarren eta hamahirugarren xedapen gehigarrietan eta Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen maiatzaren 16ko 8/2014 Foru Legearen 17. artikuluan aipatzen direnena”.

“4. Kenkariaren muga bateragarria izanen da foru lege honen 37. eta 42. artikuluetan eta hamargarren, hamabigarren eta hamahirugarren xedapen gehigarrietan eta Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen maiatzaren 16ko 8/2014 Foru Legearen 17. artikuluan aurreikusitakoekin”.

Sei. 48 artikulua.

“48. artikulua. Zerga-onurak aplikatzeko baldintza komunak.

Titulu honetan aurreikusitako zerga onuren aplikazioak honako baldintza hau izanen du: entitate onuradunek Zerga Administrazioari informazio ematea jasotako dohaintzei eta ekarpenei buruz, tributu araudian ezarritako ereduaren arabera”.

Zazpi. Bigarren xedapen gehigarria. 1.3 eta 2. apartatuak, eta 3. eta 4. apartatuak gehitzea 2. apartatuko egungo edukia 4. apartatukoa izanen da.

“3. Garapenerako gobernuz kanpoko erakundeak, garapenerako nazioarteko lankidetzaren arloko eskumena duen ministerioaren dagokion erregistroan inskribatuta daudenak, foru lege honetan aurreikusitako betekizunak eta baldintzak betetzen badituzte.

2. 1. apartatuan aipatzen diren entitateek tributu araubide berezia aplikatu nahi badute, erregistro orokor elektronikoaren bidez horren berri eman beharko diote Nafarroako Foru Ogasunean fundazioen eta irabazi-asmorik gabeko entitateen arloko eskumena duen zerbitzuari, eta hari lotuta geratuko dira hura aplikatzeko baldintzak betetzen badituzte eta modu berean araubideari uko egin diotela jakinarazten ez badute.

Aukeraketaren jakinarazpena entitatea dagokion erregistroan inskribatu ondoren aurkezten ahalko da, eta inskripzio horren egiaztagiria aurkeztu beharko da. Elkarteen kasuan, onura publikokotzat jotzen direnean aurkezten ahalko da jakinarazpena, eta horretarako dagokion ebazpena aurkeztu beharko da.

3. Nafarroako Foru Ogasunean fundazioen eta irabazi-asmorik gabeko entitateen arloko eskumena duen zerbitzuak argibideak eta datu osagarriak eskatzen ahalko dizkie interesdunei, entitateak fundazio, onura publikoko elkarte edo garapenera-

ko gobernuz kanpoko erakunde izateko baldintzak betetzen dituela egiaztatzeko.

Jakinarazpena egin eta 3 hilabeteko epean entitateak ukoaren berriazko jakinarazpenik jaso ez bada, ulertuko da tributu araubide berezia aplikatzen ahal duela.

Aplikatzea ukatzen ez bada, tributu araubide bereziaren aukeraketa jakinarazten den egunetik aplikatuko da, salbu eta jakinarazpena egiten denetik dokumentazioa aztertzean atzerapenak gertatzen badira erakundeari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik; kasu horretan, fundazioen eta irabazi-asmorik gabeko erakundeen arloko eskumena duen zerbitzuak tributu araubide berezia noiz aplikatuko den jakinaraziko du”.

Zortzi. Hamargarren xedapen gehigarria. 7, bosgarren paragrafoa, eta 9.b), 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

“– Kenkari honen aurreko zerga-oinarriaren ehuneko 30 eta, hala behar denean, foru lege honen 37., 42. eta 47. artikuluetan eta hamabigarren eta hamahirugarren xedapen gehigarrietan eta Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen maiatzaren 16ko 8/2014 Foru Legearen 17. artikuluan aipatzen direnena”.

“b) Emandako egiaztagirien edukia jakinaraztea Zerga Administrazioari, zerga arloko araudian ezarritako ereduekin”.

Bederatzi. Hamaikagarren xedapen gehigarria.

“Hamaikagarren xedapen gehigarria. Zerga-onuren bateraezintasuna.

Foru lege honetan ezarritako zerga-onurak elkarren artean bateraezinak izanen dira zenbateko eta kontzeptu berberetarako. Bateraezinak izanen dira, halaber, Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen Foru Legean ezarritakoekin”.

Hamar. Hamargarren xedapen gehigarria.7.Lehena, eta 9.b), 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

“Lehena. Kenkari honen aurreko zerga-oinarriaren ehuneko 30 eta, hala behar denean, foru lege honen 37., 42. eta 47. artikuluetan eta hamargarren eta hamahirugarren xedapen gehigarrietan eta Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen maiatzaren 16ko 8/2014 Foru Legearen 17. artikuluan aipatzen direnena”.

“b) Emandako egiaztagirien edukia jakinaraztea Zerga Administrazioari, zerga arloko araudian ezarritako ereduekin”.

Hamaika. Hamahirugarren xedapen gehigarria, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin.

“Hamahirugarren xedapen gehigarria. Kirol mezenasgorako zerga-pizgarriak.

1. Xedapen honen ondorioetarako, kirol mezenasgoa da Nafarroako Foru Komunitateko kirol administrazioak gizarte interesekotzat deklaratu dituen iraupen mugatuko kirol jardueren finantzaketan parte-hartze pribatua izatea.

2. Horretarako, gizarte interesekotzat deklaratu ahal izanen dira honako jarduera hauek:

a) Kirol jarduerak, prestakuntza, sustapen, osasun eta ikerketakoak, kirol arloan.

b) Kirol jarduerak, beharrezkoak dituzten pertsonen bideratuak, haien artean hartuta adindunak, sedentarismotik eta bizimodutik eratorritako patologiak dituztenak, desgaitasuna dutenak, etorkinak eta kolektibo behartsuak.

c) Kirol jarduerak eta programak, oinarrizko kirola eta eskola-adinean sustatzera bideratuak.

d) Kirola sustatzeko, ingurune naturala zaindu eta gordetzeko eta Nafarroako Foru Komunitateko Bideen Sarea lehengoratu eta hobetzeko jarduerak.

e) Kirol autoktono edo tradizionalak berreskuratzea eta sustatzeko jarduerak.

3. Ezin izanen dira inola ere gizarte interesekotzat deklaratu, kirol mezenasgoaren ondorioetarako, lehiaketa federatuetako partaidetza diren kirol jarduerak.

4. Xedapen honen ondorioetarako, honakoak dira pertsona eta entitate onuradunak:

a) Irabazi asmorik gabeko kirol entitateak, Nafarroako Kirolaren Erregistroan inskribatuak.

b) Nafarroan helbideratutako fundazioak, haien xedeen artean Nafarroako kirola sustatu eta garatzea dutenak.

c) Nafarroako kirol federazio batean afiliatuta egon eta egoitza fiskala Nafarroan duten Nafarroako kirolariak.

d) Nafarroako Foru Komunitateak eta Nafarroako toki entitateak, bai eta haien menpeko erakunde autonomo eta fundazio publikoak ere.

e) Nafarroan kokaturiko unibertsitateak.

Apartatu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, kirol jarduerak betetzen dituzten pertsona fisikoak ez dira onuradunak izanen kasuko mezenasgo modalitateak ezkontideak, izatezko bikote-kide egonkorak, hirugarren gradu arteko aurreko, ondorengo nahiz alboko ahaideek edo pertsona fisiko horrekin batera errenta esleipeneko araubideko entitate bateko kide direnek haien zati eginak badira.

Era berean, kirol jarduerak betetzen dituzten pertsona fisikoak edo entitateak ez dira onuradun izanen jasotako mezenasgo modalitateen inguruan, kirol jarduera betetzen duen pertsonak edo entitateak eta dohaintza- edo ekarpen-emailea denak pertsona edo entitate lotuen izaera badute sozietateen gaineko zergaren araudiarekin bat.

5. Kirol mezenasgoa honako modalitate hauen bidez egiten ahalko da:

a) "Inter vivos" dohaintzak, ezeztazekin, garbiak eta sinpleak, gizarte interesekotzat deklaratu-tako kirol jarduerak finantzatzeko egiten direnak.

Kenkarien eta murrizketen oinarria Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen maiatzaren 16ko 8/2014 Foru Legearen 9. artikuluan xedatutakoaren arabera zehaztuko da.

b) Erabilera maileguak edo komodatuak. Kenkariaren eta murriztapenaren oinarria honako hau izanen da: maileguaren iraunaldiko zergaldi bakoitzean ondasunaren balorazioari ehuneko 4 aplikatuta ateratzen den urteko zenbatekoa, zergaldi bakoitzean dagokion egun kopuruaren proportzioan zehaztuko dena. Kirol jarduerak egiteko lokalen, lursailen edo eraikinen kasuan, ehuneko 4 hori katastroko balioari aplikatuko zaio, zergaldi bakoitzeko egun kopuruaren proportzioan.

c) Lankidetzak hitzarmenak 4. apartatuan aipatzen diren pertsona edo entitateekin. Horien bidez, gizarte interesekotzat deklaratu-tako kirol jarduera bat egiteko laguntza ekonomiko baten edo balorazio ekonomikoa izaten ahal duen laguntza baten truke, idatziz konpromisoa hartzen dute zabal-tzeko, edozein bide erabilita, kolaboratzaileak jar-duera horretan izandako parte-hartzea. Pertsona edo entitate laguntzaileak lankidetzak hitzarmen horien esparruan duen parte-hartzea zabal-tzea ez da zerbitzu-emate bat.

Lankidetzak hitzarmenek eragindako kenkarien eta murrizketen oinarria 8/2014 Foru Legearen 9. artikuluan xedatutakoaren arabera kalkulatu-tako da.

6. Kirol proiektu eta jarduerak gizarte interesekotzat deklaratzeko eskaera aurkeztu ahalko du kirol mezenasgoaren onuradun diren

pertsona edo entitate orok, xedapen gehigarri honetan agertzen direnetatik.

Gizarte interesekotzat deklaratzeko eskatzen den kirol proiektu edo jarduera bakoitzeko eskaera bat aurkeztuko da.

Foru aginduaren bidez, kirol arloko eskumena duen departamentuko titularrak eskaera egiteko prozedura, tokia eta epeak ezarriko ditu.

7. Hogeita hamar eguneko epean gehienez, eskaera aurkeztu denetik zenbatzen hasita, Nafarroako Kirolaren Kontseiluak onartzeko edo ukatzeko proposamen arrazoitua prestatuko du.

Gizarte interesekotzat deklaratzeko ukatzeko proposamen arrazoitua zio hauetariko batean oinarritu beharko da:

a) Irizten denean proiektu edo jarduera ez dela kirol izaerakoa edo, alderdiren batean kirol izaerakoa bada ere, haren eduki izaera, xede eta helburuagatik, izaera kultural, artistiko, hezkuntzako edo bestelako bat duenean batez ere.

b) Ulertzen denean proiektu edo jarduerak ez duela merezi gizarte interesekotzat deklaratu-ta, honako balorazio irizpide hauei jarraikiz:

Lehenena. Garatu beharreko proiektu edo jardueraren gizarte arloko eragina, inpaktua edo munta, bereziki begiratuta beharizan bereziak dituzten pertsonen bideratuak, haien artean hartuta adindunak, sedentarismitik eta bizimodutik eratorritako patologiak dituztenak, desgaitasuna dutenak, etorkinak eta kolektibo behartsuak.

Bigarrenena. Garatu beharreko proiektu edo jarduerak Nafarroako Foru Komunitateko kirol arloko ikerketa, prestakuntza eta sustapenean duen eragina.

Hirugarrenena. Oinarriko kirola eskola-adinean sustatzerakoan duen eragina, kontuan hartuta haien partaidetza maila eta iraupena.

Laugarrenena. Proiektu edo jardueraren izaera berritzailea.

Bosgarrenena. Kirola sustatzeko, ingurune naturala zaindu eta gordetzeko eta Nafarroako Foru Komunitateko Bideen Sarea lehengoratu eta hobetzeko jardueretan inbertsioak egiteari begira-ko balioa eta interesa.

Seigarrenena. Proiektu edo jardueraren aurrekontuaren eta sortutako eraginaren lotura, aurreko irizpideei jarraikiz.

Zazpigarrenena. Ekarpina egitea emakumezkoen kirolari, kirolean berdintasuna sustatzeari eta

kirol arloan genero-estereotipoen aurka borrokatzeari.

Zortzigarrena. Nafarroako Foru Komunitatean kirolaren sustapenarekin zerikusia duen beste edozein irizpide.

c) Pertsona edo entitate eskatzaileak ez betetzea bereak diren eta aurretik gizarte interesekotzat deklaratu diren beste proiektu edo jardueren gaineko betebeharrak.

8. Nafarroako Kirolaren Institutuko kudeaketa-zuzendaritzak ebatziko ditu aurreko apartatueta aipatutako eskaerak, Nafarroako Kirolaren Kontseiluak nahitaezko txostena egin ondoren, bai eta, hala badagokio, kirol mezenasgoaren onuradunaren deklarazioa errebokatzea ere, baldintzaren bat betetzen ez dela egiaztatzen bada.

Gehienez hiru hilabeteko epean eman eta jakinarazi behar da ebazpen hori. Epe hori igarota berriazko ebazpenik jakinarazi ez bazaio, eskaera aurkeztu duen entitate interesdunak zilegi du ulertzea eskaera baietsi dela administrazio isiltasunaren bidez.

Gehienez hiru hilabeteko epean ebatzi eta jakinarazi behar da kirol mezenasgoaren onuradunaren deklarazioa errebokatzekeo prozedura. Epe hori igarota berriazko ebazpenik jakinarazi ez bada, prozedura iraungiko da.

Aipatu epea eten eginen da interesatuei proiektu edo jardueraren gaineko dokumentazioa zuzentzea edo argipenak ematea eskatzen zaientean. Halaber, eten eginen da Nafarroako Kirolaren Kontseiluari ebaluazioa egitea eskatzen denean aipatu organoak onartzeko edo ukatzeko gogorritako proposamen jaso arteko denboran.

Gizarte interesekotzat deklaratzeko jasoko ditu pertsona edo entitate onuradunaren nortasuna, kirol proiektu edo jardueraren izendapena eta hura garatzeko epea. Deklarazioak balioa izanen du bakar-bakarrik dagokion kirol proiektu edo jarduerarako, exekuzioak dirauen bitartean.

9. Kirol mezenasgoaren onuradun deklaratuak izan ondoren, pertsona edo entitateek hurrengo ekitaldian jarraitu nahi badute antolatzen gizarte intereseko deklaratuak kirol jarduera bera, Nafarroako Foru Komunitateko kirol arloko administrazioari eskatu beharko diote, urte horretako lehen zortzi hilabeteetan, deklarazio hori mantentzea, Nafarroako Foru Komunitateko kirol arloko administrazioko kudeaketa-zuzendaritzako titularrak onetsiko duen ereduarekin bat, zeinari gehituko zaion baldintzak betetzen jarraitzen dutenaren gaineko erantzukizunpeko adierazpena, bai eta entitatearen kontuen gainekoa ere, salbu eta azken

horiek aurkeztu ba dira tributuen arloan eskuduna den departamentuan, tributu-araudia betetze alderara.

Nafarroako Foru Komunitateko kirol arloko administrazioari dagokio ezarritako baldintzak betetzen diren egiaztatzea.

10. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren subjektu pasiboek eskubidea izanen dute zergaren kuotan kenketa egiteko; hain zuzen ere, dohaintzen, erabilera maileguren edo komodatuen eta lankidetzaz hitzarmenen ondorioz (5. apartatuan aipatzen direnak) ordaindutako kopuruen eta egindako gastuen balorazioaren lehen 150 euroen ehuneko 80 eginen du kenketak. 150 eurotik gorako zenbatekoei ehuneko 35eko kenkaria aplikatzen ahalko zaie. Subjektu pasibo bakoitzeko eta zergaldi bakoitzeko aplikatuko da 150 euroko muga.

Kenkarien oinarria Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen 64. artikuluko 1. apartatuan aipatzen den mugaren ondorioetarako kontatuko da.

11. Sozietateen gaineko zergaren subjektu pasiboek zerga-onura hauek izanen dituzte:

a) Zerga-oinarria zehazteko, dohaintzen, erabilera maileguren edo komodatuen eta lankidetzaz hitzarmenen ondorioz ordaindutako kopuruen eta egindako gastuen (5. apartatuan aipatzen direnak) balorazioko zenbatekoak partida kengarria izanen dira. Zerga-oinarrian kentzen ahal den zenbatekoa honako muga hauetako handiena adinakoa izanen da, gehienez ere:

a') Murriztapen honen aurreko zerga-oinarriaren ehuneko 30 eta, hala behar denean, foru lege honen 37., 42. eta 47. artikuluetan eta hamargarren eta hamabigarren xedapen gehigarrietan eta Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen maiatzaren 16ko 8/2014 Foru Legearen 17. artikuluan aipatzen direnena".

b') Negozio zifraren zenbateko garbiaren milako 3.

b) Horrez gain, eskubidea izanen dute zergaren kuota likidoan kenkaria aplikatzeko, dohaintzen, erabilera maileguren edo komodatuen eta lankidetzaz hitzarmenen ondorioz ordaindutako kopuruen eta egindako gastuen (5. apartatuan aipatzen direnak) balorazioko zenbatekoen ehuneko 20koa.

Kuotaren kenkaria sozietateen gaineko zergaren araudian ezarritakoarekin bat aplikatuko da eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko 26/2016

Foru Legearen 67.4 artikuluan ezarritako mugaren ondorioetarako zenbatuko da.

12. Xedapen gehigarri honetan ezarritako zerga-onurak bateraezinak izanen dira, zenbateko eta kontzeptu berberetarako, foru lege honetan eta 8/2014 Foru Legean ezarritako gainerakoekin.

13. Xedapen gehigarri honetan ezarritako zerga-onurak aplikatzeko, dohaintzen, erabilera maileguen edo komodatuaren eraginkortasuna egiaztatu beharko da, bai eta 5. apartatuan aipatzen diren lankidetzaz hitzarmenen ondorioz ordaindutako zenbatekoena eta egindako gastuena ere, entitate onuradunak emandako ziurtagiri baten bidez. Ziurtagiri horretan honako hauek jaso beharko dira:

a) Izen-deiturak edo sozietatearen izena, eta identifikazio fiskaleko zenbakia, bai pertsona edo entitate emailearena, bai dohaintza-harbitzailearena.

b) Pertsona edo entitate onuradunak eta kirol jarduerak xedapen gehigarri honetako 2., 4. eta 10. apartatuetan ezarritako baldintzak betetzen dituztela berariaz aipatzea.

c) Dohaintzaren eguna eta zenbatekoa, diruzkoa denean.

Gainerako kasuetan, diruzkoa ez den dohaintzaren edo zerbitzu prestazioaren, erabilera maileguaren edo komodatuaren balorazioa eta, hala badagokio, lankidetzaz hitzarmenez baliatuz jasotako laguntzaren zenbatekoa.

Erabilera maileguen edo komodatuaren kasuan, ondasunaren entregatze data eta komodatuaren iraunaldia.

d) Dokumentu publikoa edo dohaintzan emandako ondasuna entregatu dela egiaztatzen duen beste dokumentu kauto bat, baldin eta ez badira dirutan egindako dohaintzak, doako zerbitzu ematearen balorazioa, erabilera maileguaren edo komodatuaren eraketa, edo lankidetzaz hitzarmena sinatzea.

e) Dohaintzak direnean, espresuki aipatu behar da dohaintza ezeztazina eta atzerazina dela.

f) Entitate onuradunak zertarako erabiliko duen dohaintza, erabilera mailegua edo komodatu, edo lankidetzaz hitzarmenez baliatuz jasotako laguntza.

14. Xedapen gehigarri honetan aurreikusitako zerga onuren aplikazioak honako baldintza hau izanen du: entitate onuradunak Zerga Administrazioari informazioa ematea, tributu araudian ezarri-

tako ereduaren arabera, jasotako dohaintzei eta ekarpenei buruz.

15. Urte bakoitza amaitu baino lehen, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio kirol administrazioak xedapen gehigarri honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten erakunde onuradunen eta gizarte intereseko kirol jardueren zerrenda igorriko dio Zerga Administrazioari”.

Hamabi. Hamalagarren xedapen gehigarria gehitzea, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin

“Hamalagarren xedapen gehigarria. Gizarte, ingurumen eta kirol mezenasgoaren lehentasunezko jarduerak.

Foru lege bidez ezartzen ahalko da gizarte, ingurumen eta kirol mezenasgoaren zenbait jardueraren lehentasuna, bai eta haien onuradun izanen diren entitateena ere. Jarduera horiei dago-kenez, foru legeak ehuneko bost igotzen ahalko ditu, gehienez, hamargarren, hamabigarren eta hamahirugarren xedapen gehigarrietan ezarritako kenkarien ehunekoak eta mugak”.

Hamahiru. Lehenengo xedapen iragankorra, gehitzea

“Lehenengo xedapen iragankorra.

Ulertuko da honakoek jakinarazi dutela eta aplikatzen jarraitzen ahal dutela foru lege honetan ezarritako tributu araubide berezia aplikatzeko hautua, bertan ezarritako baldintzak betetzen badituzte:

1. Nafarroako Fundazioen Erregistroan 2023ko urtarrilaren 1a baino lehen inskribatutako fundazioak, tributu araubide bereziaren aplikazioa deklaritzen duen ebazpen egokia dutenak.

2. Bigarren xedapen gehigarrian jasotako entitateak, 2023ko urtarrilaren 1a baino lehenagoko 10 urteetan edozein zerga Nafarroan ordaindu badute”.

Hamargarren artikulua. Nafarroako Foru Komunitatean kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen Foru Legea.

Nafarroako Foru Komunitatean Kultur mezenasgoa eta haren zerga-pizgarriak arautzen dituen maiatzaren 16ko 8/2014 Foru Legearen manu hauek testu hau izanen dute:

Bat. “4.f).a’) artikulua.

“a’) Bigarren atalean (lanbide jarduerak), 86. elkartean, 861, 862, 864 eta 869. taldeetan sartutakoak, pertsona fisikoak direnean”.

Bi. 17. artikulua, bosgarren paragrafoa, 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldieta-rako ondorioekin.

“– Kenkari honen aurreko zerga-oinarriaren ehuneko 30 eta, hala behar denean, Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzeko duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen 37., 42. eta 47. artikuluetan eta hamabigarren eta hamahirugarren xedapen gehigarrietan aipatzen direnena”.

Hiru. 20.b) artikulua.

“b) Emandako egiaztagiriaren edukia jakinaraztea Zerga Administrazioari, zerga arloko araudian ezarritako ereduarekin”.

Hamaikagarren artikulua. Nafarroako Kooperatiben Zerga Araubidea arautzen duen Foru Legea.

Nafarroako Kooperatiben Zerga Araubidea arautzen duen ekainaren 21eko 9/1994 Foru Legearen manu hauek testu hau izanen dute:

Bat. 1.1 artikulua.

“1. Foru lege honetan araututako araubide fiskala aplikatuko zaie Hitzarmen Ekonomikoan xedatutakoaren arabera Nafarroako foru araudia aplikatzeko zaien kooperatibei”.

Bi. 8.1 eta 3 artikulua, lehenengo paragrafoa.

“1. Pertsona fisikoak, pertsona juridikoak edo nortasun juridikorik gabeko entitateak elkartzea, ondasunak eta zerbitzuak kalitate, informazio eta prezio onenetan emateko”.

“3. Kide ez diren pertsonen egindako salmentak edo zerbitzu-prestazioak, horien esparruaren barruan, ez izatea kooperatibak ekitaldi ekonomiko bakoitzean egindako salmenta guztien %10 baino gehiago, edo %50 baino gehiago, estatutuetan hala aurreikusten bada”.

Hamabigarren artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren Erakunde Autonomoen Tasa eta Prezio Publikoetarako buruzko Foru Legea.

2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio-ko eta haren Erakunde Autonomoetako Tasa eta Prezio Publikoetarako buruzko otsailaren 11ko 2/2021 Foru Legearen manu hauek testu hau izanen dute:

Bat. 22. artikulua, 1.a) eta 4. apartatuak.

“a) Ziurtagiriak eta kopiak ematea”.

“4. Tarifa.

Tasa eskatuko da tarifa honen arabera:

Kontzeptua	EUROAK
1. Ziurtagiriak eta kopiak emateagatik (ziurtagiri edo kopia bakoitzeko)	5,20
2. Agiriak konpultsatzea (kopia bakoitzeko)	2,60
3. Erregistro ofizialetan inskripzioa egitea (inskripzio bakoitzeko)	2,60
4. Ahalordeak eta legitimazioa egiaztatzeagatik agiriak askiestea (agiri bakoitzeko)	6,24
5. Administrazio espediente bat kopiatu edo erreproduzitzea barne hartzen duten ziurtagiriak ematea	2,08 eta 0,06 gehiago erreproduzitutako orrialde bakoitzeko
6. Administrazio espediente baten kopia edo erreproduzizio bakoitzeko	0,06 erreproduzitutako orrialde bakoitzeko”

Bj. 23 bis artikulua, gehitzea.

“23 bis artikulua. Hautaketa prozesuei dagoen dokumentazioaren kopiak formatu elektronikoa bidaltzeagatik tasa.

1. Zerga-egitatea.

Tasaren zerga-egitatea da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek beren barruan izapidetutako edozein hautaketa prozesuren administrazio espedientea osatzen duten dokumentu guztien kopia elektronikoak bidaltzea.

Ondorio horietarako, kopia elektronikotzat hartuko dira aurreko paragrafoan aipatutako dokumentazioa formatu fisikotik elektronikora bihurtzea eta ondoren subjektu pasiboari bide elektronikoz bidaltzea.

2. Subjektu pasiboak.

Tasaren subjektu pasiboak dira zerga-egitate diren kopia elektronikoak bidaltzeko eskatzen duten pertsona fisikoak.

3. Sortzapena.

Kopia elektronikoak bidaltzeko eskaera aurkezten den unean sortuko da tasa, eta bidali aurretik ordainduko da.

4. Tarifak.

Tasa 0,06 eurokoa izanen da, kopiatutako eta bidaltutako orrialde bakoitzeko”.

Hiru. 25.4 artikulua

“4. Tarifak.

	KONTZEPTUA	Euroak
1. TARIFA	Elkarteen eta Federazioen Erregistroa	
	1. Eraketa inskribatzea	12
	2. Estatutuen aldaketa edo entitatearen indarreko araudirako egokitzapena inskribatzea	6
	3. Beste edozein motatako inskripzio bakoitzeko, zuzendaritza batzordeko edo ordezkari organoko kideen aldaketa inskribatzeko izan ezik	4
2. TARIFA	Fundazioen erregistroa	
	1. Eraketa inskribatzea	53
	2. Estatutuen aldaketa edo fundazioaren amaiera inskribatzea	38
	3. Bestelako inskripzioak, bakoitzeko	23
3. TARIFA	Lanbide Elkargoen Erregistroa	
	1. Eraketa inskribatzea	53
	2. Estatutuen aldaketa, bat-egitea, irenstea, izen aldaketa edo desegitearen inskripzio bakoitzeko	38
	3. Bestelako inskripzioak, bakoitzeko	23
4. TARIFA	Erregistroaren publikotasuna	
	1. Gordailututako kontabilitate-agiriaren kopia bakoitzeko	98
	2. Ziurtagiriak ematea	8”

Lau. 36.4. artikulua, 22. eta 23. tarifa berriak gehitzea

“22. TARIFA	Erdi mailako ikastaro espezializatuaren ziurtagiria / Erdi mailako LHko espezialistaren titulua	50,20
23. TARIFA	Goi mailako ikastaro espezializatuaren ziurtagiria / Goi mailako LHko master titulua	72,80”

Bost. 40. artikuluari 5. apartatua gehitzea.

“5. Salbuespenak.

Tasa horretatik salbuetsita egonen da hasiera-ko profesionaltasun ziurtagiriak edo kopiak ematea administrazio egoera erregularrik ez duten pertsoneri; hori egiaztatzeko, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak emandako identifikatzailea aurkeztu beharko da”.

Sei. 41.4. Bigarrena artikulua, F letran, tarifa kentzea Produktu Kosmetikoak Merkaturatzeko Arduradunen Erregistroan izena emateagatik, eta I letran, berriz, tarifa aldatzea jardunbide egokiak bete izanaren ziurtagiriak emateagatik.

“Jardunbide egokiak betetzen direla frogatzen dituzten ziurtagiriak, Estatuakoak zein nazioartekoak, ematea (NBCF, BPL, BPC, BPD eta haien pareko beste batzuk)

100,00 (lehen ziurtagiria) 10,00 (eskaera berean egindako bigarren eta/edo ondorengo ziurtagiriagatik)”

Zazpi. 42. artikulua, 1. apartatuko lehen paragrafoa; 4.c apartatua ezabatzea, 6. apartatuko a) letrako lehen paragrafoa eta 2. ordinala ezabatzea; eta b) letra 7., 8., 9., 10. eta 11. apartatuetan, eta 12. eta 13. apartatuak ezabatzea.

“Tasa horiek Foru Komunitateak eskatuko ditu hiltzeak, zatikatze aretoak eta ehiza prozesatzeko aretoak bere lurraldean badaude”.

“a) Zergadunari tarifa eskatuko zaio abereak hiltzeko eta zatikatzeko eragiketa bakoitzeko”.

“Bigarrena) Abereak zatikatzeko aretoetako ikuskapen eta osasun kontrolatan aplikatzekoak diren tasen zenbatekoak:

HARAGI MOTA		EUROAK, haragi tona bakoitzeko
1. TARIFA	Behiak, txerriak, solipedoak/ekidoak, ardiak eta ahuntzak	2,0
2. TARIFA	Haztegiko hegazti eta untxiak	1,5
3. TARIFA	Basa ehiza eta haztegiko ehiza	
	a) Lumadun eta iledun ehiza xehea	1,5
	b) Ratiteak (ostruka, emua eta ñandua)	3,0
	c) Aketzak eta hausnarkariak	2,0”

“b) Establezimendu berean abereak hiltzeko eta zatikatzeko jarduerak modu integratuan egiten badira, zenbateko altuena duen jardueraren tasa jasoko da soilik. Ondorio horietarako, ulertuko da establezimendua dela zenbait instalazio erantsi dituena titular beraren jarduerak, abereak hiltzeko eta zatitzekoak, egiteko.

7. Hiltze, zatikatze areto eta ehiza prozesatzeko aretoetako kontrol ofizialengatikotasaren murriztapenak.

Subjektu pasiboek, autolikidazioan, murriztapen hauek aplikatzen ahalko dituzte kalkulaturako kuota dagokionez, 6. apartatuko tauletan ezarritako zenbatekoak aplikatuta. Murriztapenak bateragarriak dira elkarren artean likidazio bakoitzean:

a) Mikroenpresak edo enpresa txiki eta ertainak badira, honako murriztapen hauek aplikatuko dira:

- 1.) Enpresa ertainak: ehuneko 10.
- 2.) Enpresa txikiak: ehuneko 20.
- 3.) Mikroenpresak: ehuneko 30.

Mikroenpresa, enpresa txiki eta ertainaren konzeptua Europako Batzordearen 651/2014 (EB) Erregelamenduaren I. eranskineko 2. artikuluan jasotakoa izanen da. Erregelamendu horren bidez, laguntza kategoria jakin batzuk Tratatuaren 107. eta 109. artikuluekin bateragarri deklaratu dira.

b) Ehuneko 20, ekoizpen, eraldaketa eta banaketa metodo tradizionalak, Europar Batasuneko

edo Espainiako araudian jasota daudenak, erabiltzen badira.

c) Ehuneko 20, gutxi garatuta dauden, biztanle gutxi dituzten edo sarbide eta komunikazio zailtasunak dituzten inguru edo eremuetan dauden operadore ekonomikoen kasuan.

d) Operadorearen betetze mailaren historiaren eta kontrol ofizialaren kostua murriztuko duen lan plangintzaren araberako murriztapenak:

1.) Agintaritza eskudunak ehuneko 20ko murriztapena aplikatzen ahalko du, operadoreak ez badu zehapen espedienterik izan osasun araudia ez betetzeagatik.

2.) Kontrol ofiziala erraztuko duen plangintza baten kasuan, murriztapenak honako hauek izanen dira:

a') Ehuneko 20, hiltegiatarako eta ehizakiak manipulatzeko aretoetarako albaitaritza zerbitzu ofizialaren presentzia eskatzen badute bakarrik astelehenetik ostiralera, lanegunetan, 06:00etatik 15:00etara. Murriztapena aplikatuko da hiruhileko hilabete bakoitzean gehienez ordutegi horren ehuneko 5eko desbideratzea izaten bada ere.

Murriztapen hori bera aplikatuko da hegazti hiltegiatarako, horien hiltzeko ordutegiak albaitaritza zerbitzu ofizialaren presentzia 00:00etatik 15:00etara izatea eskatzen badu.

b') Ehuneko 10, Albaitaritza Zerbitzu Ofizialaren presentzia aurreko ordutegitik kanpo eskatzen duten hiltegiarentzat, baldin eta eskaera horren erdia gutxienez ordutegi horretan egiten bada.

c') Ez da murriztapenik aplikatuko Albaitaritza Zerbitzu Ofizialaren eskaera larunbatetan, igandetan edo lanegunak ez diren egunetan egiten bada, egun horietan hil edo prestatutako animaliei dagokienez.

e) Murriztapena hiltegien jarduera planifikatzeagatik eta hura betetzeagatik.

Ehuneko 20ko murriztapena aplikatzen ahalko dute produkzio prozesuetan plangintza eta programazio sistemak aplikatzen dituzten hiltegiek, sistema horiei esker ikuskapen zerbitzuek gutxienez bost egun natural lehenago jakiterik badute eman beharreko zerbitzuaren data.

f) Kuota osoaren ganean aplikatuko diren murriztapenak bateragarriak dira haien artean, ehuneko 80 gainditzen ez badute.

8. Aldez aurreko baimena murriztapenak aplikatzeko, eta mantendu beharreko baldintzak

a) 7. apartatuan ezarritako murriztapenak aplikatzeko, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak onarpena eman behar du aurretik. Hiru hilabeteko epean jakinarazi beharko da, eskaera tramitazioarako eskumena duen organoaren erregistroan sartzen den egunetik hasita. Eskaera epe horretan ebazten ez bada, ulertuko da interesdunak murriztapenerako eskubidea duela. Epe hori bukatu ondoren eginen duen lehenbiziko autolikidazioan aplikatu beharko da.

b) Murriztapenak aplikatzen jarraitzeko, onarpena ekarri zuten inguruabarrak mantendu beharko dira.

9. Sortzapena.

Abereen eta abere-jatorriko produktuen osasun ikuskapen eta kontroletarako ezarritako tasak sortuko dira 6. apartatuan zerrendatzen diren zerbitzuak ematen diren unean.

10. Likidazioa eta diru-sarrera.

a) Ordezko subjektu pasiboen autolikidazio sistemaren bidez ordainduko dira tasak. Hiruhileko natural batean sortutako tasak hurrengo hilabetearen lehen hogeit egunetan egin beharko da ordainketa.

b) Ez dira autolikidatuko 10 eurotik beherako tasak.

11. Erregistroa izateko betebeharra.

a) Hiltegiatarako, ehizakiak eraldatzeko aretoetako eta zatikatze-aretoetako kontrol ofizialen tasen subjektu pasiboak behartuta daude tasa horiei lotutako eragiketa guztien erregistro bat izatera:

1.) Hildako edo eraldatutako abereen kopurua, haien zenbakia adierazita.

2.) Eragiketen eguna eta ordua.

3.) Abereen pisua, Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak ematen dituen ereduekin bat, formatu elektronikokoak barne.

b) Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak, tributu arloko eskumena duen departamentuarekin batera, aurreko paragrafoan aipatzen diren erregistroen ereduak ezarriko ditu, formatu elektronikokoak barne, elikagaien enpresek bete beharrekoak, bai eta tasa hauen zenbatekoak ordaintzeko aurkeztu behar diren aitorpen eta autolikidazio ereduak ere”.

Zortzi. 51.4 artikulua. 1.2 tarifaren izena, 2. tarifa eta 3. tarifa gehitzea.

“2. Inskripzioa berritzeagatik eta/edo titulartasuna aldatzeagatik edo beste aldaketaren bat egiteagatik erregistro hauetako batean: -Pestiziden establezimenduen eta zerbitzuen erregistro ofiziala. -Babes fitosanitariorako baliabideen ekoizle eta operadoreen erregistro ofiziala (ROPO). Horniketen eta tratamenduen sektoreak. -Landareen operadore profesionalen erregistroa (ROPVEG). -Araztegiko lohiak nekazaritzan erabiltzeko erregistroa	14,00”
--	--------

“2. TARIFA	Makinak eta aplikatzeko beste ekipamendu batzuk inskribatzea	
	1. Nekazaritzako makineriaren erregistroetan inskribatzea eta zirkulazioko kartilla ematea traktore, motor eta bestelako nekazaritzako makinentzako, inportatuak nahiz fabrikazio nazionalakoak izan, berriak edo berreginak.	Prezioaren milako 2, saltzailearen fakturaren arabera, 1.803,00 eurotik aurrera.
	2. Produktu fitosanitarioak aplikatzeko aireontzien eta instalazio iraunkorren erregistroan (REGANIP) inskribatzeagatik aire tratamenduetarako eta instalazio iraunkorretan aplikatzekoak diren ekipamenduak	24,00
3. TARIFA	EOR entseguetarako enpresetarako baimena	400,00”

Bederatzi. 54.4 artikulua.

1. 3. tarifa:

a) Analitika berri bat gehitzen da 15 bis zenbakiarekin.

“15 bis. Azido oleikoa	Gasen kromatografia	7”
------------------------	---------------------	----

b) 24. analitika kentzea eta 25. analitika aldatzea, “Espektrofotometria ultramore – ikusgaia” analitika ezabatzeke, eta “Espektrofotometria ultramore ikusgaia/entzimatikoa” analitikaren tasaren zenbatekoa emateko, 2,28 eurokoa.

c) Glukosa+fruitu 59” analitikaren zenbatekoa aldatzea: 2,28 euro.

2. 6. tarifa gehitzea.

“6. TARIFA	Nafarroako oliba olio birjinaren dastaketa-panela	Euroak
	Oliba olioak ziurtatzeko analisi organoleptikoa	105”

Hamahirugarren artikulua. Nafarroako Toki Ogasunei buruzko Foru Legea.

2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko mar txoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen manu hauek testu hau izanen dute:

Bat. 162.1 artikulua.

“1. Zerga honako kuota hauen arabera eskatuko da:

a) Turismo ibilgailuak:

- 8 zaldi fiskal baino gutxiagokoak: 22,30
- 8 zaldi fiskaletik 12ra bitartean: 62,72
- 12 zaldi fiskal baino gehiagokoak eta gehienez 16koak: 133,78
- 16 zaldi fiskal baino gehiagokoak: 167,30

b) Autobusak:

- 21 leku baino gutxiagokoak: 156,08
- 21 lekutik 50era bitartekoak: 223,01
- 50 leku baino gehiagokoak: 278,77

c) Kamioiak:

- 1.000 kg baino gutxiagoko karga erabilgarria: 78,13
- 1.000 kg-tik 2.999 kg-rainoko karga erabilgarria: 156,08
- 2.999 kg baino gehiagokoa izanik 9.999 kg-rainokoa den karga erabilgarria: 223,01
- 9.999 kg baino gehiagoko karga erabilgarria: 278,77

d) Traktoreak:

- 16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak: 38,32
- 16 zaldi fiskaletik 25erainokoak: 76,61
- 25 zaldi fiskal baino gehiagokoak: 153,02

e) Atoiak eta erdi atoiak:

- 1.000 kg baino gutxiagoko karga erabilgarria: 39,10
- 1.000 kg-tik 2.999 kg-rainoko karga erabilgarria: 78,13
- 2.999 kg baino gehiagoko karga erabilgarria: 156,08

f) Bestelako ibilgailuak:

- Ziklomotorrak: 5,62
- 125 cc-rainoko motozikletak: 8,44

- 125 cc baino gehiagokoak izanik 250 cc-rainokoak diren motozikletak: 13,98
- 250 cc baino gehiagokoak izanik 500 cc-rainokoak diren motozikletak: 27,56
- 500 cc baino gehiagokoak izanik 1.000 cc-rainokoak diren motozikletak: 55,16
- 1.000 cc baino gehiagoko motozikletak: 110,30”

Bj. Honako hauek izanen dira 175.2 artikuluan ezarritako gehieneko koefizienteak:

Koefizientea	Sortzealdia
0,28	20 urte edo hortik gora
0,28	19 urte
0,06	18 urte
0,06	17 urte
0,06	16 urte
0,06	15 urte
0,06	14 urte
0,07	13 urte
0,08	12 urte
0,14	11 urte
0,21	10 urte
0,27	9 urte
0,42	8 urte
0,47	7 urte
0,40	6 urte
0,33	5 urte
0,26	4 urte
0,19	3 urte
0,22	2 urte
0,19	1 urte
0,06	Urtebetetik behera”

Hamalauugarren artikulua. Ekonomia-jardueren gaineko zergaren edo lizentzia fiskalaren tarifak eta jarraibidea onesten dituen Foru Legea.

2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, aldaketa hauek egiten dira Ekonomia-jardueren gaineko zergaren edo lizentzia fiskalaren tarifak eta jarraibidea onesten dituen maiatzaren 28ko 7/1996 Foru Legean:

Bat. Lehen sekzioa, 7. dibisioa, 76. taldea, 761. multzoa, 2 epigrafea eta ohar komuna

“761.2 epigrafea. Telefonía mugikorrekoko zerbitzua.

Kuota nazionala:

1.000 bazkideko edo gelditzen den zatikiko: 137,48 euro.

761. multzoari buruzko ohar komuna: Abonatuaren kopurua kalkulatzeko, telefonia finkoko edo mugikorreko operadore bakoitzaren bezero guztiak hartuko dira kontuan, hurrenez hurren”.

Bi. Lehen sekzioa, 8. dibisioa, 84. taldea, 848. multzoa gehitzea.

“848. multzoa. Bulego malguen, coworking guneen eta negozio-zentroen zerbitzuak.

Gutxieneko udal kuota: 202 euro.

Probintziako kuota: 20.000 euro.

Kuota nazionala: 35.000 euro.

Oharra: Multzo honetan sartzen dira bezeroei (enpresei eta profesionalei) beren jarduera garatzeko behar duten azpiegitura eskaintzen dieten bulego malguk, coworking guneek eta negozio-zentroek emandako zerbitzuak: lan espazioak; bulegoak eta erabat hornitutako bilera-, prestakuntza- edo hitzaldi-gelak; ekitaldiak; lanpostu malguak edo finkoak; komunikazio-zerbitzua; bideokonferentzia eta Internetarako konexioa; bulego birtualak; agirien eta korrespondentziaren kudeaketa; idazkaritza-, catering-a eta ofimatika-zerbitzuak eta abar”.

Hiru. Bigarren atala, 8. dibisioa, 86. taldearen izenburua, 863. multzoa, eta 864. eta 869. multzoak gehitzea

“86. taldea. Lanbide liberal, artistiko, literario eta kulturalak”.

“863. multzoa. Kazetariak eta informazioaren eta komunikazioaren beste profesional batzuk.

Kuota: 115 euro.

Oharra: Epigrafe honetan sailkatutako subjektu pasiboek gaikuntza dute informazioak edo edukiak lortu, tratatu, interpretatu eta zabaltzeko, edozein bitarteko erabiliz, idatzizkoa, ahozkoa, ikusizkoa, digitala edo grafikoa izan, bai eta komunikazio instituzional edo korporatiboko planetan aholku emateko edo horiek gauzatzeko ere.

864 taldea. Idazleak eta gidoilariak.

Kuota: 115 euro.

869 taldea. Hirugarren sekzioan sailkatuta ez dauden jarduera artistiko eta kulturekin loturiko beste profesional batzuk.

Kuota: 115 euro”.

Lau. Bigarren sekzioa, 8. dibisioa, 88. taldea, 889. multzoa gehitzea

“889. multzoa. Mendiko gidariak.

Kuota: 126 euro”.

Bost. Hirugarren sekzioa, 3. taldea, 034. multzoa gehitzea

“034. multzoa. Musikagileak, kanta-idazleak, moldatzaileak eta musika-egokitzzaileak.

Kuota: 100 euro”.

Hamabosgarren artikulua. Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko Foru Legea.

Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legearen manu hauek testu hau izanen dute:

Bat. 27. artikuluari 10. apartatua gehitzea.

“10. Artikulu honetan ezarritako betebeharretik at gelditzen dira foru lege honen 29.2 artikuluan aurreikusitako jakinarazpen kasuak, baldin eta aitortpena egiteko gehieneko epea amaitu aurretik gertatzen badira eta ondasunen aldaketa grafikorik eragiten ez badute”.

Bi. 29.2 artikulua.

“2. Notarioek eta jabetza erregistratzaileek egindako jakinarazpenetan emandako informazioak modu fede-emailean identifikatzen badu jakinarazitako egintza, egitate edo negozio juridikoan aipatzen den higiezin unitatea edo unitateak, Lurralde Aberastasunaren Erregistroko datu zehatzak aldatzeko aukera emanez, bertan zuzenean inskribatuko da”.

Xedapen gehigarri bakarra. Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko plan nazionalaren esparruan emandako laguntzak.

2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege-dekretuaren babesean emandako laguntzak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergatik eta Sozietateen gaineko Zergatik salbuesita egonen dira – errege lege-dekretu horren bidez, Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko, zaugarritasun sozial eta ekonomikoko egoerei aurre egiteko eta La Palma uhartearen susperraldi ekonomiko eta sozialerako zenbait neurri hartu eta luzatzen dira–, bai eta abuztuaren 1eko 14/2022 Errege Lege-dekretuaren babesean emandako laguntzak ere (14/2022 Errege Lege-dekretua, Garraioaren arloko jasangarritasun eko-

nomikoko neurriei buruzkoa, ikasketetarako beka eta laguntzei dagokienez, eta aurrezpen neurriei, energia-efizientziari eta gas naturalaren mendekotasun energetikoa murrizteari buruzkoa).

Halaber egonen dira salbuetsita Enpresa Politikaren, Nazioarteko Proiektzioaren eta Lanaren zuzendari nagusiaren azaroaren 15eko 770/2022 Erabakiari loturik emandako laguntzak, zeinaren bidez onesten baita Nafarroako enpresentzako laguntzen deialdia, energia-kostuek 2022an zehar izandako gorakadari aurre egiteko.

Azken xedapenetako lehena. Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko Foru Legearen aldaketa.

2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Hondakin Uren Saneamenduari buruzko abenduaren 29ko 10/1988 Foru Legearen 13. artikulua 1.a) b eta c) eta 4. apartatuak aldatzen dira, eta testu hau izanen dute:

“a) Saneamenduko sare publikoei lotutako etxeko ur erabilerak: 0,65 euro metro kubiko bakoitzeko.

b) Saneamenduko sare publikoei lotutako ur erabilerak, etxekoak ez direnak: 0,74 euro metro kubiko bakoitzeko. Karga kutsatzaileari dagokion indize zuzentzailea aplikatuko da, hala behar denean, apirilaren 5eko 82/1990 Foru Dekretuan eta abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legearen zazpigarren xedapen gehigarrian araututako moduan.

c) Saneamenduko sare publikoei konektaturik ez dauden baina erakunde eskudunek emandako baimen administratibo beharrezkoak dituzten erabiltzaileak: 0,089 euro metro kubiko bakoitzeko. Ibilgu publikora isurtzeko baimenean ezarritako baldintzak betetzen ez badira, a) edo b) letre-

tan ezarritakoaren arabera dagokion tarifa aplikatuko da”.

“4. Arazketa-instalazio pribatuetatik datozen lohiei tarifa hauek aplikatuko zaizkie tratatuak izateagatik, baldin eta onartzen badira Nafarroako Ibaien Saneamendurako Plan Zuzendariari atxikitako hondakin-uren araztegi-tako lohien lerroetan:

Neurketa	Prezioa
5 m ³ arte	46,30 €
10 m ³ arte	92,60 €
10 m ³ baino gehiago	9,26 €/m ³ ”

Azken xedapenetako bigarrena. Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko abenduaren 29ko 19/2021 Foru Legearen aldaketa.

2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko abenduaren 29ko 19/2021 Foru Legearen xedapen indargabetzaile bakarraren 2. apartatuaren lehenengo paragrafoa aldatzen da, eta testu hau izanen du:

“2. 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin indargabetzen dira:”

Azken xedapenetako hirugarrena. Arauak emateko gaikuntza.

Nafarroako Gobernuak foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak jaulkiko ditu.

Azken xedapenetako laugarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako efektuekin.

10-22/LEY-00016. Foru Legea, finantza-transakzioen gaineko zergari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko abenduaren 22an egindako Osoko Bilkuran, finantza-transakzioen gaineko zergari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2022ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, finantza-transakzioen gaineko zergari buruzkoa

HITZAURREA

Europar Batasunaren eremuan, lankidetzaprozedura indartu bat garatzen ari da, finantza-transakzioen gaineko zerga baten ezarpen harmonizatuari buruzko zuzentarau bat onartzeko. Espainiak ere parte hartzen du prozedura horretan.

Hala ere, zuzentarau hori egiteko prozesuan aurrera egiten den bitartean, Estatuan Finantza-transakzioen gaineko Zergari buruzko urriaren 15eko 5/2020 Legea onartu da, finantza publikoak finkatzeko helburuari laguntzeko eta zerga-sistemaren ekitate-printzipioa indartzeko, kontuan hartu behar baita izaera orokorrarekin zergapetutako eragiketak ez daudela inolako zergari lotutako zeharkako zergen esparruan.

Zergaren konfigurazioak gure inguruko legediek hartutako ildoari jarraitzen dio, eta, horrela, European karga horien koordinazio handiagoa lortzen laguntzen du.

Aipatutako 5/2020 Legean xedatutakoaren arabera, zergak Espainiako sozietateen akzioen kostu bidezko eskuratzea zergapetzen du, edozein izanik ere erosketa egiten den lekua eta eragiketan esku hartzen duten pertsonen edo entitateen egoitza edo establezimendua.

Lege horren beraren azken xedapenetako laugarrenak dioenez, Estatuako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabeteko epean Hitzarmen Ekonomikoa egokitzea erabakiko da, 28/1990 Legearen bidez onetsitako Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa 6. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa arabera (hitzarmen horri idazpen berria eman zitzaion urriaren 19ko 22/2022 Legean), Nafarroako Foru Komunitateak, Estatu Administrazioak edo bi administrazioek ordainaraziko dute finantza-transakzioen gaineko zerga, likidazio-aldian lurralde bakoitzean egindako eragiketa-bolumenaren proportzioan. Proportzio hori zehazteko, kontuan hartuko da egoitza soziala lurralde erkidean edo foru lurraldean duten sozietateen akzioei dagozkien eragiketen zergaren zerga-oinarriak subjektu pasiboaren guztirako zerga-oinarriarekiko egiten duen ehuneko.

Hitzarmen Ekonomikoa idazketa berriarekin bat etorritik, finantza-transakzioen gaineko zergaren ordainarazpenean, Nafarroako Foru Komunitateak Estatuak une bakoitzean ezarritako arau substantibo eta formal berberak aplikatuko ditu.

Foru lege honen xedea da finantza-transakzioen gaineko zerga arautzea Nafarroako Foru Komunitatean.

Zergaren zerga-egitatea Espainiako sozietateen akzioak kostu bidez eskuratzean datza, eragiketan parte hartzen duten pertsonen edo entitateen egoitza edozein dela ere.

Horrenbestez, jaulkipen-printzipioa ezartzen da zergapetze-printzipio gisa, horrela finantza-bitartekarien deslokalizazio-arriskua murrizten delako, bizileku-printzipioarekin alderatuta. Kontuan hartu behar da Espainiako sozietateen akzioek zergak ordaindu behar dituztela, finantza-bitartekariaren egoitza edo establezimendua edo negoziatzen diren lekua edozein dela ere.

Halaber, lehen aipatutako akzioen adierazgarri diren gordailu-ziurtagiriek ere karga ordaindu beharko dute.

Hala ere, zerga ez da aplikatzen Espainiako sozietateen akzioen eskurapen guztietan; aitzitik, merkatu arautu batean negoziatzeko onartutako akzioak dituzten sozietateen akzioetara mugatzen da, transakzioa negoziazio-zentro batean egin ala ez, eta, gainera, 1.000 milioi eurotik gorako burtsako kapitalizazio-balioa duten sozietateen akzioetara. Atalase horren bidez lortu nahi da zergak ahalik eta gutxien eragitea merkatuaren likidezari, eta, aldi berean, bermatzea zergaren bil-

keta potentzialaren ehuneko oso handi bat lortuko dela.

Salbuetsita geratzen dira lehen mailako merkaturko eragiketa jakin batzuk, merkaturaren funtzionamendu egokirako beharrezkoak direnak, enpresak berregituratzeko eragiketetatik edo desegite-neurrietatik datozenak, talde bereko sozietateen artean egiten direnak eta aldi baterako lagapenak.

Zergaren sortzapena ezartzen da zerga-oinarria eratzen duen kostu bidezko eskurapenaren xede diren baloreen gaineko idatzoharra, zergadunaren aldekoa, egiten den unean, bai idatzohar hori balore-kontu batean egiten denean, bai gordailu- edo zaintza-zerbitzua ematen duen finantza-entitate bateko liburutetan egiten denean, bai baloreen gordailuzain zentral baten erregistroetan egiten denean, edo entitate parte-hartzaileek egiten dituztenetan.

Zerga-oinarria kontraprestazioaren zenbatekoa da, transakzioari lotutako gastuak sartu gabe. Hala ere, arau berezi batzuk ezartzen dira baloreen eskurapena obligazio edo bonu bihurtzeko edo trukagarriak, finantza-tresna deribatuak edo edozein finantza-tresna edo -kontratu betearaztearen edo likidatzearen ondorio den kasuetarako, bai eta egun berean egindako eskuratzeeen eta eskualdatzeen kasuan ere.

Zergaren zergaduna baloreen eskuratzaila da. Oro har, eskurapen-agindua eskualdatzen edo betearazten duen finantza-bitartekaria da subjektu pasiboa, dela bere kontura jarduten duena (kasu horretan subjektu pasiboa izanen da, zergadun gisa), dela hirugarrenen kontura (kasu horretan, zergadunaren ordezkaria izanen da).

Azkenik, zergaren aitortpenari eta diru-sarrerari dagokionez, foru agindu bidez prozedura garatzea aurreikusten da, bai eta Espainian ezarritako baloreen gordailuzain zentral batek, subjektu pasiboaren izenean eta haren kontura, tributu-zorren aitortpena eta diru-sarrera egiten duen kasuak ere. Horrela, automatizazio-maila handia lor daiteke kudeaketan.

Aurreko prozedura aplikatu ezin den kasuetarako, oro har, subjektu pasiboaren autolikidazio-sistema ezartzen da.

Ondorio horietarako, eta zergapetutako eragiketak egiten diren lekua edozein dela ere zergaren eraginkortasuna bermatzeko, araudian informazioa lortzeko aurreikusitako legezko tresna guztiak erabiliko ditu zerga administrazioak. Berezi, nazioarteko itun eta hitzarmenetan aurreikusitakoak, bai eta Erkidegoaren altxorrean aurrekusi-

takoak ere, hala nola Kontseiluaren 2011ko otsailaren 15eko 2011/16/EB Zuzentarau araututakoak. Zuzentaru hori fiskalitatearen arloko lankidetzaren administratiboari buruzkoa da eta 77/799/EEE Zuzentaru indargabetzen du.

Era berean, prozedura bat sartzen da, autolikidazioan bertan modu arinean zuzentzeko behar ez bezala aitortutako eragiketak, aurreko autolikidazio batean sartutako kuotak eragin dituztenak, eta zuzenketa egin den autolikidazioaren emaitza ez da inola ere negatiboa izanen.

Azpiratu behar da, orain arte azaldutakoaren arabera, arau-testu hau bat datorrela Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Foru Sektore Publiko Institutuzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 129. artikuluan aurreikusitako premiaren, eraginkortasunaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientziaren printzipioekin.

Arauk tributu baten sorrera arautzen du, eta, beraz, beharrezkoa da foru lege mailako arau baten bidez onartzea, maila txikiagoko beste arau-aurkerarik kontuan hartu gabe. Foru lege berria tresna egokia da, eraginkortasunari dagokionez, bertan aurreikusitako politika ekonomiko orokorreko helburuak lortzeko: finantza publikoak sendotzeko helburuari laguntzea, eta tributu sistemaren ekitate-printzipioa indartzea, kontuan hartuta, oro har, tributaziopean jartzen diren eragiketak ez daudela inolako zergari lotutako zeharkako zergapetzearen eremuan.

Proportzionaltasunaren printzipioa ere betetzen da, lortu nahi ziren helburuak hertsiki lortzen saiatu baita, merkatu arautu batean negoziatzeko onartutako akzioak dituzten eta, gainera, 1.000 milioi eurotik gorako burtsako kapitalizazio-balioa duten Espainiako sozietateen akzioak eskuratzea bakarrik kontuan hartuta.

Segurtasun juridikoaren printzipioari dagokionez, arau-proiektua foru-ordenamendu juridikoarekin koherentea dela bermatu da.

Gardentasunaren printzipioari dagokionez, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, horretaz gainera, gardentasuna bermatuta geldituko da proiektua eta memoria Nafarroako Gobernu Irekiaren atarian ere argitaratuko baitira, entzunaldia emateko tramitean eta jendaurrean jartzeko tramitean daudenean herritarrek testu horiek ezagutzeko aukera izanen baitute.

Efizientziaren printzipioari dagokionez, saiatu da arauak ahalik eta administrazio-karga eta zeharkako kostu gutxien izaten eta baliabide publi-

koen arrazoizko erabilera sustatzen. Ildo horretan, zergadunei eskatzen zaizkien informazio- eta dokumentazio-eskakizunak behar-beharrezkoak dira zerga administrazioak haien jardueraren kontrol minimoa bermatzeko.

1. artikulua. Izaera, helburua eta aplikazio eremua.

1. Finantza-transakzioen gaineko zerga zeharkako zerga da, foru lege honetan aurreikusitako moduan akzioen eskurapenak zergapetzen dituen.

2. Zerga aplikatuko da erosketaren lekua eta eragiketan esku hartzen duten pertsonen edo entitateen egoitza edo establezimendua edozein dela ere.

3. Foru Komunitateari dagokio zerga ordainaraztea eta ikuskatzea, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 40 bis artikuluan ezarritako irizpideekin bat etorritik.

2. artikulua. Zerga-egitatea.

1. Zergapetuta egonen dira Espainiako nazionalitateko sozietateen kapital soziala ordezkatzeko duten Kapital Sozietateen Legearen testu bateginaren 92. artikuluan zehaztutako kostu bidezko akzioen eskurapenak (testu bategin hori uztailaren 2ko 1/2010 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen), honako baldintza hauek betezen direnean:

a) Sozietateak bere akzioak Espainiako edo Europar Batasuneko beste estatu bateko merkatu batean negoziatzeko onartuta izatea, eta merkatu hori finantza-tresnen merkatuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko maiatzaren 15eko 2014/65/EB Zuzentarauan aurreikusitakoaren arabera araututa egotea, edo zuzentarau horren 25.4 artikuluan xedatutakoaren arabera hirugarren herrialde bateko merkatu batean.

b) Sozietatearen burtsako kapitalizazio-balioa, erosi aurreko urteko abenduaren 1ean, 1.000 milioi eurotik gorakoa izatea.

Apartatu honetan aipatzen diren eskurapenak zergari lotuta egonen dira, alde batera utzita negoziazio-zentro batean egiten diren, aipatutako zuzentarauaren 4.1.24 artikuluan definitzen den bezala; beste edozein merkatu edo kontratazio-sistematan; barneratzaile sistematik baten bidez, urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Balore Merkatuaren Legearen testu bateginaren 331. artikuluan definitzen den bezala; edo kontratatzaileen arteko zuzeneko akordio bidez.

2. Honako hauek ere zergapetuko dira:

a) Balore negoziagarrien kostu bidezko eskurapenak, horiek eratzten direnean 1. apartatuan aipatutako akzioen adierazgarri diren gordailu-zurtagiriekin, balore horien entitate jaulkitzailearen establezimenduen lekua edozein dela ere.

Hala ere, ez dira zergari lotuta egonen aurreko paragrafoan aipatutako baloreen jaulkipenerako bakarrik egindako akzio-erosketak. Era berean, ez dira zergari lotuta egonen a) letra honetan aipatzen diren gordailu-zurtagirien eskurapenak, eskuratzailak adierazten dituzten akzioak ematearen truke egindakoak, ez eta gordailu-zurtagiri horiek ezerezteko egindako eragiketak ere, adierazten dituzten akzioak titularrei emanaz.

b) Artikulu honen 1. apartatuan eta paragrafo honen a) letran aipatutako baloreen eskuratzak, baldin eta obligazio edo bonu bihurtzeko edo trukagarriak, finantza-tresna eratorriak edo edozein finantza-tresna betearaztearen edo likidatzearen ondorio badira, edo azaroaren 10eko EHA/3537/2005 Aginduaren (Balore Merkatuari buruzko uztailaren 28ko 24/1988 Legearen 27.4 artikulua garatzen duena) bigarren artikuluan 1. apartatuaren laugarren paragrafoan definitutako finantza-kontratuak gauzatzearen edo likidatzearen ondorio badira.

3. artikulua. Salbuespenak.

1. Zerga ordaintzetik salbuetsita egonen dira honako akzio eskurapen hauek:

a) Akzioak jaulkitzearen ondoriozko eskurapenak.

Era berean, balore horiek sortzeko bakarrik jaulkitako akzioak adierazten dituzten eta 2.2.a) artikuluan aipatzen diren gordailu-zurtagiriak jaulkitzetik eratorritako eskurapenak salbuetsita egonen dira.

b) Akzioak saltzeko eskaintza publiko batetik eratorritako eskurapenak, inbertitzaileen arteko hasierako kokapenean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017ko ekainaren 14ko 2017/1129 (EB) Erregelamenduan eta urriaren 23ko 4/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartutako Balore Merkatuaren Legearen testu bateginean definitzen den moduan.

c) Aurreko a) eta b) letretan aipatutakoen aurretik egindako eskurapenak, jaulkitzaile edo eskaintzaileek akzio horiek azken inbertitzaileen artean azken banaketa egiteko asmoz kontratatutako jartzaile eta aseguratzaileek izaera instrumentalarekin egindakoak, bai eta jartzaile gisa

dituzten betebeharrak betez eta, bereziki, hala badagokio, eragiketa horien aseguratzaile gisa egindako eskurapenak ere.

d) Prezioak egonkortzeko ardura duten finantza-bitartekariak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 16ko 596/2014 (EB) Erregelamenduan (merkatu-abusuari buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003/6/EE Zuzentaraua eta Batzordearen 2003/124/EE, 2003/125/EE eta 2004/72/EE zuzentarauak indargabetzen dituen) jasotako aurreikuspenen arabera egonkortze-enkargu baten esparruan egindako eskurapenak, burtsan akzioak onartzearen testuinguruan.

e) Erosketa- edo mailegu-eragiketetatik eta kontrapartida zentralako entitate batek edo baloreen gordailuzain zentral batek zerga honi lotutako finantza-tresnen gainean egindako gainerako eragiketetatik eratorritako eskurapenak, bakoitzari dagozkion eginkizunak betez konpentsazioaren edo baloreen likidazio eta erregistroaren eremuan.

Letra honetan sartzera kontrapartida zentralako entitatearen berezko nobazio-eragiketak, bai eta likidazioaren akats baten ondoriozko berresketa-eragiketa baten esparruan egindako eragiketak ere, Europar Batasunean baloreen likidazioa hobetzeari eta baloreen gordailuzain zentralen buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko uztailaren 23ko 909/2014 (EB) Erregelamenduaren arabera, zeinaren bidez 98/26 (EE) eta 2014/65 (EB) zuzentarauak eta 236/2012 (EB) Erregelamendua aldatzen baitira.

f) Finantza-bitartekariak, akzioen jaulkitzailearen kontura eta likidezia-hornitzaile gisa dituzten eginkizunak betez, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren apirilaren 26ko 1/2017 Zirkularrean eskatutako baldintzak betetzen dituen likidezia-kontratu baten bidez egindako eskurapenak, baldin eta haien helburu bakarra bada eragiketen likidezia eta akzioen kotizazioaren erregulartasuna erraztea, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko apirilaren 16ko 596/2014 (EB) Erregelamenduan (merkatu-abusuari buruzkoa) aurreikusitakoaren arabera onartutako merkatu-praktiken esparruan.

g) Merkatua sortzeko jardueren esparruan egindako eskurapenak.

Ondorio horietarako, halakotzat hartzen dira inbertsio-zerbitzuetako enpresa baten, kredituentitate baten edo hirugarren herrialde bateko entitate baliokide baten jarduerak, baldin eta negoziazio-zentro bateko edo hirugarren herrialde bateko merkatu bateko kide badira eta Europako

Batzordeak haren esparru juridikoa eta gainbegiratze-esparrua baliokidetzat jo baditu, entitate horietako edozeinek bere konturako bitartekari gisa jarduten badu, negoziazio-zentro baten barnean edo kanpoan negoziatutako finantza-tresna bati dagokionez, honako modu hauetakoaren batean:

1. Aldi berean, antzeko magnitude eta baldintza lehiakorreko salerosketako kotizazio irmoak iragarriz, eta, horrela, merkatuari erregulartasunez eta etengabe likidezia emanaz.

2. Ohiko jardueraren esparruan, bezeroek hasitako aginduak betez edo bezeroek egindako salerosketa-eskaerei erantzunez.

3. 1. eta 2. zenbakietan aipatzen diren jarduerak gauzatzearen ondoriozko posizioak betez.

Salbuespen hori aplikatuko da, halaber, letra honetan aurreikusitako modu berean, eskurapenen xedea 2.2.a) artikulua lehenez paragrafoan aipatutako baloreak direnean.

h) Talde bereko entitateen artean akzioak eskuratzea, Merkataritza Kodearen 42. artikulua arabera.

i) Bat-egite, zatiketa, aktibo-ekarpen, balore-truke eta Europako sozietate edo kooperatiba-sozietate baten egoitza soziala Europar Batasuneko estatu kide batetik beste batera aldatzeko araubide berezia, Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legearen VIII. tituluko VIII. kapituluaren araututakoa, aplikatutako eskurapenak.

Era berean, inbertsio kolektiboko entitateen edo inbertsio kolektiboko entitateen konpartimentu edo azpifuntsen fusio- edo zatiketa-eragiketengatik sortutako eskurapenak, horiek dagozkien araudian aurreikusitakoaren babesean egiten direnean.

j) Baloreak finantzatzeko eragiketak, Baloreak finantzatzeko eta berrerabiltzeko eragiketen gardentasunari buruzko eta 648/2012 (EB) Erregelamendua aldatzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko azaroaren 25eko 2015/2365 (EB) Erregelamenduaren 3.11 artikuluan aipatutakoak, bai eta titulartasun-aldaketa dakarren finantza-bermeko akordio baten ondoriozko titulartasun-aldaketa duten alboko eragiketak ere, aipatutako erregelamenduaren 3.13 artikuluan definitzen den bezala.

k) Suntsiarazpen Batzorde Bakarrak edo suntsiarazpen-agintaritzak nazional eskudunek hartutako suntsiarazpen-neurriak aplikatuz eratorritako eskurapenak, Europako Parlamentuaren eta Kon-

tseiluaren 2014ko uztailaren 15eko 806/2014 (EB) Erregelamenduan, zeinak arau uniformeak eta prozedura uniformea ezartzen baititu kreditu-entitateak eta inbertsio-zerbitzuetarako enpresa jakin batzuk suntsiarazteko, Suntsiarazpen Mekanismo Bakarraren eta Suntsiarazpen Funts Bakarraren esparruan, eta 1093/2010 (EB) Erregelamendua aldatzen baitu, eta Kreditu-entitateak eta inbertsio-zerbitzuetarako enpresak berreskuratu eta suntsiarazteari buruzko ekainaren 18ko 11/2015 Legean aurreikusitako baldintzetan.

l) Akzio propioak edo sozietate nagusiaren akzioak eskuratzea, Merkataritza Kodearen 42. artikulua araberako beste edozein entitate eginak, berrerosketa-programa baten esparruan, baldin eta programa horren xede bakarra honako helburu hauetakoren bat bada:

Lehena. Jaulkitzailearen kapitala murriztea.

Bigarrena. Akzio bihur daitezkeen zorraren finantza-tresnei datzekien betebeharrak betetzea.

Hirugarrena. Jaulkitzailearen edo taldeko entitate baten administrazio- edo ikuskapen-organotako enpleguetarako edo kideendako akzio-aukeren edo bestelako akzio-esleipenen programetatik eratorritako betebeharrak betetzea.

m) Honako hauek egindako eskurapenak: Pentsio Planak eta Funtsak Arautzeko Legearen testu bateginean (azaroaren 29ko 1/2002 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartu zen) araututako enpleguak pentsio-funtsek; aurrekoak ez diren eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentarauan (enpleguak pentsio-funtsen jardueri eta gainbegiratzeari buruzkoa) araututa dauden enpleguak pentsio-funtsek; gizarte-aurreikuspeneko mutualitateak, baldin eta, Aseguru- eta berraseguru-entitateen antolamendu, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzko uztailaren 14ko 20/2015 Legearen 43.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, enpresen gizarte-aurreikuspeneko tresna gisa jarduten badute; edo enpleguak borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak, zeinak Euskal Autonomia Erkidegoko 5/2012 Legearen 7. artikuluan definituta baitaude.

2. Hirugarrenen kontura jarduten duen subjektu pasiboak 1. apartatuan ezarritako salbuespenak aplikatu dituzten, eskuratzailerak jakinarazi beharko dituzten aplikazio hori eragiten duten egitatezko kasuak gertatzen direla, bai eta honako informazio hau ere:

a) Aurreko a), b) eta c) letretan jasotako salbuespenei dagokionez, jaulkipenak edo akzioak

saltzeko eskaintza publikoa identifikatu beharko ditu.

b) Aurreko e) letretan jasotako salbuespenari dagokionez, baloreen konpentsazio-, likidazio- eta erregistro-eragiketak egiten dituen entitatearen identifikazioa.

c) Aurreko f) letretan jasotako salbuespenari dagokionez, likidezia-hornitzailearen eragiketak egiten dituen entitatearen identifikazioa. Era berean, likidezia-kontratuaren merkaturako iragarkia aurkeztu beharko da.

d) Aurreko h) letretan jasotako salbuespenari dagokionez, sozietate-taldearen identifikazioa.

e) Aurreko i) letretan jasotako salbuespenari dagokionez, enpresak berregituratzeko prozesuak eraginpeko entitateen identifikazioa, edo bat-egitean edo zatitzean inplikaturako inbertsio kolektiboko entitateena, dagokion agintaritza eskudunaren eragiketa-baimenarekin batera.

f) Aurreko j) letretan jasotako salbuespenari dagokionez, finantzaketa-eragiketan edo titulartasun-aldaketa dakarten alboko eragiketetan esku hartzen duten entitateen identifikazioa.

g) Aurreko k) letretan jasotako salbuespenari dagokionez, suntsiarazteko neurriak hartzen dituen erabakiaren identifikazioa.

h) Aurreko l) letretan jasotako salbuespenari dagokionez, eragiketen berrerosketa-programaren identifikazioa.

i) 1. apartatuko m) letretan jasotako salbuespenari dagokionez, enplegu-pentsioen funtsa identifikatzea, adieraziz pentsio-funtsa Pentsio Planak eta Funtsak arautzeko Legearen testu bateginean araututakoa den (azaroaren 29ko 1/2022 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsi zen) edo Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentarauan (enpleguak pentsio-funtsen jardueri eta gainbegiratzeari buruzkoa) araututakoa den edo gizarte-aurreikuspeneko mutualitate batekoa den edo borondatezko gizarte-aurreikuspeneko entitate batekoa den.

Apartatu honetan aipatzen diren entitateak identifikatzeko, beharrezkoa izanen da, hala bada, Erakunde Juridikoaren Identifikatzailea (LEI, ingelesezko siglen arabera) jakinaraztea.

Subjektu pasiboak eta eskuratzailerak zerga administrazioaren eskura gorde beharko dituzte jakinarazpenaren gauzatzea eta edukia egiaztatzen dituzten egiaztagirak.

4. artikulua. Sortzapena.

Zerga sortuko da baloreen erregistroko idatzoharra eroslearen alde egiten den unean, baloreen kontu edo erregistro batean, dela zaintza-zerbitzua ematen duen entitate batean, dela baloreen gordailuzain zentral baten sisteman, baloreak eskuratzea eragiten duen eragiketaren edo finantza-tresnaren likidazioaren ondorioz.

5. artikulua. Zerga-oinarria.

1. Zerga-oinarria zergari lotutako eragiketen kontraprestazioaren zenbatekoak osatuko du, merkatuko azpiegituren prezioetatik eratorritako transakzio-kostuak, bitartekaritzagatiko komisioak eta eragiketari lotutako bestelako gastuak sartu gabe.

Kontraprestazioaren zenbatekoa adierazten ez bada, zerga-oinarria izanen da kasuko balioaren likideziagatiko merkatu arautu garrantzitsuenaren itxierari dagokion balioa, eragiketaren aurreko azken negoziazio-egunean duena. Ondorio horietarako, likideziari dagokionez, merkatu garrantzitsuena zein den zehaztuko da Batzordearen 2016ko uztailaren 14ko 2017/587 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren 4. artikulua araberak. Erregelamendu horrek finantza-tresnen merkatuei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 600/2014 (EB) Erregelamendua osatzen du, akzioei, gordailuzainaren ordainagiriei, kotizatutako funtsei, ziurtagiriei eta antzeko finantza-tresnei dagokienez negoziazio-zentroei eta inbertsio-zerbitzuetako enpresei aplikatu beharreko gardentasun-eskakizunei buruzko erregulazio-arau teknikoiei eta akzio jakin batzuei dagokienez negoziazio-zentro batean edo barneratzaile sistematiko baten bidez eragiketak egiteko betebeharrei dagokienez.

2. 1. apartatuan xedatutakoa gorabehera, honako arau berezi hauek aplikatuko dira zerga-oinarria zehazteko:

a) Eskurapena zergapeko baloreen erosketa bonu edo obligazio bihurtuari edo trukagarrietatik edo eskurapen hori eragiten duten beste balore negoziagarri batzuetatik badator, horien jaulkipen-dokumentuan zehaztutako balioa izanen da zerga-oinarria.

b) Eskurapena baloreak eskuratzeko edo eskualdatzeko eskubidea ematen duten aukerak edo bestelako finantza-tresna deribatutako exekutatu edo likidatuzetik badator, kontratuan finkatutako ekitaldiko prezioa izanen da zerga-oinarria.

c) Eskurapena eperako transakzio bat osatzen duen tresna deribatu batetik badator, zerga-oinarria itundutako prezioa izanen da, deribatu hori

merkatu arautu batean negoziatzen denean izan ezik; kasu horretan, zerga-oinarria erosketa hori mugaegunean ordaindu behar den entrega-prezioa izanen da.

d) Eskurapena 2.2.b) artikuluan aipatutako finantza-kontratu baten likidaziotik badator, zerga-oinarria artikuluko honetako 1. apartatuko bigarren paragrafoan aurreikusitakoaren arabera zehaztuko da.

Hirugarrenen kontura jarduten duen subjektu pasiboak apartatu honetan aurreikusitako arau bereziak aplikatzeko, eskuratzailak jakinarazi beharko dio aplikazio hori eragiten duten egitatezko kasuak gertatzen direla, bai eta kasu bakoitzean zerga-oinarria kuantifikatzeko beharrezkoak diren elementu erabakigarriak ere.

3. Egun berean, subjektu pasibo berak eskuratzaila berari dagokionez, zergari lotutako balio beraren eskurapenak eta eskualdaketak egiten badira, subjektu pasibo berak aginduta edo egikarrituta, eta, gainera, data berean likidatzen badira, eskurapen horiei dagokien zerga-oinarria honela kalkulatu da: egun berean eskualdatutakoak eskuratutako balore-kopuruari kenduz ateratzen den diferentzia positiboa biderkatuko da eskurapen horien kontraprestazioen batura eskuratutako balore-kopuruaz zatituz ateratzen den zatidurarekin. Kalkulu hori egiteko, kanpoan utziko dira 3. artikuluan aurreikusitako eskurapen salbuesiak, bai eta salbuespen horien aplikazio-esparruan egindako eskualdaketak ere.

6. artikulua. Zergadunak, subjektu pasiboak eta arduradunak.

1. 2. artikuluan aipatzen diren baloreen eskuratzaila da zergaren zergaduna.

2. Zergaren subjektu pasiboa da, ezarrita dagoen tokia edozein dela ere:

a) Erosketa bere kontura egiten duen inbertsio-zerbitzuetako enpresa edo kreditu-entitatea.

b) Erosketa inbertsio-zerbitzuetako enpresa batek edo bere kontura diharduen kreditu-entitate batek egiten ez badu, zergadunaren ordeko subjektu pasibo izanen dira:

Lehena. Erosketa negoziazio-zentro batean egiten bada, hura egikaritzen duen merkatuko kidea izanen da subjektu pasiboa. Hala ere, agindua merkatuko kideari helaraztean finantza-bitartekari batek edo gehiagok esku hartzen badute eskuratzailaren kontura, agindua eskuratzailarengandik zuzenean jasotzen duen finantza-bitartekaria izanen da subjektu pasiboa.

Bigarrena. Eskurapena negoziazio-zentro bate-tik kanpo egiten bada, barneratzaile sistematiko baten jardueraren eremuan, subjektu pasiboa barneratzaile sistematikoa bera izanen da. Hala ere, eskurapenean finantza-bitartekari batek edo gehiagok esku hartzen badute eskuratzaillearen kontura, agindua eskuratzaillearengandik zuzenean jasotzen duen finantza-bitartekaria izanen da subjektu pasiboa.

Hirugarrena. Eskurapena negoziazio-zentro batetik eta barneratzaile sistematiko baten jardueratik kanpo egiten bada, subjektu pasiboa baloreen eskuratzaillearen agindua jasotzen duen finantza-bitartekaria izanen da, edo azken horri entregatzen diona finantza-tresna edo -kontratu baten exekuzioaren edo likidazioaren arabera.

Laugarrena. Erosketa negoziazio-zentro bate-tik kanpo eta aurreko paragrafoetan aipatutako pertsona edo entitateen esku-hartzerik gabe egiten bada, subjektu pasiboa izanen da baloreen gordailu-zerbitzua eskuratzaillearen kontura ematen duen entitatea.

Ondorio horietarako, eskuratzailleak gordailu-zerbitzua ematen duen entitateari jakinarazi beharko dizkio zerga sartzeko betebeharrak zehazten duten inguruabarrak, bai eta zergaren kuantifikazioa ere.

3. Tributu-zorraren erantzule solidarioa izanen da subjektu pasiboari 3. artikuluan aurreikusitako salbuespenak behar ez bezala aplikatzea eragin duen informazio okerra edo zehaztugabea jakinarazi dion baloreen eskuratzaillea, edo 5.2 artikuluan aurreikusitako zerga-oinarria zehazteko arau bereziak oker aplikatzearen ondoriozko zerga-oinarri txikiagoaren eskuratzaillea.

Zerga-oinarria zehazteko arau bereziak edo salbuespenak modu okerrean edo behar ez bezala aplikatzeari dagokion zerga-zorraren gainekoa izanen da erantzukizuna.

Era berean, 2.b) Laugarrena apartatuan aipatzen den kasuan, zenbaki horretan aipatzen den jakinarazpena egin ez duten baloreen eskuratzaillea izanen da erantzule solidario, edo komunikazioa okerra edo zehaztugabea eman duena.

Erantzukizuna komunikazio ezaren edo komunikazio okerraren edo zehaztugabearen ondoriozko zerga-zorrari dagokio.

7. artikulua. Zerga-tasa.

Zergaren tasa 100eko 0,2koa izanen da.

8. artikulua. Aitortu eta ordaintzeko betebeharrak eta dokumentatzeko betebeharrak.

1. Subjektu pasiboek autolikidazioa aurkeztu beharko dute, eta zerga-zorraren zenbatekoa ordaindu, zerga arloan eskumena duen departamentuko titularrak ezarritako edukiarekin eta tokian, moduan eta epeetan.

2. Zerga arloan eskumena duen departamentuko titularrak ezartzen dituen termino eta baldintzetan, subjektu pasiboek autolikidazioa aurkeztuko dute, eta ondoriozko zerga-zorraren zenbatekoa ordainduko dute Espainian ezarritako baloreen gordailuzain zentral baten bidez.

Ondorio horietarako, subjektu pasiboak behar-tuta egonen dira baloreen gordailuzain zentralari autolikidazioan jaso beharreko informazio guztia jakinaraztera eta ateratzen den zerga-zorraren zenbatekoa ordaintzera, zuzenean edo entitate parte-hartzaileen bitartez, izaera hori ez duten subjektu pasiboaren kasuan.

Baloreen gordailuzain zentralak subjektu pasibo bakoitzeko autolikidazio bat aurkeztuko du subjektu pasiboaren izenean eta haren kontura, eta likidazio-aldiari dagokion zerga-zorraren zenbatekoa ordainduko du, zerga arloan eskumena duen departamentuko titularrak ezartzen duen edukiarekin, tokian, moduan eta epean.

Apartatu honetan aipatzen den zerga horren autolikidazioak aurkezteko eta ordaintzeko prozedura Europar Batasuneko beste estatu batzuetan edo Europar Batasunean zerbitzuak emateko aitortzen diren hirugarren estatuetan ezarritako beste balore-gordailuzain zentral batzuetara zabaltzen ahalko da, Espainian finkatutako balore-gordailuzain zentral batekin sinatutako lankidetzakordioaren bidez.

3. Likidazio-aldia hilabete naturala da.

Zerga honi dagokion zerga-zorra ezin izanen da geroratu edo zatikatu.

4. Baloreen gordailuzain zentralak, 2. apartatuan xedatutakoa aplikatuz, autolikidazioak aurkezteak eta zerga-zorra ordaintzeak ez du sortuko ez berarentzat, ez haren entitate parte-hartzaileentzat, aurkezpen eta diru-sarrera horrengatik berariazko zerga-erantzukizunik.

5. Espainian ezarritako balore-gordailuzain zentralak, haren entitate parte-hartzaileek eta zergaren subjektu pasiboek, zergaren kontrola eta kudeaketa errazte aldera, zergari lotutako eragiketari buruzko dokumentazioa edo fitxategiak mantendu beharko dituzte zerga administrazioaren eskura.

Baloreen gordailuzain zentralak eta haren entitate parte-hartzaileek 2. apartatuan xedatutakoa aplikatuz subjektu pasiboak jakinarazitako informazioa soilik erabiltzen ahalko dute apartatu horretan aipatzen den autolikidazioa aurkezteko eta diru-sarrera egiteko betebeharrak betetzeko. Informazio hori zerga-administrazioari jakinarazi beharko zaio, zerga-araudian aurreikusitako kasuetan.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa izan ezik, informazio hori isilpekoa da. Baloreen gordailuzain zentrala eta haren entitate parte-hartzaileak hari buruzko isiltasun zorrotz eta osoenaren mende gelditzen dira.

9. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak.

Foru lege honetan eta foru legea garatzeko araudian xedatutakoa ez betetzetik heldu diren tributu arloko arau-hausteak Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorrean xedatutakoaren arabera kalifikatu eta zehatuko dira.

Xedapen gehigarri bakarra. Autolikidazioak zuzentzeko prozedura berezia

Zergaren zerga-kuota ordaintzea eragin duen eragiketa bati dagokionez, subjektu pasiboak akats bat edo zuzendu beharreko beste inguruabar batzuk atzematen dituenean, eta, horren ondorioz, eragiketa horren ondorioz ordaindutako zerga-kuota desegokia edo gehiegizkoa dela ondorioztatzen denean, subjektu pasiboak eragiketa zuzentzen ahalko du aipatutako zerga-kuota ordaindu eta hurrengo 4 urteetan aurkezten den zergaren autolikidazioaren batean, eta, horretarako, kuota edo gaindikin hori murriztuko du zuzenketa egiten den autolikidazioari dagokion ordaindu beharreko kuotaren zenbatekotik, baina azken horren emai-

tza ez da inola ere negatiboa izanen. Zerga arloan eskumena duen departamentuko titularrak erabakiko du zuzendu beharreko eragiketari buruz zer informazio sartu behar den autolikidazioan.

Aurreko paragrafoan aipatzen den eragiketak zuzentzeko prozedurak ez die kalterik egingen zerga administrazioari zergaren likidazio zuzena zehazteko dagozkion egiaztatze-ahalmenei.

Artikulu honen lehenengo paragrafoan xedatutakoaren arabera egindako zuzenketa bateraezina izanen dira abuztuaren 19ko 188/2002 Foru Dekretuaren 14. artikuluan aurreikusitako aitortpen-likidazioak edo autolikidazioak zuzentzeko eskaerarekin (188/2002 Foru Dekretua, abuztuaren 19koa, zerga gaietako diru-sarrera bidegabekak nola itzuli eta tributupekoen tritutu-jarduketan gaineko zuzenketa, aurkaratze eta eztabaiden eskaerak arautzen dituena), xedapen honen lehen paragrafoan aipatzen den zuzenketa justifikatu zuten egitate eta inguruabar berberengatik.

Azken xedapenetako lehena. Arauak emateko gaikuntza.

Zerga arloko eskumena duen departamentuko titularrari ahalmena ematen zaio behar diren xedapen guztiak eman ditzan foru lege hau garatzeko eta betearazteko.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Foru Lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean eta ondorioak izanen ditu 2021eko urtarrilaren 16tik aurrera, urriaren 19ko 22/2022 Legean emandako idazpenean Hitzarmen Ekonomikoaren zazpigarren xedapen iragankorrean ezarritakoa galarazi gabe.

10-22/LEY-00019. Foru Legea, zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2022ko abenduaren 22an egindako Osoko Bilkuran, zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergari buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2022ko abenduaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Legea, zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergari buruzkoa

HITZAURREA

Sozietateen gaineko zergari buruzko gaur egungo arauak ez dira egokiak ekonomiaren digitalizazioak sortutako etekinak zergapetzeko, etekin horiek datuek eta erabiltzaileek sortutako balioari estu lotuta daudenean. Hartara, berrikusi behar dira.

Aspalditik ari dira nazioartean arau horiek berrikusten, Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) eta G20ren barnean. Ildo horretan, bereziki garrantzitsuak izan dira BEPS proiektuaren 1. ekintzari buruzko txostena, 2015eko urriaren 5ekoa, ekonomia digitalaren erronka fiskalei buruzkoa, eta digitalizazioaren ondoriozko erronka fiskalei buruzko bitarteko txostena, 2018ko martxoaren 16koa. Europar Batasunean, honako hauek izan dira: batetik, Europako Batzordearen "Merkatu digital bakarretarako zerga-sistema bidezkoa eta eraginkorra Europar Batasunean" komunikazioa, 2017ko irailaren 21ean onartua, eta ekonomia digitalaren ezarpen bidezkoa eta eraginkorra lortzeko 2018ko martxoaren 21ean aurkeztutako zuzentarauen eta gomendioen proposamen-multzoa.

Arazoak munduan duen garrantzia kontuan hartuta, nazioarteko adostasuna dago horri heltzeko estrategiarik onena mundu osoan ere konponbidea aurkitzea izanen litzatekeela, hau da, ELGAren barnean. Hala ere, nazioartean eta alde anitzetan adostutako neurri horiek hartzea eta ezartzea asko atzera daitekeenez, zenbait herrialde alde bakarretako neurriak hartzen hasi dira arazoari aurre egiten saiatzeko. Bai munduko akordioa bai alde bakarretako neurriak hartzea bidezko irtenbideak dira, digitalizazioaren ondoriozko

erronka fiskalei buruzko G20/ELGAren bitarteko txostenean aurreikusten direnak. Hala ere, ELGAk ekonomia digitalari buruz egindako txostenen arabera, alde bakarretako neurriak ezartzea aldi baterakoa izanen da.

Horrela, nazioarteko foroetan izandako eztabaiden bukaerari aurrea hartuta, Espainian urriaren 15eko 4/2020 Legeak zenbait zerbitzu digitalen gaineko zerga ezartzen du, zeina behin-behinekoa izanen baita nazioartean hartutako konponbidea txertatzea xede duen legeria berria indarrean jarri arte.

Aipatutako 4/2020 Legearen 2. artikuluan xedatutakoaren arabera, zerga Espainia osoan aplikatuko da, Nafarroako Foru Komunitatean indarrean dagoen hitzarmen ekonomikoaren zerga-araubide foralari kalterik egin gabe.

Bestalde, lege beraren azken xedapenetako bosgarrenak adierazten du Estatuako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hiru hilabeteko epean, abenduaren 26ko 28/1990 Legearen bidez onetsitako Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 6. artikuluan ezarritakoaren arabera, hura egokitzea erabakiko dela.

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren arabera (hitzarmen horri idazpen berria eman zitzaion urriaren 19ko 22/2022 Legean), Nafarroako Foru Komunitateak, Estatuako Administrazioak edo bi administrazioek ordainaraziko dute zenbait zerbitzu digitalen gaineko zerga, likidazio-aldian lurralde bakoitzean egindako eragiketa-bolumenaren proportzioan. Proportzio hori zehaztuko da zergari atxikita dauden eta Administrazio bakoitzaren lurraldean egindako zerbitzuen prestazioengatik lortutako sarrerek Espainian osotara lortutako sarrerekiko egiten duten ehunekoaren arabera.

Zerbitzu digitalen prestazioak lurralde erkidean edo foru lurraldean eginak direla ulertuko da, erabiltzaileak dauden tokiaren arabera, zergaren araudian jasotako lokalizazio-arauei jarraikiz zehaztuta.

Era berean, zerga ordainaraztean, Nafarroak Estatuak unean-unean ezarritako arau substantibo eta formal berberak aplikatuko ditu.

Ondorioz, foru lege honen xedea da zerbitzu digital jakin batzuen gaineko zerga arautzea Nafa-

rrako Foru Komunitatean, behin-behinean, harik eta nazioartean hartutako konponbidea txertatzea xede duen legeria berria indarrean jartzen den arte.

Zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergaren xedea zerbitzu digitalen prestazioak dira, zeinetan erabiltzaileen partaidetza bat baitago, zerbitzuak ematen dituen enpresaren balioa sortzeko prozesuari ekarpena egiten diona, eta horien bidez enpresak erabiltzaileen ekarpen horiek monetizatzen ditu. Hau da, zerga honi lotutako zerbitzuak erabiltzaileen inplikaziorik gabe gaur egun existitu ezin direnak dira.

Emandako zerbitzuetan zentratzen denez, zerbitzu horiek ematen dituenaren ezaugarriak kontuan hartu gabe, besteak beste haren gaitasun ekonomikoa, zenbait zerbitzu digitalen gaineko zerga ez da errentaren edo ondarearen gaineko zerga bat, eta, beraz, ez da sartzen zergapetze bikoitzeko hitzarmenetan, digitalizazioaren ondoriozko erronka fiskalei buruz G20/ELGak egindako bitarteko txostenak ezartzen duenaren arabera. Beraz, zeharkako tributu gisa eratzen da, eta, gainerakoan, bateragarria da balio erantsiaren gaineko zergarekin.

Zergak honako zerbitzu-prestazio hauek soilik zergapetzen ditu (foru lege honen ondorioetarako "zerbitzu digital" gisa identifikatzen dira): interfaze digital batean, interfaze horien erabiltzaileei zuzendutako publizitatea sartzea ("onlineko publizitate-zerbitzuak"); interfaze digital multifazetikoak eskura jartzea, erabiltzaileek beste erabiltzaile batzuk aurkitzeko eta haiekin elkarreragiteko aukera izan dezaten, edo, are gehiago, azpiko ondasun-emateak edo zerbitzu-prestazioak erraztea ("onlineko bitartekaritza-zerbitzuak"); eta interfaze digitaletan erabiltzaileek garatutako jardueretan bildu diren datuak eskualdatzea, baita saltzea eta lagatzea ere ("datuak eskualdatzeko zerbitzuak"). Inola ere ez da sartzen komunikazio-seinaleen garraioa, Telekomunikazioei buruzko ekainaren 28ko 11/2022 Lege Orokorrean aipatua.

Zergaren oinarritzearen ondorioz, zergari ez lotzeko kasuetan, argitu nahi da haren esparrutik salbuetsita gelditu direla, besteak beste, honako hauek: azpiko ondasun-emateak edo zerbitzu-prestazioak, onlineko bitartekaritza-zerbitzu batean erabiltzaileen artean gertatzen direnak; eta online kontratatutako ondasun edo zerbitzuen salmentak, ondasun edo zerbitzu horiek hornitzailearen webgunearen bitartez (merkataritza elektronikoko txikizkako jarduerak), zeinetan hornitzailea ez baita bitartekari gisa aritzen, zeren eta txikizkariarendako balioa sortzen da hornitutako ondasun eta zerbitzuetan eta interfaze digitala

komunikaziorako bide soil moduan erabiltzen da. Hornitzaile batek ondasunak edo zerbitzuak bere kontura online saltzen dituen edo bitartekaritza-zerbitzuak ematen dituen zehazteko, eragiketaren substantzia juridikoa eta ekonomikoa hartu behar da kontuan.

Zerga honen zergadunak dira Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorren 25. artikuluan aipatzen diren pertsona juridikoak eta entitateak, baldin eta Espainian, Europar Batasuneko beste estatu batean edo Europar Batasuneko ez den beste edozein estatu edo jurisdikziotan kokatuta badaude eta, likidazioaldiaren hasieran, aurreko urte naturalean bi atalase hauek gainditzen badituzte: Negozio-zifraren zenbateko garbia 750 milioi eurokoa izatea; eta zergari lotutako zerbitzu digitalen prestazioetatik eratorritako diru-sarreraren zenbatekoa, osotara, 3 milioi euro, zerga-oinarria zehazteko aurreikusitako arauak aplikatu ondoren (Espainiako lurraldean kokatutako erabiltzaileei dagokien diru-sarreraren horien zatia zehazten da horrela).

Lehen atalaseak aukera ematen du zergaren aplikazioa tamaina handiko enpresetara mugatzeko; izan ere, enpresa horiek gai dira datuetan eta erabiltzaileen ekarpenean oinarritutako zerbitzu digital horiek emateko, eta, neurri handi batean, oinarri dute erabiltzaile-sare zabalak, datu-trafiko handia eta merkatuan posizio sendoa izatea. Atalase horrek segurtasun juridikoa emanen du, enpresei eta zerga administrazioari aukera ematen baitie modu errazagoan zehazteko entitate bat zergari atxikita dagoen, izan ere, zehazteko modu hori bera agertzen da honakoetan: Kontseiluaren 2016ko maiatzaren 25eko 2016/881 (EB) Zuzentarauan (2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen duena, fiskalitatearen arloan informazioa nahitaez eta automatikoki trukatzeari dagokionez, eta herrialdez herrialdeko txostenari buruzko aitortena ezartzen duena); nazioarteko arau baliokideetan, Zerga Oinarriaren Higadurari eta Etekinen Eskualdatzeari buruz ELGak eta G-20ak egindako proiektuko 13. ekintza, transferentzia-prezioen eta herrialdez herrialdeko txostenaren gaineko dokumentazioari buruzkoa, aplikatuta hartutakoetan; eta Europako beste proiektu arauemaile batzuetan. Gainera, enpresa txiki eta ertainak eta garatzen ari diren enpresak zerga berritik kanpo uzteko aukera ematen du, zerga horri lotutako betetze-kostuek neurritz kanpoko eragina izan baitezakete haientzat.

Bigarren atalaseak aukera ematen du zergaren aplikazioa mugatzeko Espainian aztarna digital esanguratsu bat dagoen kasuetara, kargatutako zerbitzu digital motei dagokienez.

Hala ere, arau bereziak ezartzen dira talde bateko entitateentzat. Horrela, entitate batek atalaseak gainditzin dituen eta, beraz, zergaduntzat hartzen den zehazte aldera, atalaseak talde osoari aplikatu beharreko zenbatekoen arabera aplikatu behar dira.

Zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergaren testuinguruan egiten den datu pertsonalen edozein tratamenduk bete beharko du Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoaren babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen) eta Datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa.

Zergaren zerga-oinarria honako hau izanen da: zergadunak Espainian egindako eta zergari lotutako zerbitzu digitalen prestazio bakoitzagatik lortutako diru-sarreraren zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zerga edo beste zerga baliokide batzuk alde batera utzita, hala badagokio. Oinarria kalkulatzeko, arau batzuk ezartzen dira Espainian kokatuta dauden erabiltzaileei dagozkien diru-sarreraren zatia soilik zergapetzeko, erabiltzaile guztietatik berezita.

Zergaren tasa % 3koa izanen da.

Zergapetutako zerbitzu-prestazio bakoitzeko sortuko da zerga, eta likidazio-aldia hiru hilekoa izanen da.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Sektore Publiko Institutuzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legean xedatutakoa betetzeko, foru lege hau premiaren, eraginkortasunaren, proportzionaltasunaren, segurtasun juridikoaren, gardentasunaren eta efizientziaren printzipioen arabera egin da.

Arauk tributuo baten sorrera arautzen du, eta, beraz, beharrezkoa da foru lege mailako arau baten bidez onartzea; ez da maila txikiagoko beste arau-aukerarik kontuan hartu. Foru lege berria tresna egokia da eraginkortasunaren ikuspuntutik legean aurreikusitako politika ekonomiko orokorreko helburuak lortzeko: ikuspegi fiskaletik begiratuta, ekonomiaren digitalizazioak dituen erronkei aurre egitea, bereziki karga-eskubideen esleipen desegokia zuzentzeko, indarrean diren nazioarteko arau fiskalek ez baitute aintzat hartzen erabiltzaileek enpresentzat balioa sortzeko egindako ekarpena enpresek jarduten duten lurraldeetan.

Era berean, proportzionaltasun printzipioa ere betetzen da, eskuratu nahi diren helburuak erdies-ten ahalegindu baita. Kontuan hartu diren zerga-egitateak soilik negozio-eredu batzuei dagozkie (uste da horietan hauteman diren arazoak modu sakonagoan aurkezten direla, kaltegarriak ere izan daitezkeen beste kasu batzuk sartu gabe).

Segurtasun juridikoaren printzipioari dagokionez, bermatu da arau-proiektua foru-ordenamendu juridikoarekin koherentea dela.

Gardentasunaren printzipioari dagokionez, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta, horretaz gainera, gardentasuna bermatuta geldituko da proiektua eta memoria Nafarroako Gobernu Irekiaren atarian ere argitaratuko baitira, entzunaldia emateko tramitean eta jendaurrean jartzeko tramitean daudenean herritarrek testu horiek ezagutzeko aukera izanen baitute.

Efizientziaren printzipioari dagokionez, saiatu da arauak ahalik eta administrazio-karga eta zeharkako kostu gutxien izaten eta baliabide publikoaren arazoizko erabilera sustatzen. Ildo horretan, zergadunei eskatzen zaizkien informazio- eta dokumentazio-eskakizunak behar-beharrezkoak dira zerga administrazioak haien jardueraren kontrol minimoa bermatzeko.

1. artikulua. Izaera eta helburuak.

Zenbait zerbitzu digitalen gaineko zerga zeharkako zerga bat da, foru lege honetan aurreikusitako moduan eta baldintzetan zergapetzen dituen zenbait zerbitzu digitalen zenbait prestazio, zerga aplikatzen den lurraldean kokatutako erabiltzaileek horietan esku hartzen dutenean.

2. artikulua. Zergaren ordainarazpena eta ikuskapena.

Foru Komunitateari dagokio zerga ordainaraztea eta ikuskatzea, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 40. ter artikuluan ezarritako irizpideekin bat etorritik.

3. artikulua. Itunak eta hitzarmenak.

Foru lege honetan ezarritakoa ulertuko da deusetan galarazi gabe nazioarteko itun eta hitzarmenetan xedatuta egonik barne ordenamenduan txertatu dena, Espainiako Konstituzioaren 96. artikuluen arabera.

4. artikulua. Kontzeptuak eta definizioak.

Foru lege honek agintzen duenerako, honako definizio hauek hartuko dira aintzat:

1. Eduki digitalak: formatu digitalean emandako datuak, hala nola ordenagailu-programak, apli-

kazioak, musika, bideoak, testuak, jokoak eta beste edozein programa informatiko, interfaze digitalaren beraren datu adierazgarriez bestelakoak.

2. Interneteko Protokolo Helbidea (IP): interkonektatutako gailuei esleitzen zaien kodea, Internet bidez komunikatu ahal izateko.

3. Taldea: entitate multzoa, zeinetan entitate batek beste entitate baten edo batzuen kontrola bere gain duenean, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan ezarritako irizpideei jarraikiz, alde batera utzita egoitza non duten eta urteko kontu kontsolidatuak aurkeztu behar dituzten.

4. Interfaze digitala: komunikazio digitala ahalbidetzen duen edozein programa, webgunek edo horien zatiak barne, edo aplikazio, aplikazio mugikorak barne, edo erabiltzaileentzat eskuragarri dagoen beste edozein bitarteko.

5. Zerbitzu digitalak: onlineko publizitatekoak, onlineko bitartekotzak eta datuen eskualdatzeak soilik hartuko dira halakotzat.

6. Onlineko publizitate-zerbitzuak: interfaze digital propio batean edo hirugarrenen interfaze digital batean interfaze horren erabiltzaileei zuzendutako publizitatea sartzea. Publizitatea sartzen duen entitatea ez bada interfaze digitalaren jabea, entitate hori joko da publizitate-zerbitzuaren hornitzailetzat, eta ez interfazearen jabe den entitatea.

7. Onlineko bitartekaritza-zerbitzuak: interfaze digital multifazetiko bat erabiltzaileen esku jartzekoak (hainbat erabiltzaileekin aldi berean elkarri eragiteko aukera emanen duena), azpian dauden zerbitzuak edo ondasunak erabiltzaileen artean zuzenean ematea edo entregatzea errazteko, edo beste erabiltzaile batzuk aurkitzea eta haiekin elkarreragitea ahalbidetzeko.

8. Datuak eskualdatzeko zerbitzuak: erabiltzaileei buruz bildutako datuak kontraprestazioarekin eskualdatzeko zerbitzuak, salmenta edo lagapena barne, erabiltzaileek interfaze digitaletan garatutako jardueren ondorioz sortutakoak.

9. Erabiltzailea: interfaze digitala erabiltzen duen edozein pertsona edo entitate.

10. Zuzendutako publizitatea: produktu, zerbitzu edo marka bat sustatzeko helburua duen edozein komunikazio digital komertzial mota, interfaze digital baten erabiltzaileei zuzendua, interfaze horretan haiei buruz bildutako datuetan oinarrituta. Publizitate guztia «zuzendutako publizitatea» dela ulertuko da, kontrakoa frogatu ezean.

11. Finantza-zerbitzu arautuak: finantza-entitate arautu batek eman ditzakeen finantza-zerbitzuak.

12. Finantza-entitate arautua: finantza-zerbitzuen emalea, edozein arau nazional edo Europar Batasunak finantza-zerbitzuak arautzeko onartutako edozein harmonizazio-neurri aplikatuz baimendu edo erregistratu eta gainbegiratu beharrekoa, Europar Batasunaren egintza juridiko baten arabera Europar Batasunaren neurrien baliokidetzat jotzen den eta Europar Batasunak eman ez duen araudiaren arabera gainbegiratu behar diren finantza-zerbitzuen emaleak barne.

13. Zerga aplikatzeko lurraldea: Espainia.

5. artikulua. Zerga-egitatea.

Zergaren aplikazio-lurraldean zerga honen zergadunek egindako zerbitzu digitalen prestazioak zergari lotuta egonen dira.

6. artikulua. Zergari lotuta ez dauden kasuak.

Ondokoak ez zaizkio zergari lotuko:

a) ondasun edo zerbitzu horien hornitzailearen webgunearen bidez online kontratatutako ondasun edo zerbitzuen salmentak, hornitzaileak bitartekari gisa jarduten ez duenean;

b) onlineko bitartekaritza-zerbitzu baten esparruan erabiltzaileen artean egiten diren azpiko ondasun-emateak edo zerbitzu-prestazioak;

c) onlineko bitartekaritza-zerbitzuen prestazioak, interfaze digital bat eskura jartzen duen entitateak emandako zerbitzu horien xede bakarra edo nagusia erabiltzaileei eduki digitalak ematea edo komunikazio-zerbitzuak edo ordainketa-zerbitzuak ematea denean;

d) finantza-entitate arautuek finantza-zerbitzu arautuak ematea;

e) datuak eskualdatzeko zerbitzuen prestazioak, finantza-entitate arautuek ematen dituztenean;

f) zerbitzu digitalak ematea, zuzenean edo zeharka % 100eko partaidetzarekin talde bateko kide diren entitateen artean egiten direnean.

7. artikulua. Zerbitzu digitalak emateko lekua.

1. Zerbitzu digitalak zergaren aplikazio-lurraldean emandakotzat joko dira erabiltzailearen bat lurralde-eremu horretan dagoenean, alde batera utzita erabiltzaileak zerbitzutik eratorritako diru-sarrerak sortzen laguntzen duen kontraprestazioen bat ordaindu duen ala ez.

2. Erabiltzaile bat zerga aplikatzen den lurraldean dagoela ulertuko da:

a) Onlineko publizitate-zerbitzuen kasuan, publizitatea erabiltzaile horren gailuan agertzen den unean gailua lurralde-eremu horretan dagoenean.

b) Onlineko bitartekaritza-zerbitzuen kasuan, azpian zuzenean erabiltzaileen artean ondasun-erateak edo zerbitzu-prestazioak errazten badira, erabiltzaile batek azpiko eragiketa bukatzen duenean lurralde-eremu horretan dagoen gailu baten interfaze digitalaren bidez.

Online egiten diren gainerako bitartekaritza-zerbitzuetan, erabiltzaileari interfaze digitalera sartzeko aukera ematen dion kontua irekitzean lurralde-eremu horretan dagoen gailu bat erabiliz ireki denean.

c) Datuak transmititzeko zerbitzuen kasuan, erabiltzaile batek interfaze digital baten bidez sortu dituen transmititutako datuak, eta interfaze horretara datuak sortzean lurralde-eremu horretan dagoen gailu baten bidez sartu denean.

3. Zerbitzu digitalen prestazioak non eman diren zehazteko, ez da kontuan hartuko:

a) azpiko ondasunak entregatzeko edo zerbitzuak emateko lekua, onlineko bitartekaritza-zerbitzuen kasuan, halakorik badago;

b) zerbitzu digital batekin lotutako edozein ordainketa egiten den tokia.

4. Artikulu honen ondorioetarako, ulertuko da erabiltzaile baten gailu jakin bat dagoela gailuaren IP helbidearen arabera zehazten den lekuan edo erabiltzailearen gailua sare jakin batean dagoenean zerbitzura sartzeko erabiltzen den ekipoaren IP helbidearen arabera zehazten den lekuan, non eta ez den ondorioztatzen leku hori beste bat dela zuzenbidean onargarriak diren beste frogabide batzuk erabiliz, bereziki, geolokalizatorako beste tresna batzuk erabiliz.

Horretarako, honako hauek erabiltzen ahal dira: sareen identifikazioan oinarritutako geolokalizazioa (WiFi, ethernet edo beste batzuk), satelite bidezko geolokalizazio fisikoa (GPS-Posizionatze globaleko sistema, GLONASS, Galileo edo Beidou sistemak, adibidez) edo lurreko hari gabeko komunikazio-sistemak emandako informazioa (GSM-Komunikazio mugikorren sistema globala edo LPWAN), edo balizak (WiFi edo Bluetootha), edo dauden edo etorkizunean egon diren teknologien beste edozein konbinazio.

5. Gailuaren kokalekua erabiltzeko geolokalizazio-teknologiak ematen duen helbidearen xehetasun guztiek zehazten dute, besteak beste, latitude- eta longitude-koordinatuak.

Lekua geolokalizazio teknologien bidez lortuko da. Teknologia horiek gailutik, Internetarako konexiotik edo bien arteko konbinazio batetik lortutako informazioa aztertzen dute.

6. Foru lege hau aplikatzeko erabiltzaileei buruz bil daitezkeen datuak erabiltzaileen gailuak zerga aplikatzen den lurraldean kokatzea ahalbidetzen dutenak baizik ez dira.

8. artikulua. Zergadunak.

1. Zerga honen zergadun dira Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorren 25. artikuluan aipatzen diren pertsona juridikoak eta entitateak, likidazio-aldiaren lehen egunean honako bi atalase hauek gainditzen badituzte:

a) aurreko urte naturalean beren negozio-zifra zenbateko garbia 750 milioi eurotik gorakoa izatea; eta

b) Espainiako lurraldean zergari lotutako zerbitzu digitalen prestazioetatik eratorritako diru-sareren zenbateko osoa, 10. artikuluan aurreikusitako arauak aplikatu ondoren, aurreko urte naturalari dagokiona, 3 milioi eurotik gorakoa izatea.

Jarduera aurreko urtean hasi bada, zenbateko horiek urte osora proiektatuko dira.

2. 1. apartatuan aipatutako zenbatekoak euroa ez den beste moneta batean eskuragarri daudenean, euroara bihurtuko dira, dagokion urte naturalean eskuragarri dagoen Europar Batasunaren azken Aldizkari Ofizialean argitaratutako kanbiotasa aplikatuta.

3. Talde bateko kide diren entitateen kasuan, kontuan hartu beharreko zenbatekoak, 1. apartatuan aipatzen diren atalaseenak, talde osoarenak izanen dira. Ondorio horietarako:

a) 1.a) apartatuko atalasea honakoetan agertzen den bera izanen da: Kontseiluaren 2016ko maiatzaren 25eko 2016/881 (EB) Zuzentaraua (zuzentarau horrek 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen du fiskalitatearen arloan informazioa nahitaez eta automatikoki trukatzeari dagokionez, eta herrialdez herrialdeko txostenari buruzko aitortu ezartzen du), eta nazioarteko arau baliokideak, ELGAK eta G-20k zerga-oinarriaren higadurari eta etekinen eskualdaketa buruz egindako proiektuko (BEPS, ingelesezko sigletan) 13. ekintza aplikatuz ezarritakoak (ekintza hori transferentzia-prezioen eta herrialdez herrialdeko txostenaren gaineko dokumentazioari buruzkoa da);

b) 1.b) apartatuko atalasea zehazteko, ez dira ezabatuko talde bateko entitateen artean egiten diren zerga honi lotuta dauden zerbitzu digitalen prestazioak.

Taldeak atalase horiek gainditzen baditu, taldea osatzen duten entitate guztiak hartuko dira zergaduntzat, zerga-egitatea gauzatzen duten neurrian, 1.b) apartatuan aipatzen diren diru-sarreren zenbatekoa edozein izanik ere.

9. artikulua. Sortzapena.

Zergapetutako eragiketak egiten, burutzen edo gauzatzen direnean sortuko da zerga.

Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, zerga-egitatea egin aurreko ordainketa aurreratuak eragiten dituzten zergapeko eragiketetan, benetan jasotako zenbatekoen prezioa osorik edo partzialki kobratzen den unean sortuko da zerga.

10. artikulua. Zerga-oinarria.

1. Zergaren zerga-oinarria honako hau izanen da: zergadunak Espainian egindako eta zergapetutako zerbitzu digitalen prestazio bakoitzagatik lortutako diru-sarreren zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zerga edo beste zerga baliokide batzuk alde batera utzita, hala badagokio.

Talde bereko entitateen arteko zerbitzu digitalen prestazioetan, zerga-oinarria merkatuko balio arrunta izanen da.

2. Zergaren zerga-oinarria zehazteko, honako arau hauek hartuko dira kontuan:

a) Onlineko publizitate-zerbitzuen kasuan, zerga aplikatzen den lurraldean dauden gailuetan publizitatea zenbat aldiz agertzen den adierazten duen proportzioa aplikatuko zaie lortutako guztizko diru-sarrerei, publizitate hori edozein gailutan agertzen den guztizko kopuruarekiko, gailu horiek edozein lekutan daudela ere.

b) Azpiko ondasun-emateak edo zerbitzu-prestazioak zuzenean erabiltzaileen artean egitea errazten duten onlineko bitartekaritza-zerbitzuen kasuan, lortutako guztizko diru-sarrerei honako proportzio hau aplikatuko zaie: zerga aplikatzen den lurraldean kokatutako erabiltzaileen kopurua adierazten duena, zerbitzu horretan, edozein lekutan kokatuta, esku hartzen duten erabiltzaileen guztizko kopuruarekiko.

Gainerako bitartekaritza-zerbitzuen zerga-oinarria erabiltzaileengandik zuzenean eratorritako diru-sarreren guztizko zenbatekoaren arabera zehaztuko da, baldin eta erabilitako interfaze digitalera sartzeko aukera ematen duten kontuak ireki badira irekitzeko unean zergaren aplikazio-lurral-

dean zegoen gailu bat erabiliz. Ondorio horietarako, berdin dio erabilitako kontua noiz ireki den.

c) Datuak eskualdatzeko zerbitzuen kasuan, datu horiek sortu dituzten eta zergaren aplikazio-lurraldean kokatuta dauden erabiltzaileen kopurua adierazten duen proportzioa aplikatuko zaie lortutako guztizko diru-sarrerei, datu horiek sortu dituzten erabiltzaileen guztizko kopuruarekiko, edozein lekutan daudela ere.

Ondorio horietarako, berdin da noiz bildu ziren transmititutako datu horiek.

3. Likidazio-aldian zerga-oinarriaren zenbatekoa ezagutzen ez bada, zergadunak behin-behinean finkatu beharko du, zerbitzu digitalen prestazio horietatik eratorritako diru-sarrerak sortuko diren aldi osoa kontuan hartzen duten irizpide funtsatuak aplikatuz, zenbateko hori ezaguna denean erregularizatzeari kalterik egin gabe, likidazio-aldi horri dagokion autolikidazioaren bidez.

Erregularizazioa gehienez ere 4 urteko epean egin beharko da, eragiketari dagokion zergaren sortzapen-datatik aurrera.

4. Zerga-oinarria oker zehaztu bada, zergadunak zuzendu egin beharko du, 13/2000 Foru Legean eta hura garatzeko araudian aurreikusita-koaren arabera.

5. Zerga-oinarria zuzeneko zenbatespenaren metodoaren bidez zehaztuko da, zerga-oinarrien zeharkako zenbatespenaren metodoa erregularitzen duten arauetan ezarritako salbuespenekin.

11. artikulua. Zerga-tasa.

Zergaren tasa 100eko 3koa izanen da.

12. artikulua. Kuota osoa.

Zerga-oinarriari zerga-tasa aplikatzearen emaitza izanen da kuota osoa.

13. artikulua. Betebehar formalak.

1. Zergaren zergadunek betebehar hauek izanen dituzte:

a) Zergapetzea dakarten jardueren hasierari, aldaketari eta eteteari buruzko aitortpenak aurkeztea.

b) Administrazioari identifikazio fiskaleko zenbakia eskatzea, eta ezartzen diren kasuetan jakinaraztea eta egiaztatzea.

c) Hiruhileko likidazio-aldi bakoitzeko, zerbitzu-motaren arabera bereizitako erregistroak eta deskribapen-memoria eramatea eta gordetzea, 14. eta 15. artikuluetan arautuak, hurrenez hurren. Erregistroak eta deskribapen-memoria ez daude

formatu jakin baten mende. Zergadunek zerga administrazioari aurkeztu beharko dizkiote erregistroak eta memoria, hala eskatzen zaienean.

d) Aldian-aldian edo Administrazioak eskatuta, beren zerbitzu digitalei buruzko informazioa aurkeztea.

e) Ordezkarri bat izendatzea foru lege honetan ezarritako betebeharrak betetzeko, Europar Batasunean finkatu gabeko zergadunen kasuan.

Zergadunak, edo bere ordezkariak, zerga administrazioari jakinarazi beharko dio izendapena, behar bezala egiaztatuta, zergari lotutako eragiketen aitortpen-epea amaitu baino lehen.

f) Zergaren xede diren eragiketen egiaztagirak eta frogagirak gordetzea, 13/2000 Foru Legean aurreikusitako preskripzio-epean. Bereziki, zergapeko zerbitzu digitala non ematen den identifikatzea ahalbidetzen duten frogabideak gorde beharko dituzte.

g) Zerga aplikatzen den lurraldean egindakotzat jotzen diren zerbitzu digitalen prestazioen fakturak, kontratuak edo egiaztagirak gaztelaniara edo beste edozein hizkuntza ofizialetara itzultzea, zerga administrazioak hala eskatzen duenean zergadunaren zerga-egoera kontrolatzeko.

h) Erabiltzaileek zerga aplikatzen den lurraldean gailuak non dauden zehazteko sistemak, mekanismoak edo akordioak ezartzea, bai eta Nafarroan kokatutako erabiltzaileen gailuak identifikatzea ere.

2. Era berean, zerga-araudian ezarritako beste edozein betebeharrak formal ere bete beharko dute.

14. artikulua. Erregistroen edukia.

1. Aurreko artikuluan aipatutako erregistroetan, honako parametro hauek jasoko dira zergari lotutako eragiketara bakoitzeko:

a) Onlineko publizitate-zerbitzuen kasuan:

1) Onlineko publizitate-zerbitzuetatik eratorritako guztizko diru-sarrerak, edozein lekutan lortu direla ere, bezeroaren identifikazioarekin.

2) Publizitatea zenbat aldiz agertzen den zergaren aplikazio-lurraldean dauden gailuetan, Nafarroako lurraldean dauden gailuetan publizitatea zenbat aldiz agertzen den banakatuta.

3) Publizitate hori edozein gailutan zenbat aldiz agertzen den guztira, gailuak edozein lekutan daudela ere.

b) Onlineko bitartekaritza-zerbitzuen kasuan, erabiltzaileen artean zuzenean azpiko ondasun-

emateak edo zerbitzu-prestazioak egitea errazten bada:

1) Onlineko bitartekaritza-zerbitzuetatik eratorritako guztizko diru-sarrerak, edozein lekutan lortu direla ere, bezeroaren identifikazioarekin.

2) Azpiko eragiketa amaitzen den unean zergaren aplikazio-lurraldean kokatuta dauden gailuen erabiltzaileen kopurua, une horretan Nafarroan kokatuta dauden gailuen erabiltzaileen kopurua banakatuta.

3) Zerbitzu horretan esku hartzen duten erabiltzaileen guztizko kopurua, edozein lekutan kokatuta daudela ere.

c) Online egiten diren gainerako bitartekaritza-zerbitzuen kasuan:

1) Erabilitako interfaze digitalerako sarbide-kontuak zergaren aplikazio-lurraldean irekitzeko unean zegoen gailu bat erabiliz ireki dituzten erabiltzaileengandik zuzenean eratorritako guztizko diru-sarrerak, bezeroa identifikatuta. Era berean, erabilitako interfaze digitalerako sarbide-kontuak irekitzeko unean Nafarroan zegoen gailu bat erabiliz ireki dituzten erabiltzaileengandik zuzenean eratorritako guztizko diru-sarrerak banakatuko dira, bezeroa identifikatuta.

2) Likidazio-aldian irekitako kontuen kopurua, irekitzeko unean gailuak zergaren aplikazio-lurraldean kokatuta dituzten erabiltzaileek irekitakoena, une horretan gailuak Nafarroan kokatuta dituzten erabiltzaileek likidazio-aldian irekitako kontuen kopurua banakatuta.

d) Datuak eskualdatzeko zerbitzuen kasuan:

1) Datuak transmititzeko zerbitzuetatik eratorritako guztizko diru-sarrerak, edozein lekutan lortu direla ere, bezeroa identifikatuta.

2) Datu horiek sortu dituzten erabiltzaileen kopurua, datuak sortzen diren unean gailuak zergaren aplikazio-lurraldean kokatuta dituzten erabiltzaileena, datu horiek sortu dituzten eta une horretan gailuak Nafarroan dituzten erabiltzaileen kopurua banakatuta.

3) Datu horiek sortu dituzten erabiltzaileen guztizko kopurua, datu horiek biltzeko unean edozein lekutan kokatuta daudela ere.

2. Bezeroak izen-abizenen, sozietate-izenaren edo izendapen osoaren bidez identifikatuko dira, eta, eskuragarri badago, BEZaren ondorioetarako identifikazio-zenbakia edo identifikazio fiskaleko zenbaki nazionala adieraziko da.

3. Lehen apartatuaren arabera erregistratu behar diren eragiketek jasota egon beharko dute

eragiketa horiei dagokien zergaren likidazioa eta ordainketa egiten den unean, edo, nolahi ere, likidazio eta ordainketa hori borondatezko epean egiteko legezko epea amaitu baino lehen.

4. Zenbait zerbitzu digitalen gaineko zergaren zergadunek beste zerga- edo kontabilitate-betebehar batzuk betetzeko eraman behar dituzten liburu edo erregistroak artikuluan honetan aipatzen den erregistro-betebeharra betetzeko erabiltzen ahal dira, baldin eta foru lege honetan ezartzen diren betekizunetara egokitzen badira.

15. artikulua. Deskribapen-memoriaren edukia

Deskribapen-memoriak helburu hauetarako erabilitako prozesu, metodo, algoritmo eta teknologiak jasoko ditu:

a) 4.5 artikuluan aipatzen diren zerbitzu digitalak zergari lotuta dauden aztertzea, bai eta 6. artikuluan jasotako zerbitzuak zergari atxikita ez dauden aztertzea ere.

b) Zerbitzu mota bakoitza nola ematen den eta zerga aplikatzen den lurraldeari nola esleitzen zaion aurkitzea, kontuan hartuta prestazio bakoitzerako kokapena honako gailu honi dagokiona izanzen dela:

1) Publizitatea zer gailutan agertzen den on-lineko publizitate-zerbitzua ematen denean

2) Azpiko eragiketa non amaitzen den, onlineko bitartekaritza-zerbitzuak ematen direnean, ondasun-emateak edo zerbitzu-prestazioak erraztuz.

3) Online egiten diren gainerako bitartekaritza-zerbitzuetan interfaze digitalera sartzeko kontua non ireki den.

4) Transmittutako datua non sortu den, datuak transmititzeko zerbitzuen kasuan.

c) Zergari lotutako zerbitzu-prestazio bakoitzari dagozkion diru-sarrerak kalkulatzeko.

d) Aurreko prozesuetan likidazio-aldi bakoitzean erabilitako fitxategiak, programak eta aplikazioak identifikatzea.

16. artikulua. Erabiltzaileen gailuak zergaren aplikazio-lurraldean lokalizatzeko sistemak, mekanismoak edo akordioak.

1. Zergadunek barne-sistemak edo -mekanismoak ezarri beharko dituzte erabiltzaileen gailuak Espainian eta, bereziki, Nafarroan lokalizatzeko.

2. Era berean, zergadunek hirugarrenekin adostu ahalko dute erabiltzaileen gailuak lokalizatzeko zerbitzua ematea Espainian eta, bereziki, Nafarroan; kasu horretan, hirugarren horiek izanzen dituzte lokalizazio-sistemak edo -mekanismoak.

3. Lokalizazio-sistemak eta -mekanismoek gailuen IP helbidea hartu beharko dute. Hala ere, erabiltzailea ez bada lokalizatzen gailuaren IP helbidearen bidez, edo datu hori beste batzuekin batera erabiltzen bada, lokalizaziorako erabilitako datu guztiak bildu beharko dituzte sistemak edo mekanismoak.

4. Lokalizazio-sistema eta -mekanismoetatik lortutako informazioa zergaren preskripzio-epean gorde beharko da.

17. artikulua. Zergaren kudeaketa.

1. Likidazio-aldia hiruhileko naturala da.

Zergadunek dagozkien autolikidazioak aurkeztu beharko dituzte, eta zerga arloko eskumena duen departamentuko titularrak ezarritako tokian, moduan eta epeetan ordaindu beharko dute zerga-zorra.

2. Zergadunek zergaren autolikidazioak aurkeztuko dizkiote Nafarroako Foru Ogasunari, horrek ordainarazteko eskumena duenean; autolikidazio horietan, zerga administrazio bakoitzaren aurrean dagozkion proportzioak eta kuotak jasoko dira.

18. artikulua. Arau-hausteak eta zehapenak.

Artikulu honetan aurreikusitako xedapen bereziak alde batera utzi gabe, zerga honi buruzko arau-hausteak 13/2000 Foru Legean eta aplikazio orokorreko gainerako arauetan aurreikusitakoaren arabera kalifikatu eta zehatuko dira.

Zerga honen ondorioetarako, zerga-arloko arau-hauste astuna izanzen da 13.1.h) artikuluan aipatzen den betebeharra ez betetzea.

Zehapena aurreko urte naturaleko negozio-zifraren zenbateko garbiaren ehuneko 0,5eko diruzko isuna izanzen da, 8. artikuluan ezartzen den bezala, eta gutxienez 15.000 eurokoa eta gehienez 400.000 eurokoa izanzen da, aurreko paragrafoan aipatzen den ez-betetzea gertatu den urte natural bakoitzeko.

Artikulu honetan ezarritako arau-haustea egiteagatik ordaindu beharreko zehapenaren zenbatekoa murrizten ahalko da, 13/2000 Foru Legearen 71.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Azken xedapenetako lehena. Arauak emateko gaikuntza.

Zerga arloko eskumena duen departamentuaren titularra gaitzen da behar diren xedapen guztiak eman ditzan foru lege hau garatzeko eta bete-arazteko.

Azken xedapenetako bigarrena. Indarra hartzea.

Foru Lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean eta ondorioak izanen ditu 2021eko urtarrilaren 16tik aurrera, urriaren 19ko 22/2022 Legean emandako idazpenean Hitzarmen Ekonomikoaren zazpigarren xedapen iragankorrean ezarritakoa galarazi gabe.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

10-22/MOC-00106. Erabakia. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da irakaskuntzako zuzendaritzako osagarria egonkortzeko dagozkion prozedurak ezar ditzan.

HEZKUNTZA BATZORDEAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak, 2022ko abenduaren 21ean egindako bileran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da irakaskuntzako zuzendaritzako osagarria egonkortzeko dagozkion prozedurak ezar ditzan”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du:

1. Dagozkion prozedurak ezar ditzan Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetako irakasleek zuzendaritza-karguetan jardutegatik jasotzen duten zuzendaritza-osagarria finkatze aldera.

2. Lantalde bat sor dezan ikastetxe publikoetako zuzendarien elkarteetako ordezkariekin, honako hauetarako:

– Zuzendaritza-eginkizunaren errealitatearen eta zuzendaritza-taldeak osatzeko zailtasunen inguruko diagnostiko bat egitea.

– Behar diren neurriak adostea irakasleek ikastetxeetako zuzendaritzetan parte har dezaten laguntzeko, prestakuntza-, antolamendu- eta kudeaketa-esparruetan, eta lan-baldintzei dago kienez”.

Iruñean, 2022ko abenduaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorraren 2023. urterako ordutegi ofiziala.

Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorraren 2023rako ordutegi ofiziala zehazte aldera, erakunde honen bulegoetan aurkezten ahal den dokumentazio ofiziala jasotzeari dagokionez, lehendakaritza honek

ERABAKI DU:

Lehena. Xedatzea ezen Nafarroako Kontuen Ganberaren Erregistro Orokorraren 2023. urterako ordutegi ofiziala, bere bulegoetan dokumentuak aurkeztekoa, 09:00etatik 14:00etara bitartekoa izanen dela, astelehenetik ostiralera.

Bigarrena. Xedatzea dokumentazioa erregistratzearen ondorioetarako, erakunde honen Erregistro Orokorra itxita egonen dela larunbatetan, igandetan eta Nafarroako Foru Komunitaterako

oro har ezarritako jaiegunetan, bai eta uztailaren 6, 7, 10, 11, 12, 13 eta 14an (lanekoak ez diren egunak, Sanferminak direla-eta) eta azaroaren 29an (San Saturnino jaieguna) ere, egun horiek baliogabeak izanen baitira ondorio guztietarako. Halaber, abenduaren 22an –ostirala– ordutegia 9:00etatik 13:00etara bitartekoa izanen da.

Hirugarrena. Erabaki honen berri Nafarroako Kontuen Ganberako langile guztiei ematea, eta agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren webgunean argitara dadin, jende guztiak horren berri izan dezan.

Iruñean, 2022ko abenduaren 27an

Lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

